



ARABAKO HERRI PROGRAMA

2019

2019-2023 LEGEALDIA

ARABAKO HERRI PROGRAMA 2019

0. SARRERA OROKORRA	5. orrialdea
1. POLITIKA FEMINISTA	8. orrialdea
2. GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA	15. orrialdea
3. GARAPENERAKO LANKIDETZA	28. orrialdea
4. JATORRI ANIZTASUNA	31. orrialdea
5. SEXU ANIZTASUNA	36. orrialdea
6. ANIZTASUN FUNTZIONALA	40. orrialdea
7. LAIKOTASUNA	45. orrialdea
8. EKONOMIA JARDUERA	47. orrialdea
a. INDUSTRIA	
b. HEGARABA	
c. FORONDA	
d. MERKATARITZA	
e. TURISMOA	
f. ENPLEGUA	
9. LURRALDE OREKA	61. orrialdea
a. INGELESMENDI PARKE PERIURBANOA	
b. TOKI ERAKUNDEEN ESKUMENAK ETA FINANTZAZIOA	
c. DESPOPULAZIOAREN KONTRAKO ESTRATEGIA	
d. TREBIÑU	
e. KUADRILLAK	
10. OGASUNA	76. orrialdea
a. ZERGA POLITIKA	
b. IRUZUR FISKALAREN KONTRAKO BORROKA	
c. EKARPEN LEGEA	
11. FUNTZIO PUBLIKOA	82. orrialdea
12. GOBERNANTZA	84. orrialdea
13. NEKAZARITZA	87. orrialdea
14. MUGIKORTASUNA ETA BIDE AZPIEGITURAK	93. orrialdea
a. FORU-GARRAIOA	
b. ARABATRAN	

c. BIDE AZPIEGITURAK	
i. PICA ETA ERREPIDEEN FORU ARAUA	
ii. LEHENTASUNAK 2019-2023 TARTERAKO	
iii. AP68 ETA AP1	
15. INGURUMENA	100. orrialdea
a. HONDAKINAK	
b. ENERGIA	
c. GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA	
d. BIOANIZTASUNA	
e. URAREN POLITIKA	
16. EUSKARA	116. orrialdea
17. KULTURA	120. orrialdea
18. KIROLA	125. orrialdea
19. GAZTERIA	128. orrialdea
20. GIZARTEGINTZA	132. orrialdea
a. GIZARTE ZERBITZUAK ETA ZAINTEA LANAK IRAULTZEA: ERROTUZ PROGRAMA	
b. ADINEKOEN ARRETA	
c. ADIN TXIKIKOEN ETA FAMILIEN ARRETA	
d. DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK	
e. GIZARTE ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA	
f. GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEAREN BERRANTOLAKETA	
g. UDALERRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK	
21. OSASUNGINTZA	137. orrialdea

0. SARRERA OROKORRA

ARABAKO LEHENTASUNAK

Azken boladan errepikatzen ari gara badela garaia Arabako lurraldean aldaketa emateko, urte gehiegi direla eskuineko politikak eta klientelismoa jasaten Araban. EH Bildun prest gaude eraldaketa lideratzeko. Izan ere, *"Araba ondo doa"* entzuten dugu askotan. Zenbaki makroekonomikoek hori omen diote. Baina errealitatera hurbilduz gero, egoera askoz gordinagoa da. Asko dira bazterkerian edo pobrezian bizi direnak. Langile prekarioz josita dugu Araba, pobre berriak. Gazte askok ezin dute gurasoen etxea utzi, alokairuzko etxeen prezioak gora doaz, pentsiodunek ez dute bizitza duina bermatzeko gutxieneko pentsioa... Zer esanik ez emakumeen egoeraz: zaintzak euren gain daude gehienetan eta ederki dakite zer den lan prekarioa. Lurraldeak ere gabeziak eta desoreka inportanteak dauzka. Gasteizko makrozefalia gainditu behar da eta lurralde osorako kalitatezko eskaintza orekatu bat egin beharra dago. Hemen aurkeztuko duguna ez da orain asmatu dugun plan bat, urteotan zehar arloz arlo eta herriz herri herritarrekin batera egindakoa da. Hauek dira gure lehentasunak eta aukerak...

10 lehentasun etorkizuneko Araba eraikitzeko, pertsonen eta pertsonentzat egindako Araba bizia eta berdea, jendearen premiei erantzuteko eta gure lurraldearen eta gure herrien biziraupena bermatzeko gauza izango dena. Azken urte honetan giltzarri izan diren 4 ardatzak hartuko ditugu abiapuntu:

1- **Araba duina** nahi dugu: Ondasunaren banaketan, kalitatezko enpleguaren sorkuntzan eta tokiko garapenean oinarrituta aktibazio ekonomiko orekatu eta jasangarria bultzatu behar dugu. Horretarako:

- Beharrezkoa da diru baliabideak edukitzea, eta horretarako funtsezkoa da diru-bilketa nahikoa, eta, batez ere, justua, hau da, gehien daukateneke gehiago eman dezatela. Fortuna Handien gaineko zerga ezartzea eta Sozietateen gaineko Zerga aldatzea, multinazionalen sistemaz aprobeztatzea saihesteko.

- Beharrezkoa da eskualdeko enplegu planak garatzea, eremu bakoitzak eskaintzen dituen aukerak aztertuz eta aprobeztatuz, zentralizatutako ereduak indargabetuz eta lurraldearen garapen dibertsifikatuan sakonduz.

- Aurrerapauso irmoak egin behar dira enpleguaren kalitatearen aldeko defentsan, baita gutxieneko soldata 1.200 eurotan jartzeko eta gutxieneko pentsioa 1.080 eurotan jartzeko bidean ere.

2- **Araba zaintzailea** nahi dugu: Arabarron ongizatea bermatuko duen kalitatezko sistema sozial publikoa ezinbestekoa da. Pertsona helduen zaintzan eta bazterketa arriskuan dauden lagunengan arreta berezia jarrita. Hutsune ugari ditu egungo sistemak eta hauek dira lehentasunak:

- a. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langile kopurua handitu, eta baita zaintzaileen lan baldintzak hobetzea ere.
- b. Landa eremuetan Etxeko Laguntza Zerbitzua bultzatzea, arretako ratioak igoz eta bestelako baliabide eta zerbitzuekiko bateragarritasunak handituz.
- c. Kuadrilla guztietan gutxienez zentro bat ezartzea bazterkeria egoeran daudenei arreta eskaintzeko plazekin hornitua eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta desgaitasuna duten pertsonak tratatzeko prestaturik, lagundutako etxebizitzak eta eguneko zentroak sortuz.

3.- **Araba berdea nahi dugu:** Gure Lurra maite dugulako ez borobila esaten diogu gure Lurraldea porlanaz eta orbainez bete nahi dutenei. Esaterako, ezezko borobila ematen diogu AHTren proiektu jasanezinaren bidegabekeriari, lurraldeari eta lurraldeko herriei erasotzen baitie porlanezko orbain berriak eraginez. Eta gobernarien itsukeriari, askoz ere jasangarriagoak diren alternatibak aztertzeari ere uko egiten baitiote, trenbide korridorearen modernizazioari adibidez. Izan ere, gas putzuak bultzatzen jarraitu nahi du foru gobernuak, energia berriztagarrietan oinarritutako trantsizio bat bultzatu beharrean. Gure mendiak, lurrak, ibaiak eta paisaiak zaindu eta babestu nahi ditugu.

4- **Araba bizia nahi dugu:** Ezinezkoa da pertsonarik gabeko lurralde bat eta landa ingurune bat edukitzea. Lan egiten duten eta euren herrietan sustraituta dauden pertsonak nahi ditugu, komunitate baten kide izateaz harro daudenak eta bizi baldintza duinak dauzkatenak, baita etorkizuna kinka larrian ikusten duen lehen sektore gero eta mendekoagoan ere. Kontzejuak defendatzen ditugu instituziorik hurbilenak direlako. Benetako lurralde oreka nahi dugulako Araba Biziberritu lelopean eskualde guztietan egon gara pertsonak entzuten eta tokian tokiko soluzioak bilatzen.

5- **Araba anitza nahi dugu:** Herritar guztien eskubide berdintasunean oinarritutako gizarte integratzailea. Arabako gizartean kezka handituz doa estatu espainolean oro har sortzen ari den egoera ikusirik, eta EH Bildun bat egiten dugu kezka horrekin, gure lurraldea ere egoera horren eraginpean baitago. Eskuin muturreko goraldiaren aurrean nagusitu den kezkarekin bat egiten dugu, areago oraindik PP, Ciudadanos eta Vox alderdien arteko aliantza ikusirik, litekeena delako horrek mezu matxista, homofobo, arrazista eta autoritarioen normalizazioa ekartzea, eta betiere zaila den elkarbizitza kinka larrian jartzea.

Errealitate horren aurrean EH Bildurentzat ezinbestekoa da aliantza zabalak eraikitzea, oinarrizko printzipio demokratikoetan eta giza eskubide guztien defentsan oinarrituta PP, Cs eta Vox alderdiek ordezkaturako eskuin muturrari aurre egiteko ibilbide orri partekatu bat ezarriko dutenak, eta Arabak berdintasun, ekitate, inklusibitate, justizia sozial eta lurralde babes handiagoko egoera baterantz aurrera egin dezan behar diren adostasunak bermatuko dituenak.

6- **Araba hezitzailea nahi dugu:** Ghetorik eta bazterketarik gabeko kalitatezko hezkuntza eredu inklusibo, zabal eta publikoa. Lurralde osoan ziurtatu eta indartu behar dira kalitatezko eskola publikoak. Herri biziak nahi baditugu eskola txikiak ere behar ditugu.

7- **Araba feminista nahi dugu:** Horren harira, gizarte eredu matxista gainditu eta emakumeen aurkako biolentzia eta diskriminazio oro desagerraraziko duen gizarte eredua bultzatuko dugu

8- **Araba euskalduna** nahi dugu: Euskal lurralde gisa bere historia, hizkuntza eta kultura ondarearen ezagutza, babesa eta sustapena bultzatuko dituen Araba defendatuko dugu

9- **Araba bakegilea eta erabakitzen duena nahi dugu:** Herritarren erabakitze eskubidea eta nazio gisa dagokigun autodeterminazio eskubidea defendatuko dugu. Bake eta bizikidetza esparruan, gertatutakoaren irakurketa autokritiko eta enpatiko batetik, gatazkak sortutako biktima guztientzat egia, justizia eta erreparazioa bermatu behar dira; preso eta exiliatuentzat salbuespenezko egoera juridikoa gainditu behar da eta, nola ez, guztien etxeratzea sustatu beharra dago.

10- **Birsorkuntza demokratikoa** nahi eta behar dugu: Ezinbestekoa da azken lau hamarkadetan gobernu erantzukizunak eduki eta politika berberak ezarri dituztenak ordezte. Eta haize berria eta freskoa sartzea ere behar dugu. Gobernantza parte-hartzaileago eta gardenago bat. Ezin dugu ahaztu gure herrian izan den ustelkeria-kasurik handiena gure lurraldean gertatu dela. Ustelkeriaren aurkako Fiskaltza bat eta Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren aurkako Bulego bat sortu behar dira, ezinbestean.

1. POLITIKA FEMINISTA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Orohar emakumeak subjektu autonomo giza onartuak gara, eta eskubideen parekidetasunean aurrerapena eman da. Hala ere, azken urteotan eskubideetan izandako lorpen horietako dezente kolokan daude, krisi ekonomikoaren aitzakiaz baliatuz hainbat neurri murriztatzaile ezarri direlako. Hauek, genero rolak indartzeko eta gizon eta emakumeen arteko zapalkuntza eremuan sakontzeko helburua dute, besteak beste, bizimodu prekarizatu eta zaurgarriak bultzatzen baitituzte. Egoerarik larrienean gaur arte zaurgarrienak izan diren kolektiboak daude: emakume etorkinak, adinekoak, gazteak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transak, pentsiodunak, aniztasun funtzionola dutenak, alargunak eta abar.

Lana soberan, enplegu duina faltan. Egia da emakumeok ordaindu gabeko lan erreproduktiboak eskaintzen diegun denbora murriztu egin dela. Honek, lan horiek zerbitzuen sektoreak bereganatzea ekarri du. Merkaturatze honek, ordea, ez du eragin lan hauen aitortzan. Emakumeok lan merkatuan sartu bagara ere, eta akademikoki gero eta prestatuago gauden arren, langabetuen artean kualifikazio gehien duen kolektibo handiena gara.

Honek agerian uzten du kapitalak ez duela emakumeon prestakuntza baliatzeko inolako borondaterik. Urtetako borroka feminista eta sozialari esker, emakumeok, berdintasun formalari erreparatuz gero, eskubide ugari eskuratu ditugu, baina eskubide guztien jabe izan gabe jarraitzen dugu gaur egun.

Emakumeon eta gizonen arteko parekidetasunaren erronkak politika publiko guztiak busti behar ditu. Indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezkoak izango diren inbertsioez lagunduriko politika publiko eraginkorrak egiteko garaia da, egungo politiketan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna izan behar da, eta prekarietate sistemikotik ateratzeko bitartekoak aktibatu behar dira.

Urteak eta urteak daramatzen gizarte matxista eta patriarkala aldatzea ez da erraza izaten ari. Orain arte instituzioak gobernatu dituztenen estrategiek ez dute funtzionatu. Neurri ausartak eta eraldatzaileak behar ditugulako, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea nahi badugu, behintzat.

Arabako Foru Aldundiaren balantzeari bagagozkio, esan dezakegu feminismoa ez dela EAJ-PSEren lehentasuna izan, berdintasuna ez da egon agenda politikoan. Gobernua ez da gauza izan benetako politika feminista sustatzeko, eta betiko inertzietan mantendu da. Izan ere, legealdi honetarako prest omen zeukaten hainbat proiektu martxan jartzeko ez dira gai izan, ez dute bete ezta hitzartutakoa ere (CARME delakoa adibidez).

Gaur-gaurkoz, Arabako Kuadrillek berdintasun teknikariak baldin badauzkate eta lanpostu horiek bertako Lan Zerrendetan egonkortuta badaude, EH Bilduri esker izan da posible. Kuadrilletako Berdintasun Teknikarien sarea sortu ez ezik, egonkortu ere egin da. Hau horrela, Arabako emakumeen elkarteekin zein mugimendu feministarekiko elkarlana ezinbestekotzat jotzen dugu instituzioek benetako politika feministetan aurrera egin dezaten; izan ere, amaitu berri den legealdian EAJ-PSEren gobernuak ez du haiekin elkarlana sustatu, alderantziz, beraiek izan dira batzar nagusietara etorri behar izan direnak gobernuaren utzikeria salatzeraz.

Indarkeria matxistari dagokionez, eredu asistentzialistarekin jarraitu nahi izan du gobernuak, baina hau sikiera ez du landu ere egin. Izan ere, lehendik zeuden errekurtsoen jarraipen hutsa egon da, besterik ez, ezer berririk gabe. Arabako udalekin (gehienbat EH Bilduk gobernatu dituen udalekin sinatuak) zein Kuadrillekin aurretik zeuden hitzarmenak mantendu dira, besterik ez, eta lehen aipatu bezala, indarkeria matxista pairatutako emakume zein adin txikikoentzat martxan jarri behar zuten errekurtsua ez dute abiarazi. EAJ-PSEren gobernuak indarkeria matxistaren aurkako plan espezifiko bat garatzeko konpromezua hartu zuen, baina ez du egin. Gizartegintza arloan, jarduera protokoloa garatzeko konpromezua hartu bazuten ere, hori ere ez dute egin. Bereziki larria da Trebiñuko egoera, izan ere, eta ofizialki Gaztelako lurraldea denez, indarkeria matxista borrokatzeko baliabide guztiak bertako gobernuak ezarritako politiken eta baliabideen arabera kudeatzen da (Goardia Zibilaren eta Burgosko epaitegien menpe, emakumeentzako etxeak eta baliabideak Gaztela-Leongo hirietan...).

Gobernuaren proiektu nagusienetarikoa izan den Laia Eskolari dagokionez, hauxe da EH Bilduren balorazio zintzoa: Laia Eskola (2016-2020) proiektua sortu zen emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren bilaketan laguntzeko eta Arabako lurralde osoan emakumeon parte-hartze soziopolitikoa bermatzeko helburuarekin. Ekimen honen helburu nagusia da **emakumeok ahaldundutako** prozesuetan laguntzea, geure **parte-hartze soziopolitikoa** indartzeko baliagarri diren tresna eta dinamiken bitartez, eta, aldi berean, **emakume eta gizonekin berdintasunaren** alde lan egitea, oro har.

3 urteko ibilbidea egin ondoren, EH Bildun uste dugu badela garaia Laia Eskola proiektuari buruz gogoeta bat egiteko eragile guztiekin batera, haren ibilbidearen diagnostiko bat eginez 2020tik aurrera proiektua horizontalki ezartzen laguntzeko eta proiektuaren helburuak eraginkortasunez eta praktikotasunez lortzeko. Gure ustez beharrezkoa da berdintasunerantz aurrera egitea landa- eta gizarte-garapenaren eta lurralde orekaren esparruan, eta horregatik premiazkotzat jotzen dugu Arabako Foru Aldundiko sail guztien konpromisoa eta koordinazioa, baita haren eta lurraldean eragina duten gainerako eragileen arteko konpromisoa eta koordinazioa ere: Kuadrillak eta Toki Erakundeak, gizarte erakundeak, mugimendu feminista, emakumeen kolektibo eta elkarteak eta landa sindikatuak, baita Eskolaren egunerokotasunean inplikatu nahi duten guztiak ere. Zerbitzu beharrezkoa eta estrategikoa da azken batean, baina oraindik zer hobetu asko daukana.

HELBURU OROKORRA

Bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatua dagoen beste eredu batera igaro behar gara, unibertsaltasuna eta singularitasuna kontuan hartuko dituen.

Emakumeak zaintzaile izateko jaio garen ideia apurtu nahi dugu, eta zaintzeko eta zaindua izateko asmoa duenari bere eskubideak bermatu nahi dizkiogu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun formaletik errealerara pasatzera joateko neurriak hartu behar dira, eta indarkeria matxista gainditzeko akordio sozial integrala ere abian ezarri.

Emakumeak eta prekarietatea, lotuta dauden bi errealitate izateari uzteko, akordio sozial berriak eraikitzea jo da, zaintza lanen ardura eta baldintzak parekidetu, edota sistema produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa gainditzeko haste beretik.

Indarkeria matxista da indarkeria agerikoena eta gaitzespen sozial handiena lortu duena, baina oraindik indarkeriaren oinarria bera eta hainbat indarkeria zuzen ikusgarri egiteko daude. Horretarako ezinbestekoa dugu indarkeria mota guztiez aritzea, baita jasaten duten gorputz guztiak erdigunean jartzea, homofobia, lesbofobia, transfobia. jendarte heterosexistaren ondorio diren heinean erdigunera ekarri behar baititugu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Politika publikoak eraldatzea

┐ Berdintasun politikak zeharkako ikuspegi feminista batetik garatzea. Horretarako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Zuzendaritza sortzea, Foru Aldundiko organigramaren maila gorenetan presentzia eta erabakitze ahalmena izango duena, organikoki Ahaldu Nagusiaren Sailaren Zuzendaritza baten bidez. Aurrekontu osoaren % 1 gutxienez Zuzendaritza horri lotutako politikak garatzeko.

┐ Kuadrilletako Berdintasun Teknikarien sarea egonkortzea eta Aldundiko zein zerbitzu propioa dauzkaten udaletako teknikariekin koordinazioa hobetzea, sare eraginkorra sortzearen eta mugimendu feministarekin zein emakume elkarteekiko elkarlan zintzoa sustatzeko. Horretarako Aldundiak handitu beharko ditu horretarako propio bideratzen dituen partidak.

┐ Arabako foru Aldundiko zein horren erakunde autonomo eta enpresa publikoetako emakumezko langileek pairatzen duten soldata arrakalari buruzko azterlan independente eta sakona egitea, beharrezko neurri eraginkorrak hartu ahal izateko.

┐ Diru-Laguntzen Foru Araua aldatzea Foru Aldundiaren deialdietan soldata arrakala ekiditeko. Halaber, antzeko neurriak hartzea kanpo kontratuen esleipenetan ere holakorik gerta ez dadin.

)] Proiektu estrategiko eta aurrekontuak egin eta diseinatzerakoan, genero inpaktua aztertzea eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak aktibatzea; haiek garatu ondoren ebaluazioa egitea, haien benetako inpaktua ezagutzeko.

)] Etengabeko prestakuntza berdintasun politiken zeharkakotasunari buruz langile publikoentzat eta ordezkari politikoentzat.

)] Parte-hartzerako gune edota mekanismo lotesleak gaitzea berdintasun planak eta politikak toki erakundeekin eta mugimendu feministarekin garatu eta koordinatzeko, emakumeen —eta bereziki, zailtasun handienak dauzkaten emakume eta kolektiboen— premietara egokitutako funtzionamendu bati jarraikiz.

)] Kontratazio eta diru-laguntzetan nahitaezko genero klausulak eta horiek betearazteko jarraipen tresnak ezartzea.

)] Administrazio publikoan familia adiskidetzarako eta erantzukizun partekaturako neurri eraginkorrak ahalbidetu eta inplementatzea.

)] Langile publikoen amatasun- eta aitatasun-baimen ez transferigarriak berdintzea.

)] Komunikazio eredu ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea.

2. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa aktibatu eta indartzea

)] EH Bilduk konpromisoa hartzen du 2020an Berdintasunerako Arabako V. Foru Plana onartzeko eta abian jartzeko, eta horretarako 2020ko hasieratik elkarlan eta parte-hartze prozesu eraginkorra mugimendu feministarekin adosteko.

)] Mugimendu feministak eta emakume elkarteek politika publikoen diseinuan, egikaritzean eta jarraipenean parte har dezatela bultzatzea, haien premietara egokitutako mekanismo eta gune egonkor eta malguen bitartez.

)] Mugimendu feministaren eta emakume elkarten arteko lankidetzak sustatzea eta formula egokiak zehaztea erabakitzeko eremu guztietan parte har dezaten.

)] Emakume Etxeak, ahalduzko eskolak edo ekintza politika feministarako antzeko guneak sor daitezela sustatu eta bultzatzea.

)] Politikaren maila guztietan emakumeen parte-hartze espezifikoak sustatzeko ekintza positiboak bultzatzea.

)] Emakumeak ahalduzko proiektuak sortu, bultzatu eta sendotzea, jatorri, arraza, sexu orientazio edo genero adierazpen zein beste edozein arrazoi direla-eta diskriminazio bikoitzak edo hirukoitzak jasaten dituzten kolektiboei arreta berezia eskaintzearen.

)] Parte-hartzeari buruzko “dekalogoa” edo “protokoloa” bat egitea, printzipio feministetan oinarrituta, eremu guztietan parte hartzeko eredu osasungarri, orekatu, jasangarri eta ahalduzkoak sustatzeko, diskriminazio ugari pairatzen dituzten emakumeen edo parte hartzeko zailtasun gehien dauzkaten presentzia eta aniztasunari behar bezalako erantzuna emango diona.

3. Zainketa duin eta unibertsaletarako baldintzak sortzea

┐ Bizitzaren jasagarritasuna Arabako Foru Aldundiaren jardueraren erdian jartzea, maila ekonomiko eta sozialean.

┐ Zainketa premia guztiak biltzen dituzten zerbitzuak sare publikora lehengoratzeko prozesuan aurrera egitea.

┐ Zaintza profesional eta duinen sare publikoa ezartzea, emakumeek familietan duten zaintza zama leuntzeko.

┐ Enpresei eta jendarteari zuzendutako plan bat diseinatzea, zaintza lanetan gizonen erantzukizuna sustatzeko.

┐ Zaintzaileei laguntzeko bitartekoak indartzea, kontzientzia kritikoa eta etxe barruko autozaintza eta negoziatziorako tresnak haien eskura jarritz.

┐ Zaintzaileei atsedeen emateko programak gaitzea, ahaldundutze jarduerekin batera (zaintzen gaineko ikuspegi kritikoa garatzeko, xede izanik, gizonen erantzunkidetasuna lortzea).

┐ Lizitazioetan egoitzetako eta zainketekin zerikusia duten zerbitzu eta zerbitzu feminizatueta sektoreetako langile eta zaintzaileen lan baldintzak hobetu eta duin bihurtzeko ziurtatzea.

┐ Zaintza arloko langileen lan eskubideak erregularizatzea eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzea.

4. Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea

┐ Prestakuntza eta enplegu planak garatzea prekarizazio eta diskriminazio handieneko egoeran dauden emakumeentzat bereziki, autonomia ekonomikorik ez dutenentzat edo guraso bakarreko familietako emakumeentzat, besteak beste.

┐ Ama bakar edo autonomia ekonomiko gabeko emakumei zuzendutako ekintza positiboak aktibatzea, zerbitzu publikoak erabili ahal izateko, kasu, jarduera soziokulturaletan, kiroldegietan, garraio publikoan, deskontuak.

┐ Baterako errenta-aitorpena ezabatzea sustatu behar da, jakina, mendeko emakumearen rola betikotu baino ez baitu egiten, aitorpen mota hori modu progresiboan ezabatzeko.

┐ Arabako Foru Aldundiaren kontratazioetan Garbiketa eta Zaintza arloetako langileen lan baldintzak hobetzeko eta duintzeko neurri eraginkorrak hartzea, baita Zerbitzu Sektoreko sektore feminizatuerei dagokienez (ostalaritza, merkataritza, etab.) ere.

┐ Lan eremu autonomo feminizatueta lan baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren neurriak identifikatu eta aktibatzea.

┐ Emakumeen kooperatibak sortzea ahalbidetzen duten aholkularitza eta laguntza eskaintzea inplementatzea, sektore feminizatueta arreta berezia jarritz.

┐ Emakumeentzako prestakuntza jarduerak garatzea, kooperatibismoarekin eta ekintzailetzarekin lotuta, betiere askotariko diskriminazioak jasotzen dituzten emakumeen beharrak kontuan hartuz.

┐ Bereziki emakumeengan eragina duten behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak murrizteko kontratazio publikoetarako politika diseinatzea.

┐ Zainketa informalaren sareak erregularizatzea, esplotazio egoerak ahalbidetzen dituzten neurrian, eragindako kolektiboen parte-hartzea bermatuz.

┐ Lanaldi partzialak eta lanaldi osoa eskubide eta prestazioetan pareka daitezela sustatzea (kotizatutako lanaldia).

5. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak sortzea

┐ Arabako Foru Aldundiaren eta mugimendu feministaren arteko lankidetzaren mekanismo egonkorak ahalbidetzea, funtzionamenduari dagokionez printzipio feministei erantzungo dietenak.

┐ Trebiñuko egoera negargarria dela-eta, EH Bilduk exijituko du Eusko Jaurlaritza zuzenean inplikatzeko gai honetan, Trebiñuko emakumeek, Arabako beste guztiek bezalaxe, holako egoera dramatikoetan baliabide polizial, judizial eta asistentzial berberak jaso ditzaten. Horretarako Eusko Jaurlaritzari exijituko diogu behar diren hitzarmenak sinatu ditzala Gaztela-Leongo zein Espainiako Gobernuarekin funtsezko helburu hori betetzeko Trebiñuko afera modu demokratikoan ebatzen den bitartean.

┐ Indarkeria Matxistaren Biktimen Arreta Integralerako Taldeak sortzea Araba osoan.

┐ Emakumeen arreta integralerako baliabide nahikoak edukiko dituzten egitura jasagarriak sortzea, landa eremuetan ere zuzeneko arreta eta kalitatezko zerbitzuak eskainiz.

┐ Indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazio kanpainak bultzatzea, gizarte talde guztiei egokituak (eta gazteengan arreta berezia jarritz) eta mugimendu feministarekin adostuak, indarkeria matxisten zuzeneko zein zeharkako adierazpen guztiak eta haien arrazoiak jasoko dituztenak.

┐ Indarkeria matxistei aurre egiten dieten emakume eta adin txikikoei baliabide publikoak eskaintzea, mugimendu feministarekin batera identifikatutako kasu guztietan, nahiz eta egungo berdintasun legeetan jasoak ez egon.

┐ Herritarrek —eta bereziki, emakumeek— eskuragarri dituzten baliabideei buruzko informazioa edukitzeko baliabideak jartzea.

┐ Indarkeria sexistei buruz informatzeko protokolo orokor bat adostea Arabako komunikabideekin, tratamendu egokia ematen dela ziurtatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta eduki sexistak desagerrarazteko, besteak beste.

┐ Emakumeen eta adin txikikoen aurkako indarkeria kasuen prebentzioan eta kudeaketan diharduten foru profesionalen nahitaezko genero prestakuntza jarraitua sustatzea ikuspegi feminista batetik.

┐ Emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten zerbitzu, prozedura eta baliabide guztien publikotasuna eta doakotasuna ziurtatzea, baliabide administratibo eta judizial guztietara iristeko aukera bermatzearren.

┐ Larrialdiko prestazio ekonomikoak gaitzea emakumeak suspertzeko eta emakumeen autonomia ahalbidetzeko (enplegu programetan txertatzeko aukera, etxebizitzak...).

┐ Adin txikikoentzako, emakumeentzako eta haien seme-alabentzako laguntza psikologiko espezializatua ziurtatzea eta prozesu osoan bermatzea.

┐ Indarkeria matxistaren biktima izan diren adingabeentzako arreta eta suspertze planak aktibatzea.

6. Askatasun afektibo-sexuala eta ugalketa-askatasuna bermatzea

┐ Emakumeek euren gorputza, euren borondatea eta euren askatasuna libreki balia dezatela ziurtatzeko behar diren baliabideak gaitzea.

┐ Hezkuntza afektibo sexual feminista sustatzea, gazteenen eta aniztasun funtzionalaren artean batez ere, euren sexualitatearen eta gorputzaren gaineko kontrola handitzeko, genero rol eta estereotipoen aurka borrokatzek eta, indarkeria matxisten arrazoiei aurre egiteko, etab.

7. Laia Eskola hobetzeko proposamenak

┐ EH Bilduk uste du Laia Eskolak korrelatu maskulino bat eduki behar duela Arabako landa eremuetako gizonentzat, “Gizonduz” programaren ildo beretik, landa ingurune maskulinitateen dekonstrukzioa lantzeko.

┐ Funtsezkoa da Aldundiko Berdintasun Zerbitzuaren, Kuadrilletako Berdintasun teknikarien, landa emakumeen elkartearen, mugimendu feministaren eta Kontzejuetako ACOA eta ACOVI erakundearen artean ongi koordinatzea. Hori guztia zeharkako planteamendu horizontal batetik, landa emakumeen protagonismoa bilatuz, Gasteiztik datorren norbaiten azalpenen hartzaile soilak izatetik haratago parte-hartzaile aktibo bihurtuz, esparru instituzionaletatik kanpo euren arteko sare-harremanak ahalbidetuz eta Laia Eskolaren prestakuntza edukien aplikazio praktikoa bilatuz parte-hartzaileen landa ingurune eta herrietan. Horrek esan nahi du Laia Eskolaren jarduerak, neurri handi batean, herrietako emakume eta gizonen premietatik sortu behar direla, eta ez hainbeste hiriko agenda mediatikoetatik.

┐ Autodefentsa feministako tailerrak etengabe eman behar dira, inor ere parte hartzeko aukerarik gabe gera ez dadin.

2. GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA

2015-2019 LEGEALDIAREN BALANTZEA ETA 2019-2023 LEGEALDIRAKO PROPOSAMENAK

1.- Institutuzioak eta frankismoari buruzko Memoriaren gaineko politikak

GASTEIZ

2014an Frankismoaren Krimenen aurkako Euskal Plataformak Memoria-Gasteiz txostena aurkeztu zuen Gasteizko udaletxean. Hirian memoria historikoaren eremuan esku hartzeko proposamen integral hori lau ardatzetan egituratu zen:

- Errepresio frankistaren Memoriaren Lekuak seinaleztatzea
- Sinbologia frankistan esku hartzea
- Ohorezko udal kargu eta kale izendegi frankistak aztertzea
- Gasteizko frankismoaren biktimen errolda ofiziala egitea

Neurri horiek betetzean desadostasunak sortu dira. Nolanahi ere, Gasteizko memoriaren paisaia zeharo aldatu da 2015-2019 legealdi honetan. Guztira 6 oroigarri berri jarri dira hirian, instituzio publikoen babesarekin eta dagozkien azalpen testuekin, betidanik isilpean gordeta egon ondoren Gasteizko errepresio frankistaren zenbait alderdi argitara atera dituztenak: Santa Isabel hilerrian fusilatutako biktimak, Bake kaleko espetxearen kokapena, Sagrado Corazón ikastetxean kokatutako emakume-espetxea, Karmeldarren komentua espetxe gisa bete zuen zeregina, Senda Ibilbidean Luis Álava Sautuk zuzendutako sare antifrankistaren omenez jarritako oroigarria eta Posta kalean Teodoro González de Zarate azken alkate errepublikanoaren omenez inauguratutako eskultura.

OLARIZUKO GURUTZEA

Olarizuko Gurutzearekin gertatutakoa bereziki azpimarratzekoa da. Lan taldeak gurutzea seinaleztatzeko erabakia hartu zuen, Gasteizko udalaren jabetzako lurretan ez, baizik-eta Mendiolako kontzejuaren jabetzako lurretan zegoela jakin gabe. Gainera, Mendiolako kontzejuak bi aldiz ere erabaki du gurutzea eraistea. Bitartean, ezezagunak gurutzea eraisten ahalegindu dira, eta, ahaleginak ustelak izan badira ere, segurtasun arrazoiengatik zigilatuta dago une honetan, eta egitura sendotzeko esku-hartze bat egin da, Mendiolako kontzejuari baimenik eskatu gabe. EH Bilduko kideok uste dugu egoera hori etorri dela

Udalaren utzikeriaren eta akordioak bilatzeko erakutsi duen gaitasun ezin eskasagoaren ondorioz. Eta aldarrikatzen dugu Mendiola Gurutze Frankistaren etorkizuna erabakitzekeko subiranoa dela.

FRANKISMOAREN BIKTIMEN BULEGOA

EH Bilduren eta EAJren arteko 2017ko ekitaldiko aurrekontu itunaren ondorioz, **Frankismoaren Arabako Biktimen Bulegoak** 141 lekukotza jaso zituen guztira. 2017ko ekainetik urrira bitarte egon zen irekita, lehenbizi Gasteizen, eta geroago Lurralde Historikoaren Kuadrilla guztietan. Txostena amaitu da, baina oraindik ez da argitaratu. Orain, Arabako Foru Aldundiak, Batzar Nagusiekin batera, gizateriaren aurkako delituengatik kereila bat aurkeztu behar du. Batzar Nagusien osoko bilkurak horixe erabaki zuen 2018ko abenduan.

IRUÑA-OKA

Diktadura frankistak Iruña-Okan eraildako zazpi pertsonetako baten senideak EH Bildurekin harremanetan jarri ziren, senideei omenaldi bat egitearren. Lehenagotik udalerriko alkatearekin ahalegindu ziren behin baino gehiagotan, baina alferrik. EH Bilduren bitartez mozio bat bideratu zen, eta senideak udalaren osoko bilkuran esku hartzen ahalegindu ziren, baina kasu honetan ere alferrik. Aurreikusitakoa baino hilabete geroago, osoko bilkurak erabaki zuen eskultura bat jartzea familiak proposatutako testuarekin. Udalerriak pairatutako errepresioari buruzko azterlan bat egitea ere onartu zen. Martxoan eskultura jarri eta azterlana aurkeztu zen.

OZAETA

Jose Placer fusilatu zuteneko 80 urteurrenarekin batera, 2017ko uztailean Barrundiak bere herritar ospetsuenetako bat omendu zuen. Omenaldiaren barruan, bere ibilbidea gogora dakarren plaka bat inauguratu zen.

MURGIA

2017ko martxoan, memoria historikoari buruzko aste baten ospakizunen esparruan, Zuiako Udalak Memoriaren lehen marka jarri zuen frankismoan kontzentrazio esparrua izan zen Pauldarren komentu zaharrean.

URTEGIAK URPERATUTAKO HERRIEN MEMORIA

Partikular baten ekimenari erantzunez, EH Bilduk Gasteiz, Barrundia, Arratzu-Ubarrundia eta Burguko udaletara eta Arabako Batzar Nagusietara eraman zuen urtegiak urperatutako memoria berreskuratzeko ekimen bat. Orain urpean desagertuta dauden bederatzi herri horietan 600 pertsona inguru bizi ziren, eta frankismo garaian euren etxeak abandonatu behar izan zituzten ezinbestean. Ekimenaren bitartez

omenaldi bat eman nahi zaie pertsona horiei guztiei. Garaion, Landan eta Zuhatzan azalpen plakak jartzea ere planteatu da. Udalerrri guztietan onartu da ekimena, eta orain lan taldea martxan jartzeko garaia da.

2. - Ekimen instituzionalak euskal gatazkaren memoriaren inguruan, erretratu partzial bat.

Legealdiaren hasieran, EAEko udalerrri guztietako “*Memoriaren erretratuak*” aurkeztu ziren, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta. Gasteizko erretratuan, ETA, ETA pm, ETA m eta CCAA erakundeek 1978tik 2000ra bitarte eraildako 32 biktima eta Estatuko Segurtasun Indarrek 1973tik 1982ra bitarte eraildako beste 10 biktima bildu ziren.

EH Bilduk idazki bat bidali zuen zenbait ekarpenekin, eta Gasteizekin zerikusia duten honako kasu hauek ere batzeko eskatu zuen, erretratutik kanpo geratu baitziren: Jose Ramon Rekarte, Jesus Maria Markiegi “*Motri*”, Enrique Gomez Alvarez “*Korta*”, Jose Manuel Ariztimuño “*Pana*” eta Navitividad Junco. *Gogora* Institutuak Kortaren kasua biltzea onartu zuen soilik, “Batallón Vasco Español” erakundeak eraildakoen atalean. Gainerakoak ez zituzten onartu zenbait arrazoi tarteko: kasua ongi ikertu gabe zegoelako (Rekarte, 1975ean Arakako kuartelean eraila); liskar armatuetan hildako militanteak zirelako (Motri 1975ean eta Pana 1981ean) edota dispertsioaren biktimek erretratu horietan tokirik ez dutelako (Natividad Junko 2007an).

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eskaerari jarraikiz EAEn izandako torturari buruz egindako txostena orain hilabete batzuk argitaratu zen. Azterlan horretan dokumentatuta dagoenez, 1960tik 2014ra bitarte 4.133 pertsona torturatu zituzten. Araban 245 kasu bildu dira, eta beste toki batzuetan torturatutako arabarrak erantsi behar zaizkio kopuru horri. Frankismoaren biktimen bulegoan, 60ko eta 70eko hamarkadetan torturatutako 8 pertsonak testigantza eman dute. Datu horiek guztiek aditzera ematen dutenez tortura errealitate bat da; Gasteizen eta Araban ere ikusarazi behar den errealitate bat. Hortaz, Estatu indarkeriaren adierazpen hori pairatu duten guztientzako aitortza eta erreparazioa bultzatu behar ditugu.

3.- Giza Eskubideen ekimen instituzionalak

Gasteiz, Zuia eta Laudioko udaletatik eta Arabako Foru Aldunditik zenbait deialdi egin dira giza eskubideen sustapenarekin zerikusia duten jarduerak garatzeko. Etxeratek, Sarek eta beste zenbait elkartek parte hartu dute deialdi horietan, eta, 2016. eta 2017. urteetako EH Bilduren eta Foru Gobernuaren arteko aurrekontu akordioen ondoriozko laguntza publikoen bitartez, presoan egoerari buruzko zenbait jarduera garatu dituzte: dispertsioa, gaixo dauden presoak...

4.- Memoriaren eta Giza Eskubideen Zentroa Martxoaren 3ko elizan

2015eko hauteskunde kanpainan, EH Bilduk “*Memoria Gunea*” proposamena aurkeztu zuen. Proiektuaren helburua da San Frantzisko Asiskoaren eliza Memoriaren eta Giza Eskubideen gunen bihurtzea,

eta bertan 1976ko martxoaren 3an egindako sarraskiaren aurrekari, gertaera eta ondorioak azaltzea. Horrez gain, Giza Eskubideen dinamikak, eta Egia, Justizia eta Erreparazioaren eta Ez Errepikatzeko Bermeen printzipio unibertsaletan oinarritutako jarduera eta programazioak garatzeko zentroa izatea ere lortu nahi da.

2016ko udal aurrekontuetan, 25.000 euroko partida bat onartu zen proiektu hori garatzeko. 2016ko martxoan, EH Bilduk lehen zirriborro bat egin zuen, Memoria Gunean honako atal hauek txertatu behar zirela zehaztuta: erakusketa iraunkorra, erabilera anitzeko gela, dokumentazio zentroa, elkarteentzako gunea, kafetegia eta denda.

Bestetik, elizaren kudeaketa erakunde publikoen esku uzteko zenbait bide aztertu dira, Gasteizko Udalean horren inguruko zenbait ekimen aurkeztu dira, bateko eta besteko emaitzak izan dituztenak, eta Arabako gotzainarekin ere zenbait bilera burutu dira, elizaren lagapenaren gaiari heltzeko. Zoritxarrez, gestio horiek guztiek ez dute oraindik inolako emaitza positiborik eman, eta beraz instituzioek are gehiago ahalegindu beharko dira, baita Arabako Foru Aldundiak ere, funtsezko helburu hori lortu ahal izateko.

2018ko irailean *Memoria Gara* ekimena aurkeztu zen, San Frantzisko Asiskoaren Elizan memoriarako gunea bat sor dadila erreklamatzeko ari den plataforma. EH Bilduko kideok bat egiten dugu plataformaren helburuekin, eta instituzio eta kaleetan defendatuko ditugu behar diren ekimen guztiak Zaramagako Eliza titulartasun publikokoa izatera igaro dadila (lagapen edota truke bidez edo beste formula bat erabiliz) eta horrela memoria eta giza eskubideetarako gunea bihurtu dadila lortzeko.

5.- Memoria baztertzailea Gasteizko bihotzean, Estatu estrategia bat

“Terrorismoaren biktimen aitortpenerako eta babes integralerako” Espainiako 29/2011 Legeak “Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa” sortzea jaso zuen, eta 2014an, PPre Gubernuak, Rajoy presidente zela, zentro hori Gasteizen jartzea erabaki zuen. Espainiako Bankuaren eraikin zaharra hautatu zuten, hiriaren erdi-erdian. Rajoy obrak inauguratzeko ekitaldira bertaratu zen eta, protesta artean, obrei hasiera eman zieten. Hasiera-hasieratik argi geratu da proiektu hori apustu estrategiko bat dela Estatuarentzat. Azken hamarkadetan Euskal Herrian gertatutakoaren kontakizunaren eta Memoriaren gaineko ikuspegi partzial bat gizarteratzeko euskarri bat da.

Memoria baztertzailean oinarritutako proiektu baten aurrean gaude, gertaeren irakurketa partzial baten aurrean, errealtatearen zati handi bat ezkutatzen duena. 29/2011 lege horretan oinarrituta dagoenez, lege horretan jasotako “terrorismoaren biktimek” baino ez dute tokirik zentro horretan. Hau da, 1960tik aurrerako denbora eremua badu ere, azken hamarkadetan —bai diktadura garaian, bai ondorengo urteetan— Estatuako aparatuek eraildako milaka biktimak kanpo geratzen dira.

Arreta guztia ETaren biktimengan jartzen da, eta planteamendu horrek Estatuaren oso estrategia zehatz bati erantzuten dio: ETaren ziklo historikoa amaiturik, hau da, ETak jarduera armatua bertan behera

utzi, armagabetu eta desegin ondoren, fase berri bat jarri da martxan: *“kontakizunaren bataila”*. Gasteizko bihotzean memoria baztertzailan oinarritutako zentro hori inposatzea behar horien aurkako noranzkoan doa. Hasierako aurreikuspenaren arabera, zentroa 2018ko amaieran inauguratuko zen, baina gobernu aldaketak eguna berriz ere atzeratzea ekarri du berekin, eta delegatu berriak iragarri zuenez 2019ko bigarren erdialdean inauguratuko da. Atzerapen horiek gorabehera, irekierak eta jardueraren publizitateak mota guztietako bultzada ekonomiko eta komunikatiboak izango ditu Estatuaren aldetik.

Egoera horren aurrean, EAJk hartu duen akonpainamendu jarrera kezkarria iruditzen zaigu benetan. Madrildik agintzen dute Gasteizen memoria baztertzailan oinarritutako zentro bat jartzea, eta EAJk onartu egiten du, eta, hori gutxi balitz, haren patronatuan parte hartzen du. Martxoak 3 elkarteak eta Frankismoaren Krimenen aurkako Euskal Plataformak alkateari jendaurrean eskatu zioten proiektu horri babesa ez emateko eta bestelako Memoria-ekimenen alde egiteko, salbuespenik gabe, giza eskubideen urraketen biktima izan diren guzti-guztiak bilduko dituzten ekimenen alde, hain zuzen. EAJk erantzun zuen zentro hori babesten eta hartan parte hartzen jarraitzeko asmoa zuela, ETAren biktimei babesa emateari ez ziolako uko egin nahi, baina patronatuari martxoaren 3an izandako biktimak proiektu horretara biltzeko eskaera egingo ziola. Patronatuak, ordea, eskaera hori atzera bota du.

6.- Memoria kalean: ekitaldi publikoak

Azken urteetan ekitaldi publikoak antolatu ditugu edo herri mugimenduaren deialdiekin bat egin dugu memoriarako esanguratsuak diren egunetan, hau da, martxoaren 3an, martxoaren 31n, uztailaren 18an eta irailaren 27an.

Martxoaren 3an EH Bilduk bere ekitaldia antolatzen du goizean, eta arratsaldean bat egiten du sindikatuak deitutako manifestazioarekin.

Martxoaren 31 (Azazetako sarraskia) erreferentziazko data bat bihurtu da Gasteizko eta Arabako frankismoaren biktimak gogoratu eta omentzeko. EH Bilduren ekimenari erantzunez, 2017an Arabako Foru Aldundiak monolito bat jarri zuen Azazetako errepidean. Bestetik, Gasteizko Udalak eskultura bat jarri du Posta kalean, Azazetako sarraskian beste 15 antifaxistarekin batera eraildako azken alkate errepublikanoaren omenez. Hasiera batean pentsatu zuten eskultura “terrorismoaren biktimen oroimenezko zentroaren” aurrean jartzea, baina azkenean metro batzuk beherago jarri zuten, estatuko zentro horren barruan eta kanpoan zein dauden hain agerian ez uzteko.

2017an, Azazetako sarraskiaren eta Gernikako bonbardaketaren 80 urteurrenarekin batera, “Azazeta-Gernika” ekimena antolatu zen, eta programan zenbait ekitaldi bildu ziren 1937an gertatutakoa gogora ekartzeko, Gernikan ospatu zen 2017ko Aberri Egunerako deialdiarekin batera.

2018an, EH Bilduk, ezkerreko beste zenbait alderdi politikorekin batera (Ahal Dugu, Ezker Anitza, Equo), oroimenezko honako ekitaldi hauek antolatu ditu: omenaldi bat Azazetan, eta memoria-politika publikoen gaineko solasaldi bat, Sartaguda, Elgeta eta Miranda de Ebroko alkate eta zinegotziekin.

Uztailaren 18an, 2013tik 2016ra bitarte, Frankismoaren Krimenen kontrako Euskal Plataformak frankismoaren inpunitatearen aurkako kontzentrazio bat deitu zuen, 1936ko kolpe militar faxistaren urteurrenean. 2016an Plataformak kontzentrazio hori deitzeari utzi zion. Jada nolabait erreferentziazkoa zen egun horretan sortu zen hutsunea ikusirik, 2017ko uztailaren 18an EH Bildu, Ezker Anitza, Equo eta Ahal Dugu alderdi politikoez mobilizazio antifrankista horri jarraipena ematea erabaki zuten, eta, ildo horretan, manifestu bat adostu zuten eta frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldi bat eta inpunitatearen aurkako kontzentrazio bat antolatu zuten. 2018an lau indar politikoez berriz ere ekitaldia deitu dute ildo beretik, *“Iragana gogoan, Araba Berria eraiki”* lelopean eta Araban ezkerreko alderdien arteko aliantzak sartzeko helburuarekin.

7.- Mugimendu memorialistaren Justiziaren aldeko Borroka

Frankismoaren krimenak judizializatzeko ahalegin oro blokeatzen duen inpunitate eredu espainolaren aurrean, 2010ean Argentinan nazioarteko kereila bati hasiera eman zitzaion, justizia unibertsalaren printzipioan oinarrituta. 1936tik 1977ra bitarte Estatu osoan frankismoaren biktima izan diren pertsonak aurkeztu dira kereila horretara, errepresioaren adierazpen ugari salatzeak asmoarekin: desagertzeak, erailketak, torturak, espetxea, bortxazko lanak, lapurtutako haurtxoak...

Argentinako kereila inflexio puntu bat izan da frankismoaren inpunitatearen aurkako borrokan, orain artean inoiz ikusi gabeko egoerak ahalbidetu dituelako Justiziarako eskubidearen eremuan: biktimek testigantza eman dute egoitza judizialean, Servini epaileak oraindik bizirik dauden ministro eta polizia frankistak atxilotzeko aginduak eman ditu...

Argentinatik irekitako prozesua Espainiako justiziaren blokeoari iskin egiten ahalegintzen den bitartean, bigarren fronte judizial bati eman zaio hasiera, Estatuko toki epaitegietan kereilak aurkeztuz. Dozenaka kereila aurkeztu dira, zenbait udal eta instituzioren inplikazioarekin. Gasteizko martxoaren 3ko kasua izan da toki epaitegietara iritsi den lehenetako bat eta Arabako instituzioen eskutik iritsi da gainera. Estamentu judizial guztietan barrena ibili da Konstituzio Auzitegira iritsi arte, baina han instrukzioa atzera bota dute gertaerak preskribatuta daudela argudiatuta edo 1977ko puntu eta amaierako legea oinarritzat hartuta.

EH Bilduk mugimendu memorialistaren ekimen judizial horiei guztiei babesa eman die, instituzioak Argentinako zein tokiko kereiletan inplika daitezela bultzatuz. Arabako kereila bultzatzeko garaia iritsi da. Lehenago ere esan dugunez, orain, Arabako Foru Aldundiak, Batzar Nagusiekin batera, gizateriaren aurkako

delituengatiko kereila bat aurkeztu behar dute. 2018ko abenduan Batzar Nagusietako osoko bilkurak hala erabaki zuen, Frankismoaren Biktimen Bulegoak egindako lanean oinarrituta.

Bestetik, “Martin Villa Epaitu” ekimena jarri da martxan. 2019ko urtarrilaren 31n abiatu zen kanpaina, Estatuko hainbat hiritan aldi berean. Euskal Herrian oihartzun berezia dauka, mugimendu memorialista osoaren babesa duelako. Urte osorako jarduera eta ekimen instituzionalak programatu dira. Kanpainak Rodolfo Martín Villa jaunari erantzukizun zibil, politiko eta penalak eskatzen dizkio, frankismoaren azken urteetan bete zuen eginkizunagatik. Izan ere, “Trantsizioaren” eta harekin batera etorri zen errepresio politikaren ordezkari frankista nagusietako bat da Martín Villa. Frankismoaren inpunitate eta jarraipen ereduaren ikurra da nolabait. Mugimendu memorialistaren antzeko ekimenetan egiten ari garen bezala, EH Bilduk kanpaina hori babestuko du instituzioetara iristen diren mozio eta ekimenetan.

2019-2023 legeintzaldirako proposamenak:

1. EGIA EZAGUTZEA, BIKTIMEN ETA JENDARTEAREN ESKUBIDEA DEN HEINEAN

Arabako Ikerketarako Batzorde bat aktibatzea, elkarte adituekin elkarlanean Egiaren Mapa eraikitzeko.

Arabako biktimen beharrak aztertzea, behar horietarako laguntzak egokitu edo osatzeko (edota, laguntzak jaso ez dituztenek, jaso ahal izan ditzaten).

2. MEMORIA-ARABA GARATZEA

Memoriaren lekuak seinaleztatzeko dinamika Araba osora zabaltzea planteatzen dugu, Giza Eskubideen defentsaren pedagogia demokratikorako tresna bat den heinean, herrialdearen memoria antifaxista aldarrikatzeko baliagarria. Horregatik, hiru lan-ildo planteatu dira: Lekuak seinaleztatzea, leku horietan barrena ibilbideak egitea eta frankismoaren aurkako pedagogia egitea, diktadurarekin zerikusia duten pertsonen ohoreak kenduz.

Leku sinboliko gehiago seinaleztatzea, lehen planteamenduaren ostean seinaleztatu gabe geratu zirenak edo orain arte aintzat hartu gabeko espazio berriak, esaterako:

- **Katedral berria**, haren historia, Franco diktadoreak palio azpian nola inauguratu zuen eta hierarkia katolikoaren eta diktaduraren arteko lotura azalduz, haren erakusgarri argiena harrian landutako armarrria izanik, oraindik ere barrualdean dagoena.

- **Salburuko aerodromo zaharra.** Lehenik eta behin, 1937an Gernika bonbardatu zuten hainbat hegazkinen abiapuntua izan zela azaldu beharuko litzateke, eta jarraian, aipamen horretan oinarrituta, Euskal Herriak sufritu zituen bonbardaketa faxista guztien —Otxandio, Durango, Elorrio, Eibar, Gernika— biktimen oroimenezko bilgune bihurtzea.

- **Langraiz-Okako kontzentrazio-esparrua (Murgian bada memoriaren marka bat)**

- **Faxismoaren aurkako erresistentziarako lekuak 1936-1937 gerran: Albertia, San Pedro Beratza, Gorbeiako frontea**

Memoria-Araba ibilbidea. Turismoko foru zerbitzuetatik ibilbide bat sortzea eta eskaintzea seinaleztatutako toki guztietan barrena, arabarrek eta bisitariak herrialdearen memoria antifrankista ezagutzeko eta hartan barrena ibiltzeko aukera izan dezaten. “Memoriaren lekuen” errolda bat egitea eta “babespeko eremu urbanizaezin” deklaratzeko, dagozkion HAPOetan eta hirigintza araudi guztietan.

Frankismoaren aurkako pedagogia. Diktaduraren kargudunekin lotutako ohorezko karguak kentzea.

3. AHANZTURAREN AURKAKO MEMORIA BIZIAK

Araban frankismoak eraildako militante antifaxisten bizitzak ikusaraztea, eta euren historiak berreskuratu eta ezagutzera ematea, pertsona horiek bizi izan ziren, lan egin zuten, borrokatu ziren edo atxilotu zituzten tokietan seinale biografikoak jarritz. Proiektuak baliabideetan inbertitzea eskatzen du, kasu esanguratsuak dokumentatu ahal izateko diktadurari aurre egin zion denbora- eta ideologia-espektro zabala aintzat hartuz. Zenbait proposamen:

┐ Lauaxeta. Karmeldarren komentuaren ondoko egungo seinalizazioa zabaltzea, bustoaren eta memoriaren markaren ondoan seinalizazio biografiko bat jarritz.

┐ Isaac Puente. Bere etxebizitza eta familiaren farmazia hartu zituen eraikinean seinale bat jartzea Arabako mediku ospetsu eta buruzagi anarkista gailen horren oroimenez. Heriotzaren eskudroi frankistek estrajudizialki eraila, haren gorputzak desagertuta jarraitzen du gaur egun, frankismoaren beste hainbat biktimaren gorputzek bezala. Memoriaren marka eta dinamika propioa Maeztun.

┐ Columba Fernández Doyague, terrore frankistak Gasteizen errepresaliatutako emakume guztien ikurra. 1936ko udan atxilotu zuten, eta gau batean Bake kaleko espetxetik atera zuten, arekaren batean erailtzeko; oraindik desagertuta jarraitzen du. Ez zen inoiz gehiago Pintore kaleko etxebizitzara itzuli, eta horixe toki egokia izan daiteke haren historia ikusarazi eta kontatzeko.

J Zalduondoko (Miguel Gil), Galarretako (Bernardino Pérez) eta Gordoako (Mauricio Rodriguez) maisuak, 1936ko abuztuan erail zituztenak.

J Santiago Arbeo eta Fernando López de Aberasturi Dulantziko gazteak 1974an erail zituzten, eta kasua ez zen inoiz argitu, heriotzen atzean aparatu frankistak egon zirela susmatzen bada ere.

J Jesus Mari Markiegi, “*Motriko*”, militante antifrankista gasteiztarra, 1975eko Salbuespen Egoeran Guardia Zibilak balaz josi zuena.

4. BEKAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

EH Bilduren eta Foru Gobernuaren arteko aurrekontu akordioen ondorioz 2016 eta 2017 urteetan inplementatu zen Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren zabalkunde proiektuetarako laguntza deialdia mantenduko dugu, 2018an eta 2019an EAJk, PPren eskaerari erantzunez, bertan behera utzi bazuen ere, eta zuzkidura 100.000 euroraino igoko dugu, oinarrietan ikerketa eta irakaskuntzarako proiektuak bilduz.

5. ERREHABILITAZIO INSTITUZIONALA

Euren atxikimendu ideologiko, politiko eta sindikalaren ondorioz espedientatu, baztertu eta kaleratu zituzten funtzionario publiko eta langileen errehabilitazioa bultzatzea. Aldundiak, Udalekin elkarlanean, udalerri bakoitzean antolatuko ditu askatasunaren alde eta faxismoaren kontra borrokatzeagatik errepresaliatu edota fusilatu zituzten udal funtzionario eta langile, zinegotzi eta alkateak —eta, oro har, herritarrak— aitortzeko ekitaldiak.

6. DESAGERTUTAKO PERTSONAK BERRESKURATU ETA IDENTIFIKATZEA

Araban desagertutako edo fusilatutako pertsona guztiak identifikatu, bilatu eta berreskuratzeko lankidetza aktiboa. Helburu horrekin DNA banku baten sorrera bultzatuko da, identifikazioak errazteko lagungarri izango dena. NBEk “bortxazko desagertzeei” buruz adierazi berri duenez, desagertze horiek ikertzea ezinbesteko eginkizuna da erakunde publikoentzat, eta, ildo horretan, jadanik hasita dauden proiektuei (Aranzadi-Eusko Jaurlaritza) laguntzeko konpromisoa hartzen dugu, EHUrekin lankidetza hitzarmen bat hasteko asmoa dugula iragartzeaz gainera.

7. EGIAREN BATZORDEA

Aldunditik bultzatuko dugu **EUSKAL HERRIKO EGIAREN BATZORDEAREN** sorrera, tresna horrek aukera emango digulako, puntu eta amaierako legeak gaindituz, beharrezko dugun dokumentazioa biltzeko, prozesu judizialak hasteko zantzu elementuak biltzeko eta erreparazio proposamenak lantzeko, ez errepikatzeko bermeak barne.

8. PUNTU ETA AMAIERAKO LEGEA INDARGABETZEA

1977/10/15eko amnistiaren legea indargabetzea eskatzen duten ekimenak sustatzea edota bultzatzea.

9. MUGIMENDU MEMORIALISTAREKIN KOORDINATUTAKO EKIMENAK

Aurreko legealdian bezalaxe, EH Bildu tresna eraginkorra izan behar da instituzioetatik mugimendu memorialistarekin partekatutako ekimenak bultzatzeko. Abian dauden ekimenak eta honako ardatz hauen inguruan sortuko diren berriak:

- Arabako krimen frankisten inpunitatearen kontrako kereilak
- Martín Villa epaitu ekimena
- Torturatzailen kontrako salaketak
- Argentinako kereila
- San Frantzisko, Oroimenerako eta Giza Eskubideetarako zentroa
- Egiaren Batzordeak

10. BIZIKIDETZA BULTZATZEA

Σ Egia eta justiziaren parametroan oinarrituz lan egitea, biktima guztien eskubide berdintasuna sendotzeko.

Σ Kargu instituzionalekin eta herritarrekin batera lan egitea elkarbizitzaren aldeko mahaiak martxan jartzeko.

PRESOAK

DIAGNOSTIKOA ETA EGOERA

Askatasunean eta demokrazian oinarritutako etorkizuna nahi dugu gure herriarentzat. Baina era berean badakigu azken 50 urte hauetan gatazka indarkeriaren bidez azaleratu dela, eta hainbat kasutan ondorio konponezinak izan dituela; baina oraindik ere jasaten diren ondorio batzuk erreparatu daitezke, denak ez baitira amaitu.

Euskal Herriak bere etorkizuna modu aske eta demokratikoan erabakitzeko eskubidea izan behar du, gatazka indarkeriaren bidez azaleratzen zeneko garaiak gainditu behar dira, eta horretarako ezinbestekoa da garai gogor hartako ondorioak konpontzea. Beste modu batean esanda, ziklo bat eta bere ondorioak itxi egin behar dira, garai berriak indar osoarekin zabaldu ahal izan daitezen.

Gatazkaren ondorioak konpontzeko, lehen urrats gisa, alderdi guztien borondatea, elkarrizketarako jarrera eta bitarteko demokratikoetan sakontzeko asmo sendoa beharrezkoak dira, munduko beste hainbat tokitan lantzen ari diren bideetan gertatzen den bezala.

Azken urteetan hainbat urrats egin dira biktimen aitortzari eta eragindako kaltea onartzeari dagokienez, eta horrekin bat egin dugu herri honetako instituzioek eta kargu hautetsiek. Bide hori jorratzen jarraitu beharko dugu, baina Aieteko Adierazpena egin zenetik eta armagabetu egin den arren, Espainiako Gobernuaren posizioa ez da aldatu.

Hala eta guztiz ere, Estatuaren itxikeria modu argienean ikusten den puntua gatazkaren ondorio pertsonalei dagokiena da, hain zuzen ere presoak etxera hurbiltzeko prozesu ordenatu eta progresibo bati uko egiten baitio. Gure herriaren elkarbizitzaren eta bizitza politikoaren normalizazioak eskatzen du, besteak beste, preso, errefuxiatu edo deportaturik gabeko Euskal Herri bat.

Gaur egun, oraindik ere, presoek eta euren senitartekoen sufrimendua areagotzen ari dira. Mendekua oinarri duen espetxe politika baten ondorioz, kondenak luzatzeko ahalegina egiten ari dira, aurkako noranzkoan joan beharrean. Euskal presoek bide bat irekitzeko borondatea adierazi dute, legalitateari jarraikiz eta euren eskubideak abiapuntutzat hartuz, eta ibilbide bati ekinez denak etxera itzuli arte.

Premiazkoa da herri honetan bakea eta elkarbizitza atzeratzen ari diren oztopo guztiak gainditzea, eta preso eta errefuxiatuen gaia oso garrantzitsua da.

Euskal erakundeetatik bake, elkarbizitza eta adiskidetzarako politikak inplementatzeko eskaera egiteko garaia da, zauriak behar bezala itxi daitezen saihesten ari diren alde bakarreko blokeoei aurre eginez. Preso eta errefuxiatuak gabeko Euskal Herri bat eraikitzeak garaia iritsi da.

Adierazpen honen alde gaudenok, euskal gehiengo sozialaren borondatearekin bat eginez eta herritarren ordezkari politiko eta instituzionalak garen heinean, gure erakundeek gure herrirako bake eta askatasuneko etorkizuna kudeatzeko legimititatea izan dezatela aldarrikatzen dugu.

HELBURU OROKORRA

Dispersioa amaitzea salbuespen legeria bertan behera utziz, eta 70 urtetik gorakoak eta kondenaren 2/3 bete dituztenak aske uztea, egungo egoerak presoak eta euren senitartekoak eta adiskideei eragiten dieten sufrimendu gehigarria ezabatuz.

Era berean, funtsezkoa da Espainiako 7/2003 Lege Organikoa indargabetzea. Ildo horretan, halaber ezinbestekoa da Espainiako auzitegiek espetxealdiak luzatzeko aplikatu dituzten Doktrinak eraginik gabe uztea. Justizia trantsizionalaren ikuspegi zabala duten bide berriak irekiz aplikatu behar da legeria.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Kohesio komunitarioko neurriak ahalbidetzea

- ┐ Presoen senitartekoentzako laguntzak aktibatzea, dispersioak eragindako gastuei aurre egiteko.
- ┐ Preso ohiak gizarteratzea ahalbidetzen duten ekintzak bultzatzea.
- ┐ Preso ohiak gizarteratzeko bideak eskaintzea.
- ┐ Harrera elkarrekin elkarlanean jardutea presoak lan merkatuan integratzeko bidean.
- ┐ Udalek eta Diputazioak hitzarmenak sinatzea Espetxeen Zuzendaritza Nagusiarekin, lan komunitarioak egitera zigortuta dauden pertsonei edota erregimen irekian edo hirugarren graduan dauden presoak eskaintzak egiteko.

2. Presoen giza eskubideen defentsan aurrera egitea

- ┐ Salbuespen neurriak eta presoen giza eskubideen urraketa bertan behera uzteko eskatzea.
- ┐ Dispersioa amaitzeko ekimenak egitea.
- ┐ Gaixorik dauden presoak gizatasun arrazoiengatik espetxetik ateratzeko eskatzea, tratamendu egokia jaso ahal izan dezaten.

) Emakume presoek tratu duina jaso dezatela sustatzea (arreta mediko espezializatua, higie-ne espezifikorako materiala jasotzeko aukera eta abar).

3. Estatuko Segurtasun Indarrak

- Arabako desmilitarizazioaren lehen urratsa egitea, Guardia Zibilak gure lurraldean dauzkan kuartelen kopurua murriztuz, neurri handi batean ia hutsik dauden eraikin horiei beste erabilera batzuk emateko. Horietako asko toki estrategikoetan kokatuta daude.

3. GARAPENERAKO LANKIDETZA

DIAGNOSTIKOA

Elkartasuna, jabetze eta laguntza biztanle subjektuengandik sortuko direlarik, sakontasuna bazterkeriaren kontzeptuaren nahiz garapenaren kontzeptuaren dimentsio aniztasunari jarraituz, kalitatea zein gardentasuna garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren kalitatea neurtzeko, eta koordinazioa inpaktuak hobetzeko, ezinbestean behar duten izan printzipio gidariak.

Garapen jasagarria, partekatua lortu nahi dugu, lan duina sustatzen duen garapena, giza eskubideen, demokraziaren eta gobernu onaren alde egiten duena, egiturazko pobrezia desagerrarazita. Azken batean, justizia eta ekitate handiagoko egoerara eramango gaituen eraldaketaren bidean aurrera egin nahi dugu; baina bi alderdi, bereziki, aipatu nahiko genituzke bide horretan: alde batetik, munduko hizkuntza-aniztasuna eta kultura-aniztasuna sustatzeko eta horri eusteko premia, aberastasun globalaren elementua den aldetik, eta bestetik, emakumeek betetzen duten eginkizuna, garapen-sustatzaileak diren aldetik.

Ilido beretik, herriek euren natura-baliabideak eta kultura-jakintza kontrolatzeko duten eskubidea errespetatu egin behar da, baita subiranotasunak eta libre erabakitze aukera ere. Horretaz gain, emakumeak ez dira tresnatzat hartu behar, helburu ekonomikoak direla-eta.

HELBURU OROKORRA

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuen koherentzia da; garapenerako politikei ikuspegi koherente batetik begiratzea, alegia. Ikuspegi koherente batetik begiratzuz gero, erreferentziako esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta, hartara, hainbat arlotako politikek –merkataritzaren, energiaren edo zergaren arloko politikek, esaterako– beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak saihestu ditzakegu, betiere herritarrek eskubideak baliatu ahal izateko baldintzak sortzea eragotzi edo oztopatu gabe.

Gainera, gure herrian lortu nahi dugun garapen motarekin bat datozen politika publikoak diseinatzeko eta erabakiak hartzeko irizpideak ere eskainiko dizkigu.

Nazioarteko Lankidetzaz ari garelarik, gizarte-mugimenduen egitekoa nabarmendu behar dugu, emantzipazio-logiketan funtsezko subjektu diren aldetik; gizarte-mugimenduek demokrazia partizipatiboaren formula berriak taxutzen eta defendatzen dituzte ekitatean, horizontaltasunean eta desberdinen antolamenduan oinarrituta, eta gaur egun, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide politikoak euren aldaketa-agenden inguruan mobilizatzeko gaitasun handia dute gizarte-mugimenduek, bakoitzak bere heinean.

Hortaz, herritartasunaren eta demokraziaren bidean aurrera egin nahi badugu, gizarte-mugimenduak indartu beharko ditugu, ezinbestean.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Lankidetza solidario eta eraginkorra garatzea

-)] Legez ezarritako aurrekontuaren %0,7a lortzeko neurriak aktibatu.
-)] Gizarte-eragileekin batera lankidetza-plan bat egitea, jarraitu beharreko estrategia zehaztuko duena.
-)] Lankidetza-agenteeekin elkarriketa politikoa izateko ahalmena eta borondatea duten egitura politikoak sortzea, baita kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak ere.
-)] Erakundeen arteko koordinazioari lehentasuna ematea, jardunen eraginkortasuna hobetzeko eta eskuragarri dauden baliabideen optimizazioa bermatzeko.
-)] Irizpide eta metodoak erakundeen artean bateratzeko aukera sustatzea, proiektuak aurkeztu eta justifikatzeko.
-)] Lankidetzarako zuzeneko guneak bultzatzea, Euskal Fondoa adibidez.
-)] Irabazi-asmorik gabeko erakundeak —hau da, erakunde publikoak eta gizarte-erakundeak, iparralde globaleko eta hegoalde globaleko mugimendu eta erakundeak— lankidetza-politiken sustatzaile gisa onartzea.
-)] Proiektuen jasangarritasuna bermatzeko neurriak aktibatzea, garapen endogenoa sustatuz, eta kanpo-ekarpena amaitu ondoren aurrera egiten jarraitzeko aukera emango duten ekintzak bultzatzea.
-)] Sustatutako lankidetza-politikaren ebaluazio eta jarraipenaren aldeko ekintzak aktibatzea, eta ekintza horiek sustatzaile nagusiei eta herritar guztiei ezagutzera ematea, haiei buruz eztabaidatzeko eta haien legimititateari buruz erabakitzeke aukera izan dezaten.
-)] Garapen-lankidetzarako funts publikoen % 0,7a finkatzea, bai Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan, baita Batzar Nagusien aurrekontuetan ere, herritartasun globalaren eta herrien arteko elkartasunaren printzipioan oinarrituta.
-)] Administrazio publikoen kontratueterako baldintza-agirietan, lan-eskubideen, genero-berdintasunaren, giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloetako baldintzak txertatzea.

2. Justizia sozialaren arabeko lankidetza garatzea

-)] Beste herrialde batzuekiko harreman multilateralak bultzatzea, Iparraldea-Hegoaldea, laguntzailea-onuraduna, emaila-hartzailea dikotomiak gaindituz; ildo horretan, eragileen arteko akordio estrategikoak gauzatuko dituzten esparru eta prozesuei emango diegu lehentasuna.
-)] Lankidetza-politikan genero-ikuspegia txertatua duten erakundeekin lan egiteari lehentasuna ematea.

┐ Garapenerako lankidetzaren aldeko politikatik enpresentzako mozkinak edo merkataritza-onurak baztertzea, baita asistentzialismoarekin edo karitatearekin lotutako xedeak dituzten nazioarteko harremanen sustapena edo ekimenak ere.

┐ Estaturik ez duten edo hizkuntza gutxiituak dituzten herriekiko lankidetzaren areagotzea, giza eskubideen nazioarteko esparruaren aitortza integrala lortu nahi duten nazioekin aliantza estrategikoak sortzeko asmoz.

┐ Protokolo bat aktibatzea administrazioaren ordezkarietarako, non Giza Eskubideen Zuzendaritzak beti izango du ordezkariaren bat, sinatu behar diren kontratuetan baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko.

3. Elkartasunaren kontzientzia soziala sortzea

┐ Herritar kritiko antolatuak sortzera (ikerketa, eragin politikoa, sentsibilizazioa, emantzipazio-hezkuntza, antolaketa) zuzenean bideratzen den lankidetzaren guztizko ehunekoa modu iraunkorrean handitzea.

┐ Herritarren artean elkartasunaren kultura sustatzea, garapenerako lankidetzaren, garapenerako hezkuntzaren eta herritarren sentsibilizazioaren bitartez.

┐ Lankidetzaren politika bat bultzatzea, herrien eta gizarte-sektoreen arteko desoreka eragiten duten arrazoien gaineko kontzientzia kritikoa sortzeko helburuarekin.

┐ Erosketa publiko etikoa inplementatzea, banka etikoari, energia-kontratuei, materialak erosteari, software libreko programa informatikoei, jasangarritasun ekologikoari eta beste zenbait alderdiri dagokienez.

┐ Gardentasunaren eta kontuak ematearen ildoari jarraikiz, urte bakoitzeko lehen sei hilekoan Garapenerako Lankidetzaren jardueren memoria argitaratzea; memoria horretan, burututako ekintzen laburpena, zer emaitza lortu diren eta aurrekontu-likidazioa aurkeztuko dira.

4. JATORRI ANIZTASUNA

DIAGNOSTIKOA

Joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera Araba harrera-gune izan da etorkizun hobe baten bila iritsi direnentzat. Euskal Herriko beste herrialde batzuetatik, Galiziatik, Gaztelatik, Extremaduratik, Andaluziatik eta beste hainbat tokitatik iritsitako jendeek osatzen dute Arabako gaur egungo “*biztanleria autoktonoa*”. Pertsona horiek guztiek, etorkizun hobe baten bila etorri ziren gizon-emakume horiek, omenaldi bat merezi dute. Eta, arrazoi berberetatik, orain lurralde honetan euren etorkizuna jorratzen ari diren pertsonen mirespen eta errespetu hori merezi dute.

Aniztasun hori aurrera egiteko ezinbesteko baldintza dela onartzen badugu soilik helduko diogu lanari gogoz eta ausardiaz, etorkizuneko belaunaldietarako nahi eta amesten dugun Araba eraikitzeke oztupo diren beldurak uxatuz.

Egoera orokorra

Arabako herri sektore zabalek betidanik defendatu eta bultzatu dute kulturartekotasun kritiko eta barne-hartzaile bat demokrazian elkarrekin bizitzeko, etorkizuneko proiektu gisa. Beste sektore batzuek, aldiz, desberdina arriskutsua dela uste dute. Batekoak eta bestekoak betidanik izan ditugu Araban, eta gaur egun ere biak ala biak daude indarrean. Azken horiek elkarbizitza arriskuan jartzen dute diskurtso arrazista eta xenofoboetarako joera erakutsiz, eskuineko alderdientzat mezu horiek oso tentagarriak baitira hauteskundeei begira. Testuinguru horretan sortu zen, 2015eko udal eta foru hauteskundearen aurreko hilabeteetan, Alderdi Popularraren kanpaina arriskutsua.

2014ko ekainaz geroztik aurreko Udal Gobernuak, Javier Maroto buruan, eta Javier de Andresen Foru Gobernuak egoera zeharo asaldatu zuten, eta haustura sozialaren arriskua ere hor egon zen; horren ondorioz gizartea mobilizatu zen, eta Alderdi Popularra Gasteizko alkatetzatik irten behar izan zen. Harrezkero egiaztatu ahal izan denez, gutxienez lortu dugu gure lurraldeko erantzukizun instituzionaletatik arrazakeria sustatzen ez jarraitzea eduki xenofobo argia duten mezuen bitartez. Hala eta guztiz ere, pertsona migratu edota arrazializatuek ohartarazten dutenez, azkenaldi honetan arrazakeria eta xenofobiaren adierazpen publikoen gorakada nabarmentzen ari da hainbat herritarren artean. Adierazpen horiek egunero ikusten ditugu, eta bereziki emakumeengan dute eragina, batez ere hiyaba daramaten emakume musulmanen artean, gure gizartean handituz doan islamofobia sufritzen dutenak. Kirolaren eremuan ere nabarmentzen dira jarrera horiek, baita aisiaren eremuan ere, taberna edo diskoteketarako sarreran adibidez.

Hala eta guztiz ere, instituzioak askoz ere gehiago inplikatu beharko lirateke kultur aniztasunaren, bizikidetzaren eta pertsona migratu eta arrazializatuen eskubide eta premien arretarako defentsan. Are gehiago kontuan hartzen badugu elkarbizitza oasi bat izatetik oraindik ere oso urrun gaudela, eta jarrera arrazistak herritarren zati handi batean sakonki sustraituta daudela.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK:

1. Egungo jatorri eta kultur aniztasuna kohesio elementu bihurtzea. Elkarbizitza sustatzea.

- Arabako elkartearen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzak ziurtatzeko mekanismoak sustatzea.
- Jendartean parte hartzeko programa diseinatu eta inplementatzea, jendartean eta politikan parte hartzeko dinamika bat hainbat mailatan garatzeko duena kultur aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruan, Arabako kultur aniztasunaren isla diren errealitate guztiak aintzat hartuz.
- Bertan bizi diren beste jatorri batzuetako pertsonen herri eta herrialdeentzako laguntzari lehentasuna emateko lankidetzak eta elkartasun programak egokitzea, batzuk herri minorizatu edo estatutik gabeko nazioetatik etorritakoak izan daitezkeela aintzat hartuta.
- Elkar ezagutzeko (*“ezagutzetik aitortzara”*) neurriak diseinatu eta inplementatzea herritar guztientzat, Euskal Herria eta Arabako zein gure udalerrietako kultur elementu nagusiak ezagutzera emateko bertara iristen direnei edo beste jatorri bat daukatenei, eta, bestetik, jatorriko komunitate, herri edo nazioetako errealitatea, hizkuntzak eta kultura zein egoera politikoa gainerako herritarrei erakusteko.
- Elkarbizitza sustatzeko programa propioak garatzea elkarrekiko ezagutzan eta aitortzan oinarrituta, jarrera paternalistari gabe eta xenofobiaren aurka borrokatuz, jendartea kohesionatzeko dinamikak eta topaketa eremu komunitarioak sortzeko helburu nagusiarekin.
- Senidetzeko eta trukeko programa bat sortzea, Araban bizi diren pertsonen beste jatorri batzuetako herri eta herrialdeekin elkarlanean.

2. Gure herritar guztien parte-hartze politiko eta soziala bermatzea.

- Arabako eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzak eta koordinaziorako gune misto bat sortzea, aniztasun eta migrazio alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko eta lankidetzak eta elkarlanerako eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko.
- Hainbat jatorri edo kulturaren inguruan antolatutako elkarteak sustatzeko eta elkarte horiei laguntzeko eta laguntzak emateko programa.
- Bertako paio edo ijitoez zein migratzaileez osatutako elkarteekiko edo elkarte mistoekiko harremanak ezartzea eta elkarlanerako oinarriak zehaztea. Elkartearen arteko baterako lanerako guneak ahalbidetzea.

3. Arau, ekimen eta politika publiko guztiek pertsona guztientzako eskubide guztien inplementazioa ziurtatzen dutela bermatzea

- “*Arrazakeria instituzionala detektatu eta desagerrarazteko behatokia*” sortzea, arau, ekimen eta politika publiko guztiek pertsona guztientzako eskubide guztien inplementazioa ziurta dezatela bermatzeko.
- Ahaldu Nagusiaren mendeko Kulturarteko Bizikidetza Zerbitzuaren eskura beharrezko mekanismo eta baliabideak jartzea kultur aniztasuneko politikak diseinatu, bete eta koordina ditzan, eta politika horiek Gobernu jarduera osoan zeharka eta eraginkortasunez ezartzen direla berma dezan.
- Foru administrazioaren politika eta zerbitzuak Araban bizi diren pertsona guztiei irekitzea, haien jatorria edo lege egoera kontuan hartu gabe (denetariko zerbitzuak: gizartean, hezkuntzan, osasunean, kulturean, enpleguan, ekonomian, etab.). Administrazioaren zerbitzu eta baliabideak hainbat hizkuntzatan argitaratzea.
- Errola bermatzea, Araban bizi den pertsona ororen berezko eskubide gisa. Horretarako, bizilekua frogatzeko bideak askotarikoak izango dira, irekiak, pluralak eta errazak. Ezin daitezke soilik lotu pasaporteak edukitzearekin edo etxebizitzaren alokairu edo jabetza kontratu bat aurkeztearekin.
- Garapen Ekonomikoarekin, Enpleguarekin eta Gizarte Zerbitzuekin zerikusia duten alorretako politikek herritar guztiak —haien jatorria edozein izanik ere— jomugan dituztela ziurtatzeko neurriak (osasun eta gizarte zerbitzuetarako eta enplegurako doako sarbide unibertsala, etab.), aldi berean aukera berdintasuna ziurtatuz.
- Kultur Aniztasunari buruzko prestakuntza programa espezifikoak instituzioetako langileentzat, balio eta printzipioetan heziz herritarrekiko harremanetan inolako diskriminaziorik izan ez dadin.
- Mota guztietako (harrera orokorra, hizkuntza harrera, elkarbizitza, elkar ezagutzea, parte-hartzea, etab.) plan edo programak zehazteko baliabideak eta koordinazioa aktibatzea, pertsona guztiek zerbitzu publikoak jasotzeko aukera izan dezaten euren jatorria edozein izanik ere, eta elkarbizitza kudeatzea, erakundeetatik zein eremu komunitario eta sozialetik.
- Eremu horretan lankidetzarako sare instituzional bat sortzea Arabako erakunde guztien artean, eta Euskal Herriko gainerako erakundeekiko lankidetzaren esparruak ezartzea.
- Udalerriei mota guztietako (harrera orokorra, hizkuntza harrera, elkarbizitza, elkar ezagutzea, parte hartzea, etab.) planak edo programak zehazteko baliabideak eta koordinazioa eskaintzea, kultur aniztasunaren kudeaketarako politikak bultzatzeko.

4. Herritartasuna: euskal herritartasun efektiboa sustatzea, jatorria edozein izanik ere.

- Araban bizi diren pertsona guztiek, euren jatorria edozein izanik ere, botoa emateko, elkartzeko eta politikan parte hartzeko dituzten eskubideak babesteko erabil daitezkeen tresna juridiko-politikoen gaineko azterlanak egitea.
- Diagnostiko edo azterlan kuantitatibo eta kualitatibo bat diseinatzea Arabako jatorri aniztasunaren benetako argazki bat lortzeko, herritar guztiak bilduko dituen nazio ikuspegi batetik.
- Inplikazio instituzionala, salaketa eginez eta Arabako herritarrak proaktiboki defendatuz, eskubide politiko eta zibilen urraketa larriak gertatzen direnean. Herritarren babesa bermatzea, migrazio legeek eta araudiek urratutako eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten.
- Emakume migratzaileen aitortza, ikustarazte eta ahaldunderako jardunak, euren kulturaren espezifikotasuna kontuan hartuz.
- Arabako lan merkatua aztertzea, emakume migratzaileak laneratzeko sektore nagusiak eta euren lan baldintzak zein diren jakiteko.
- Gaztelaniaren irakaskuntza eta alfabetatzeko lanetan diharduten kolektiboak aitortzea eta baliabidez hornitzea.
- Euskara irakaskuntzaren hurbilketa eta doakotasun unibertsala, Araban bizi diren gazte eta heldu guztientzat, euren jatorria edozein izanik ere.
- Migratzaileen eta hainbat jatorritako herritarren artean euskaraz alfabetatzea ahalbidetzen duen hezkuntza eredu sustatzea.
- Euskararen irakaskuntzaren doakotasun unibertsala ziurtatu arte, egoera sozioekonomiko ahulenean dauden pertsonentzako laguntza programak inplementatzea, euskararen irakaskuntzan txertatzeko benetako aukerak izan ditzaten.
- Beste jatorri batzuetako emakumeek emakume guztiak jomugan dituzten programa espezifikoetarako sarbide normalizatua dutela bermatzeko neurriak.
- Lege eta administrazio neurriak, administrazioaren laiktasunetik abiatuta, herritarren erlijio adierazpen desberdinen aukera berdintasuna babesteko.

5. Gure lurraldean bizi diren pertsona guztientzako eskubide guztiak ziurtatzea.

- Harrera sare bat sortzea Arabako udalerriekin elkarlanean, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena, iristen diren, iragaitzan dauden edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak osotasunean landuz eta etxebizitza bilatzeko akonpainamenduari arreta berezia eskainiz.
- Aholkularitza eta arreta legal eta soziokulturaleko zerbitzu bat sortzea, harrera sareari lanean lagunduko diona, gure lurraldera iristen diren, iragaitzan dauden edo iritsi berri diren migratzaile guztientzat, administrazio egoera irregularrean dauden pertsonak barne.

- Itzulpen zerbitzu bat sortzea, harrera sareari lanean lagunduko diona, kontuan hartuz, batetik, migratzaileen jatorriko hizkuntza, eta, bestetik, euskara (harrera lana egiten dutenei euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko aukera ziurtatuz eta alderantziz).
- Harrera gida bat argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, kanpotik edota beste jatorri batzuetatik gure lurraldera bizitzera datozen guztientzat, hainbat alorretako (politika, kultura, gizartea, lana, osasuna, hezkuntza, etab.) egoeraren gaineko informazioa eta orientazioa emango duena.
- Euren borondatez itzuli nahi dutenei laguntzeko programak, bereziki egoera sozioekonomiko zailenetan daudenentzat, itzulera duintasun baldintzetan egiteko aukera izan dezaten. Itzuli nahi duten pertsonen segurtasun fisikoa, materiala, legala eta juridikoa bermatuko da.

6. Xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borroka, bereziki lege eta neurri arrazista instituzionalei aurre egiteko.

- Jendartea sentibilizatzeko kanpaina bat martxan jartzea, banako edo taldeko jarrera arrazista edo xenofoboak desagerrarazteko, zurrumurruen aurkako kanpainak barne.
- Zurrumurru eta estereotipo arrazista edo xenofoboek aurkako informazio kanpainak martxan jartzea.
- Xenofobia eta arrazakeria gainditzeko diharduten gizarte eragileekiko lankidetzaren indartzea.
- Arrazakeria eta xenofobia gaien gaineko salaketak jasoko dituen eta jardun horietako biktimei laguntza eta aholku emango dien bulego bat sortzea.
- Lege eta administrazio neurri xenofobo edo arrazistak salatzearen dinamika bat martxan jartzea.
- Kalitatezko zigilu bat sustatu eta esleitzea, diskriminaziorik gabeko gune gisa eratzeko mekanismoak bermatzen dituzten guneentzat.
- Tokiko komunikabideekin kontratu sozial bat sinatzeko ekimena sustatzea, argitaratutako informazioa arrazakeriarik eta xenofobiarik gabe eman dadin.

5. SEXU ANIZTASUNA

DIAGNOSTIKOA

1.- GUZTIA LORTUTA BADAGO, ZERGAITIK BORROKATU ORDUAN?

Azkenengo urteetako aurrerapen legalak egoera zeharo aldatu duela ezin da ukatu. Edonola, egun, pertsona transexualak kalbario erabatekoa pairatu behar izaten dute medikuntzaren esparrutik. Jendarte aurreratu honetan gizon/emakume binarismoan oinarrituta dago eta genero aniztasuna ez du aintzat hartzen.

LGTB+ mugimenduaren zati bat hetero araua eta merkantilismo arrosaren preso da. Harreman eredu berriak sortu beharrean heteroarauak eskaintzen dituen eredu zapaltzailea (indarkeria, arrazismoa...) erreproduzitzen dute.

2.- ERASOAK

Arabian 15 eraso homofobo eta transfobo baino gehiago jazo dira azken urtean. Gasteizko Udalak egindako diagnostikoaren arabera gay, lesbiana eta transexualen %57a kalean erasotua sentitu da, eta LGTB+ kolektiboaren zati handi batek adierazten du erasoak ekiditeko kalean edo lantokian ez duela bere sexualitatea edo genero identitatea erakusten. Egoeraren larritasuna ikusita gertaera hauek guztiak jaso, aztertu eta aholkularitza lana egingo duen tokiko behatokia behar dugu.

3- IKUSGARRITASUNA

LGTB+ kolektiboak, azkenengo legealdietan existitu ez den kolektibo bat izan da, urtean bitan adierazpen instituzional bat egitera mugatu da guztia. LGTB+ kolektiboak espazio propioa eskatzen die Arabako instituzioei, abenduan aurkeztutako LGTB+ diagnostikoan ikusten den moduan.

Espazio berrien sorrera udal eta foru politiken koordinaziorako, LGTB+ kolektiboaren informazioa eta komunikazioa sustatzeko, LGTB+ herritarren babeserako, ikusgarritasuna eta parte-hartzea bermatzeko,... LGTB+ alorreko arduradun instituzionalen existentzia barne.

HELBURU OROKORRA

Diputazioa LGTB+ mugimenduaren eztabaida, erabaki eta beharrei erantzuteko prest egon behar da, mugimendua gertutik jarraitu eta bere lana babestu behar, dinamika tutorizatzaileak eta planteamendu patologizatzaileak baztertuz, LGTB+ pertsonak ez dute ez buruko gaixotasunik, ezta sexu harremanak izateko arazorik ere, eta izatekotan arazo horiek ez datoz LGTB+ pertsonak izateagatik. Hau dela-eta, kolektiboarentzako politiken diseinuan ezinbestekoa izango da kolektiboari berari galdetzea.

Gure desioak, gorputzak, nortasunak ez daude salgai, arreta handia jarri beharko diogu kapitalismo arrosa gure artean zabaltzen ari den dinamikei, ikusgarritasunaren aitzakipean sortzen ari den eredu homonormatiboari, guztiz baztertua eta ikuspegi interseksionalaren kontrakoa dena, ezin ditugu Pride edo antzekoak diren beste ekimenak babestu eta inolako beldurrik gabe, LGBT+ mugimendu transfemisnistarekin batera kontra agertuko gara.

Ikusgarritasuna mugimendu honen ardatz nagusienetarikoa izan da, eta bada gaur egun ere, politikak ere armairutik atera behar ditugu. LGBT+ kolektiboak espazio espezifiko bat izan behar du instituzioen egiturari eta ekimenetan. Ikusgarria den arlo espezifiko eta ikusgarritasuna aurrekontuetan ere, hau horrela izan dadin behar diren bitarteko humanoak jarriko ditugu. Arlo honetan ere ezinbestekoa izango da LGBT+ hautetsien ikusgarritasuna, erreferentzia bilakatu behar dira mugimenduan.

LGBT+ politikek ikuspegi feminista eta interseksionala izan behar dute, izan ere mugimendu honek feminismotik edaten duelako. Interseksionala gure gorputzek hainbat kategoria sozial ezberdinak zeharkatzen dituztelako: generoa, sexu orientazioa, klase soziala, arraza, kultura, etnia, jatorria,... Eta hauek guztiak zerikusia dute pairatzen dugun bazterketarekin. Bazterketa soziala pairatzen duten LGBT+ pertsonen inguruko azterketa egingo dugu, gero politika sozialen bitartez laguntza espezifikoak eman ahal izateko.

Homofobia, lesbofobia, transfobia, bifobia, sidafobia eta sexu fobia guztiak gure jendartetik kanporatu behar ditugu, horretarako lehen aipatu dugun ikusgarritasun hori formakuntzarekin hornitu behar da; eta hau guztia gutxi balitz, esfortzu eta baliabide konkrituak beharko ditugu indarkeriari aurre egiteko, eta honetan ezin dugu ahaztu intragenero indarkeria, gero eta maiztasun handiagoarekin agertzen ari den fenomeno, heteroarauaren barneraketaren ondorioa da indarkeria intrageneroa. Bultzatu ditzagun erlazio eredu sano eta alternatiboak, heteroaraua apurtu dezagun.

Trans kolektiboa bereziki izango dugu ekimenen ardatz, kolektibo hau da bereziki baztertua dagoelako. Trans pertsonak txirotasunean bizitzera kondenatuta daude, lan eremuan transexualen hiru laurdenek tratatu txarrak pairatu dituzte lanpostuan, eta lana topatzen duten lau transetatik batek lanpostua galtzen du transfobiagatik. Hau dela-eta, kolektibo hau ekonomia klandestinora behartuta dago. Ezin dugu ahaztu Europan bertan trans pertsonen bizi itxaropena 50 urtekoa dela.

Alde horretatik, bi erronka nagusi ditugu datorren legealdirako eta, horrenbestez, bi helburu nagusi markatzen ditugu 2019-2023 tarterako:

1.- LGTB+ arloa Diputazioaren egituran espreski txertatua egotea, giza eta diru baliabideekin eta modu transbersalean.

2.- Trans pertsonen bazterketa soziala eta laboralari aurre egiteko neurriak, trantsizio prozesuak laguntzeko baliabideak eta trans pertsonak kontratatzearen aldeko neurriak.

1. Ikusgarritasuna

- J LGTB+ arloa Diputazioaren egituraren baitan, Berdintasun zerbitzuaren baitan aurrekontu eta giza baliabide espezifikoak izan eta LGTB+ politikak Arabako eskualde guztietara hedatuko ditu. LGTB+ kolektibo eta norbanakoekin diseinatuko dira arlo honetako ekimenak eta egun martxan dagoen agenda babestu, bultzatu eta aberastu egingo du.
- J LGTB+ kolektiboaren egoeraren herrialde mailako diagnostikoa.
- J Sail guztietan LGTB+ pertsonak diren erreferenteak, kolektiboarentzeko erreferentziazko pertsonak izango direnak, jarriko dira, politika transbersalak bermatzeko, hots, LGTB+ arloetatik sortzen diren kezkak eta ekimenak aurrera eramateko eta euren departamentuetan txertatu ahal izateko.
- J LGTB+ kolektiboentzat diru-laguntzen ildoak abian jarriko ditugu, borroka eta aldarrikapen ekintzak gauzatu eta sexualitate eta generoaren arabera harremanen ordena soziala eraldatzeko.
- J Adinekoen egoitzetako langileei formakuntza eta sentsibilizazioa, LGTB+ pertsonak artatzeko protokoloak eskaintzeko, beraien sexu eta genero askatasuna bermatzeko.
- J LGTB+ arloari buruzko formakuntza Aldundiko zerbitzu guztietan.
- J Prentsa eta komunikazio arloetan LGTB+ formazioa eta sentsibilitatea, diskurtso eta ekimen heteronormatiboak ekiditzeko formakuntza espezifikoa.
- J LGTB+ errefuxiatuei babesa eta segurtasuna eman. Eremu honetan lan egiten duten elkarte eta proiektuak lagundu eta babestuko ditugu.
- J Sexuaren erregistro-aldaketarako eskatzen diren betebeharrak aldatzeko arau-neurriak aktibatzeko beharra aldarrikatuko dugu erakunde eskudunen aurrean.

2. Eskubideak

- J Lesbiana bikoteen seme-alaba adingabeak erregistratzeko gaur egun eskatzen diren betebeharrak kentzeko neurriak aldarrikatuko ditugu erakunde eskudunen aurrean.

-)] Sexuaren maskulinitatea edo feminitatea zalantzan jartzen duten izenak erabiltzeko debekua bertan behera uzteko neurriak aldarrikatuko ditugu erakunde eskudunen aurrean.
-)] Sexu langileen osasun-, lan- eta lege-babesa bermatu beharra aldarrikatuko dugu, haien aldarrikapenei ahotsa eta hitza emanez.
-)] Sexu edo genero nortasuna babesteko protokolo instituzionalak martxan jarriko ditugu, kargu publikoen jabe izanik, jarrera matxista, transfobiko, lesbofobiko edo homofoboak sustatzen dituzten pertsonak zigortzeko neurriak barne.
-)] Sexu orientazioagatik edo genero nortasunagatik bullyingaren aurka sentsibilizatu eta prebenitzeko programak sustatuko ditugu Gazte Foru Erakundean, Diputazioak sustatutako Eskola Kirolaren programetan eta, oro har, gazteak aritzen diren beste edozein programa edo jardueratan ere.

6. ANIZTASUN FUNTZIONALA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Instituzioetarako irisgarritasun unibertsala bermatu behar zaie herritar guztiei, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eta elkarteak sortuz. Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta betebeharren subjektuak izatea lehenetsi behar da, eta horretarako dauden oztopoak murriztu, bazterketa ekonomikoki saritu/arindu beharrean. Erakunde publikoen esku-hartzea ezinbestekoa eta urgentea da helburuok bermatzeko eta helburu horiek lortzera bideratzen diren baliabideak ondo eta zorroztasunez erabili daitezen.

Ezin dugu onartu behin-behineko salbuespena iraunkor bilakatzeko. Ildo horretan, guztiok elkarlanean jardun behar dugu gizartea eraldatzeko. Instituzioek egin behar dute aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta aukera berdintasunaren alde, diskriminaziorik eza eta bazterketarik eza oinarritzko giza eskubideak direlako, eta hala ikusarazi behar diete herritarrei. Hortaz, hori guztia legeetan ez ezik, pentsamoldeetan ere islatu behar da, eta eragina izan behar du eguneroko bizitzan eta gizarte harremanetan. Horregatik, kontzientziaziorako, errespetua sustatzeko eta aniztasun funtzionala giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartzeko mekanismoak inplementatu behar dira.

Aniztasun funtzionala duten edo desgaitasun egoeran dauden gizon-emakumeak biztanleria osoaren % 10 dira, eta euren egoera zeharkako eta sektorearteko moduan lotzen zaie administrazioaren kudeaketaren eraginpeko eremu guztiei: hezkuntza, osasuna, enplegua, garraioa, aisia, parte-hartzea, etab. Hortaz, ezinbestekoa da aniztasun funtzionalaren ikuspegia nahitaez kontuan hartzea administrazioen proiektu eta jardun guztien diseinu, kudeaketa eta ebaluazioan, ez soilik betidanik aniztasun funtzionalarekin lotuta egon diren eremuetan (“Gizarte Ongizatea” edo Osasuna).

HELBURU OROKORRA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen kontrako edozein motako aurreiritzi, estereotipo eta bereizketa desagertzea dugu helburu, egiazko aukera eta posizio berdintasuna bermatuz.

Gainera, eremu honetako talde guztiei bermatu behar zaie politiken definizioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte-hartzeko eta eragina izateko aukera. Araudiak egiteko eta politikak diseinatzeko eta garatzeko prozesu guztietan aniztasun funtzionalaren gaineko inpaktuari buruzko txostena egin behar da.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen prestakuntza eta enplegua sustatzeko helburu nagusietakoa izan behar da, ikuspegi integraleko lurralde antolamendua zein mugikortasuna diseinatzearekin batera.

BIZIMODU INDEPENDENTE BAT IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEA

Arabako instituzio publikoek, eta kasu honetan Arabako Foru Aldundiak, euren eskumenen esparruan, bizimodu autonomo bat garatzeko eskubidea bermatzeko politika, proiektu eta ekintzak bultzatzeko premia barneratu eta ulertu behar dute, desgaitasun egoeran dauden pertsonen eskubideen gaineko NBEren konbentzioan aditzera eman zutenez. Horretarako, baliabideak jartzeko konpromisoa hartu beharko dute euren gain, kolektiboko kideen artean “bizimodu independente” bat hasi nahi duten emakume eta gizonen bizi proiektuaren autodeterminazio eta autokudeaketarako eskubidea benetan garatu ahal izateko behar diren laguntza, prestazio eta zerbitzuak ematea ahalbidetuko duten baliabideak.

Babes horiek bermatzea funtsezkoa izan behar da disfuntzionalitate organikoak dituzten edo desgaitasun egoeran dauden emakume eta gizonen Giza eta Herritartasun Eskubideak zaintzeko eta ongizatea bermatzeko politiketan, ez soilik disfuntzionalitate organikoak edo aniztasun funtzionalak dituzten pertsonen premiei erantzuteaz betidanik arduratu diren sailek garatutako politiketan, baita “bizimodu independentea” izateko proiektuen garapenarekin lotutako eremuetako batean eskumenekoak diren sail eta instituzio guztiek garatutakoetan ere: etxebizitza, garraioa, enplegua, hezkuntza, kultura eta kirolak, osasuna, ongizatea, laguntza pertsonala, produktu lagungarriak, irisgarritasuna (etxebizitza, garraioa, zerbitzu publikoak).

Bizimodu Independentea izateko eskubidea baliatu eta aitortu nahi da, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikulua ezarritakoari jarraikiz (Modu independentean bizitzeko eta komunitatean biltzeko eskubidean, bizimodu independentea honela definitzen da: *“Egoera bat non desgaitasuna duen pertsonak bere existentziaren gainean erabakitzeak ahalmena betetzen duen eta bere komunitatearen bizitzan aktiboki parte hartzen duen, nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea betez”*).

Hortaz, EH Bilduk Arabako Foru Aldunditik bultzatuko du bizimodu independentea izateko eredu bat sortzea Araban aniztasun funtzionala duten herritarrentzat, gizarteratzeko benetako baldintzetan komunitatean parte hartzeko aukera eta autodeterminazioa baliatzeko eskubidea bermatzeko helburuarekin. Horretarako behar diren baliabide eta laguntza egokiak sortu eta garatuko dira.

Horrek honako hauek eskatzen ditu:

- Foru eskumenen esparruan, aniztasun funtzionala duten/desgaitasun egoeran dauden emakume eta gizonen eskura behar dituzten baliabide eta prestazioak jartzea, herritar gisa eta komunitatean parte hartzeko eskubidearen eta autodeterminaziorako eskubidearen erabateko garapena bermatzeko.
- Eskuragarritasun unibertsala, foru administrazioak zuzenean edo zeharka kudeaturik herritarren eskura jartzen diren baliabide, ondasun eta zerbitzuak baldintza berdintasunean erabili eta baliatzen direla bermatzeko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Kontzientziazio soziala

┐ Aldian-aldian eta sistematikoki, desgaitasunen gainean sentsibilizatu, kontzientziatu eta hezteko kanpainak abian jartzea, Lurralde Historikoaren eremuko biztanleria talde guztientzat.

┐ Kolektiboaren eta desgaitasun eta diskriminazio egoeren gaineko kontsiderazio morala, soziala, kontzeptuala eta terminologikoa eguneratzea: kapazitismoa eta “mikrokapazitismo” eta “makrokapazitismoak”

2.- Irisgarritasun orokorra

┐ Horrelakorik behar duten foru arauetan laguntza-txakurren figura txertatzea, desgaitasuna duten pertsonen, itsu-txakurren laguntzarekin, eraikin, lokal eta garraioetan baldintza berdintasunean sartzeko aukera izan dezaten.

┐ Zeinu hizkuntzaren interpreteen presentzia bermatzea Arabako Foru Aldundiak herritarrentzat antolatutako jardueretan, eta Arabako Foru Aldundiak babestutako jarduera jendetsuetan zeinu hizkuntza sar dadila bultzatzea.

3. Aniztasun funtzionala duten pertsonen enplegua eta prestakuntza sustatzea

┐ Erreserba kuotak handitzea, eta foru administrazioak kontratatutako enpresek benetan betetzen dituztela bermatzea.

┐ Enplegu formulak arautu eta sustatzea, lagundutako enplegua adibidez, eta jendartea sentsibilizatzea, funtzio publikoaren arduradunak, funtzionarioak eta sindikatuak barne.

┐ Teknologiak eskuratu eta erabiltzeko aukera errazteko neurriak martxan jartzea.

┐ Prestakuntzari, lan orientazioari, eskuragarri dauden baliabideei eta beste hainbati buruzko informazioa eskuratzeko aukera bermatzea.

┐ Enplegu ekintza positiboak sustatzea aukera berdintasuna bermatzeko.

┐ Enplegu publikoan diskriminaziorik eza bermatzea, kuotak ezartzea eta betetzea, lanpostuetarako egokitzapena erraztea, prestakuntzarako laguntzak ematea, eta abar.

┐ Sektore publikoaren kontratazioan klausula sozialak ezartzea, aniztasun funtzionala duten pertsonak baldintza duinetan kontratatzen dituzten enpresak lehenesteko. Jarraipena egitea eta betetzen dutela kontrolatzea.

4.- Aniztasun funtzionala duten pertsonen informazioa eskuratzeko aukera erraztea.

┐ Azpinituluak jartzea, zeinu hizkuntza eta audio deskribatzaileak biltzea Arabako Foru Aldundiak sortzen dituen ikus-entzunezko material guztietan, eta jardunbide horiek orokortzeko laguntzak ematea.

Informazio publiko osoa eskuratzeko aukera erraztea, euskarriari, edukiei zein izapideak egiteari dagokienez.

5.- Aniztasun funtzionala duten pertsonen hirigintza irisgarritasuna erraztea.

Arabako Foru Aldundiak sustatutako obra proiektu guztietan irisgarritasunari buruzko azterketa eta dagokion jarraipena egitea.

6.- Foru garraio publikoaren irisgarritasuna bermatzea.

Foru garraioko zerbitzu publiko guztiak —ibilgailuak, geltoki eta geralekuak, leihatilak eta informazio zerbitzuak— herritar guztientzat irisgarri direla bermatzea, erabilerari dagokionez diskriminazioan edo desgaitzean erori gabe edo eskuragarritasun zein kostu ekonomikoari dagokionez konparaziozko bidegabekeriarik eragin gabe.

Taxiak: Dagokion foru araudia berrikustea, indarreko araudiak bete daitezela eskatzeko, eta, batez ere, aurreko helburua betetzeko.

Hiriarteko autobusak: Foru Araudian biltzea honako eskubide hau: hirugarren pertsonaren premia edo mendetasun maila aitortua duten pertsonen laguntzaileei txartela ordaintzetik salbuesteko eskubidea.

Eskualde Garraioko ibilgailuak pertsona guztientzat irisgarriak direla bermatzea.

7.- Berdintasunezko inklusiorako politika publikoak sustatzea, betiere parte-hartzaileak eta kalitatezkoak.

Administrazioaren politika eta sail guztietan, aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna, aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, ikuspegi integratzaile eta ez-asistentzialista bati jarraikiz.

Erakundeetan zein jendartean sektoreko eragile guztien parte-hartze aktiboa sustatzea eta erraztea, kolektiboaren barruko emakume eta talde espezifikoek zailtasun bereziak kontuan hartuz.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen bizitza independenterako programak martxan jartzea, eta bizitza independenterako erreferentziazko zentroak sortzeko aukera sustatzea.

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat fiskalitatea berrikusi eta hobetzea, batez ere % 65etik gorako desgaitasun maila dutenentzat, baita aniztasun funtzionaldun pertsonak dituzten familientzat eta haien elkarte edo kolektiboentzat ere.

8.- Kirolaren, kulturaren eta aisiaren eremuetan neurriak bultzatzea.

Aisialdia programa publiko egokituak sustatzea.

Familia-aldagela irisgarriak foru titulartasuneko kiroldegietan.

⌋ Kirol egokitua maila guztietan sustatzea: eskolan, eskolatik kanpo, oinarrian, amateurretan eta profesionaletan.

⌋ Kudeaketa publikoa duten museo, arte-zentro, gizarte- edo kultura-etxe eta kirol-instalazio guztien irisgarritasuna bermatzea.

⌋ Herritarrentzako material inprimatuak irakurketa errazeko formatuan editatzea.

⌋ Euskara: Euskara ikasteko materialak formatu irisgarritan —irakurketa erraza, Braille, audioliburuak, etab.— sortzeko bultzada ematea.

⌋ Irakurketa errazean, Braillen eta audioliburuan argitaratutako materialak foru titulartasuneko kulturgune eta liburutegietara biltzea.

7. LAIKOTASUNA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Laikotasuna EH Bilduk Arabarako daukan proiektu politikoaren parte da. Hau horrela, laikotasunak kontzientzia askatasuna, eskubideen parekidetasuna eta politika publikoen unibertsaltasuna ditu oinarri. Laikotasuna ezinbestekoa da edozein gizarte demokratiko eraikitzeko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, lurralde laiko bat ezinbestekoa da giza eskubideen benetako bermea emateko, instituzio laikoek soilik bermatu baitezakete askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu, erlijioa pertsonen esparru pribatura (partikularra edo kolektiboa) mugatuz. Beraz, administrazio publikoen zeregina da pertsonen erlijioekiko duten jarrera askea errespetatzea eta bermatzea, hori edozein izanda ere, eta esparru publikoan gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

HELBURU OROKORRA

Sistema laikoa oinarri, gizarte zibilaren interes orokorrak sinestunen interes partikularren gainetik ezarri dira. Horrela, erlijio jarduna ez da gizarte osoan onura duen zerbitzu publikotzat jotzen.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Laikotasuna, kohesio sozial eta herritar guztien interesen babes gisa

- ┐ Sinbolismo erlijiosoa kendu egingo da eraikin eta izaera publikoko ekitaldi guztietatik.
- ┐ Ordezkaritza publiko gisa, ez da parte hartuko izaera erlijiosoko ekitaldietan.

2. Berdintasuna bermatzea legearen aurrean

- ┐ Neurriak aktibatzea konfesio erlijiosoei zuzenean edo zeharka bideratutako diru-laguntza publikoak desagerrarazteko.
- ┐ Diru publikoekin zaharberritutako interes kultural edo historikoko ondare erlijiosoa helburu publikoekin erabiliko da, jasotako diru-laguntza publikoaren arabera.
- ┐ Urteko erregistro publiko bat sortuko da, eliza katolikoaren esku dagoen ondare historiko-artistikoari buruzkoa.
- ┐ Eliza katolikoaren esku dagoen interes orokorreko ondarea desamortizatzeari hasiera emango zaio, onura publikoko ondare izan dadin.

┐ Eliza katolikoak jasotako zerga salbuespenak kentzea sustatuko du ogasunak.

┐ Neurriak aktibatzea 1946-2015 aldiko urteei dagozkien atzeraeraginezko immatrikulazioak kentzeko, eta hori ez errepikatzeko bitartekoak ezartzea.

┐ Elizaren barruan sexu indarkeriaren edo pederastiaren biktima izan diren pertsonen laguntzeko bitartekoak ezarriko dira.

8. EKONOMIA JARDUERA

a. INDUSTRIA

DIAGNOSTIKOA

Industria izan da Gasteiz eta Arabako Lurralde Historikoa garatzeko eragile nagusia. Arabako industriak gehiago ematen dio probintziako BPGari Euskal Herriko gainerako lurraldeetako industriak euren probintziari baino, orain artean nagusi izan den joeraren ildo beretik. Alabaina, 2008. urteaz geroztik krisialdiak gogor kolpatu zuen Arabako industria sektorea. Garatutako beste lurralde batzuetan, aldiz, finantza sektorea izan zen kaltetuena. 2008an 50.800 pertsonak ziharduten industrian, eta 2013rako 34.000 pasatxok soilik. 2017rako susperraldi arin bat nabari zen nolanahi ere, 39.500 pertsona zenbatu baitziren, Arabako enpleguaren % 29, hain zuzen.

Azken datuek itxaropenerako atea irekitzen badute ere, ezin dezakegu ahaztu Arabako industriak, Arabako industria ereduak zehazkiago, lotura estua duela erregai fosilekin, automobilgintzarekin eta tutugintzako zerbitzuekin, eta energia politiken aldaketak eragin handia izango duela industria horietan.

Nolanahi ere, Arabako industria ereduak baditu beste alde ilun batzuk ere:

- Amildegi bat dago Arabako industriaren benetako egoeraren eta 4.0 industriaren diskurtsoaren artean. Azken hori Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak igorritako ke-lainoa baino ez da, mezuak zehaztugabeak direlako eta industria errealitate horretatik 4.0 industria horretarako trantsizioaren mapa falta delako.
- Industria desoreka Arabako lurraldeko Kuadrillen artean. Industriak A-1 autobidearen ardatzean eta N-240 errepidean kontzentratzen dira bereziki, eta beste industriagune batzuk ere badaude, lurralde historikotik kanpoko hirietatik gertu (Oion eta Guardia, Lantaron, Aiaraldea)
- Egungo instituzioek apustu argi bat egin dute enpresa logistikoak ezartzearen alde, eta enpresa horiek oso lanpostu gutxi sortzen dituzte, lur eremu handiak hartzen badituzte ere. Eta garapen logistiko hori nekazaritza lurrei kalte eginez eraman nahi dute aurrera.
- ETEen finantzaketa eredu banku eredu bat da, enpresa horietarako inbertsio funtsik ez dago. Krisi urte horiek biziraupen urteak izan dira.
- Lurzoru politiken gaineko udal eta foru estrategiarik ez dago, eta laguntza eta diru-laguntzen programak eskasak dira. Araba Garapen Agentziak higiezin agentzia baten antzera dihardu.

- Arabako industria-ereduak ez dauka loturarik lurraldeko prestakuntza egiturekin. Arabako I+G+b-ko unibertsitateen protagonismoa (% 13,2) askoz ere txikiagoa da Euskal Herriko batezbestekoa (% 18,4) baino.
- Enpresa handien lan baldintzetan, entxufismo politikak, iruzurrezko kontratazioak eta generoaren araberako diskriminazioak dira nagusi, besteak beste.

NEURRIAK

Gure helburu nagusia da Industria Politika efiziente bat abian jartzea, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordio batetik abiatuta, teknologikoki aurreratua eta produktiboki dibertsifikatua izango den industria sare bat sortu ahal izateko, justizia sozialean eta erantzukizun fiskalean oinarrituta, ingurumenarentzat jasangarria eta Arabako Lurralde Historikoan orekatua, toki garapeneko eredua oinarritzat hartuta.

- Dibertsifikazioaren eta produktu propioa duten ETEak sortzearen alde egitea, enpresa traktore handien enpresa laguntzaileen ereduari aurre eginez.
- Arabako enpresen automatizazioa bultzatzea, 2.0aren arrakala teknologikoa apurtzea, enpresa gehienentzat eskuraezina dela aintzat hartuta. Teknologia aurreratua sartzea, kudeaketa eta gobernantza modu berriekin batera
- *Adimen Lehiakorreko Komunitate Zerbitzua*: Gasteizen eta Aiaraldean enpresen arteko lankidetzaproiektuak ezartzea.
- Industrialde berrien sorrera geldiaraztea, eta lehendik urbanizatuta dauden lurren okupazioa sustatzea. Erriberagoitian desklasifikatuko dira Ortuna industrialderako diren nekazaritza lurak.
- Ikastetxeak, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak Arabako industria sarean integratzea.
- EHUrekin elkarlanean jardutea Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitatea Eskolari Parke Teknologikoko *Marie Curie* eraikinaren eta Haizearen Tunelaren kudeaketa lagatzeko.
- Arabako ikastetxeen ekimenak bultzatzea euren ikasketa planetan Lanbide Heziketa Duala ezartzeko, eskualdeko edo Kuadrillako garapen ekonomikoari loturik.
- Arabako industria automobilgintza eta tutugintzaren mendekoa dela eta sektore horiek errega fosilei lotuta daudela ikusirik, Mahai Sozioekonomiko bat sortzea proposatzen dugu, non Arabako eta EAEko instituzio nagusiek ez ezik, enpresa, sindikatu eta unibertsitateek ere parte hartuko duten. Mahai horrek industria trantsizio ordenatu bat garatuko du, dibertsifikazioan eta jasangarritasunean oinarritutako eredu bat bilatuz.
- Ereduko kooperatibistan oinarritutako eredu sozialaren alde egitea. Publiko-pribatua dikotomiaren aurrean, denontzako eredua bultzatzea, enpresetan langileak aldi berean akziodunak izan daitezela, eta erabakiak hartzeko organoetan parte har dezatela bultzatuz.
- Araba Garapen Agentzia berrantolatzea, Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia garatzeko agentzia bihurtuz, Trebiñu barne, Arabako Landa Garapeneko Elkarteekin eta Kuadrilletako

teknikariekin koordinatuta. Araba Garapen Agentziaren barruan, krisian dauden enpresei laguntzeko eta berrindustrializazioa sustatzeko bulego bat sortzea.

- *Ventures Social Proiektua* ezartzea, ekintzailletza indartzeko eta hartan sakontzeko. Ekintzailletza prozesua kudeatzea ikuspegi integratu, efiziente eta ireki batetik, eta gizartean eragiteko asmoarekin. Aholkularitza bulego publiko bat sortzea, ekintzailletza eredu hori errazteko.
- Diru-laguntzen politika: Arabako Foru Aldundiak enpresei ematen diena gizarteari itzultzea; deslokalizazioa izanez gero, diru-laguntza itzultzea; diru-laguntza edo onura fiskalen bat jasotzen duten enpresetan langileen lan baldintzak gehiago kontrolatzea.
- Enpresa finantzatzeko Institutuzioarteko Funts bat sortzea. Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin elkarlanean, Euskal Banku Publiko baten sorrera koordinatzea.
- Arabako industria arkeologia balioan jartzeko plana inplementatzea.

b. HEGARABA

EH Bildu Arabak bultzatzen duen Hegaraba proiektuaren helburua da Forondako Aireportua eta Miñaoko Teknologia Parkea biziberritzea, beste filosofia batetik abiatuta: egungo azpiegiturak aprobetxatzea, beharrezkoa ez den lur berrien okupazioa baztertuz eta jarduera berrien bidez horren gutxi erabiltzen den Teknologia Parkea indartuz, eta prestakuntza eta berrikuntza gune bat sortzea elkarlanean EHU, LHko ikastegi eta tokiko enpresekin.

EH Bildu eta PNVren arteko 2016ko eta 2017ko aurrekontu akordioen ondorioz, 100.000€-ko diru-partida bat gorde zen 2016ko aurrekontu akordioan, aholku-enpresa independente batek 2017an eginiko azterlan batean erabiliko zena.

Azterlan horren arabera, Hegarabaren Misioa bikoitza da:

)] Arabako enpresen erronkak eta beharrak zehaztea Europak eta munduak 4.0 Industriaren alde egin duten apustuari dagokionez.

)] Ekintza estrategikoak proposatzea erronka eta behar horiei erantzuteko eta Arabako enpresen posizionamendua hobetzeko.

Hegarabaren Bisioak 4 ardatz nagusi ditu:

)] Irakaskuntza, ikerketa, fabrikazio eta logistikari lotutako eragile publiko eta pribatu guztien arteko koordinazio eta adostasun tresna bihurtzea.

)] Erreferentzia esparru bihurtzea bete beharreko helburuei eta garatu beharreko jarduerari dagokienez.

)**Gobernantza aurreratu** bat artikulatzea, eragile guztiak kontuan izango dituen, ekintzak formulatu, eginiko urratsak ebaluatu eta ahaleginak egokitzeko.

)Araba erreferente bihurtzea, garapen sozioekonomikoko **estrategia eraginkor** bat garatzeko gai izango dena, **egokitua haren behar eta ezaugarrietara**.

Azkenik, Hegarabaren helburu estrategikoak dira:

1. Egungo azpiegituren eta ahalmenen potentziala aprobetxatzea eta indartzea.
2. Gure ETEen eta mikroETEen ahalmenenak hobetzea.
3. Proiektu estrategikoak eta traktoreak garatzea RIS3 alorretan.
4. Arabako enpresa sarearen 4.0 Industriadun trantsizioa bizkortzea.
5. Eragileak eta baliabideak mobilizatzeko eta hainbat jardura eragiteko modua emango duten gobernantza-egiturak eta tresna egokiak sortzea.

Proposamen zehatzak egin aurretik, datu batzuk eman nahi ditugu gure proposamena bere testuinguruan kokatzeko:

Araba Hego Euskal Herriko lurralde industrialena da (% 33 Araban, % 24 Hego Euskal Herrian). Manufaktura industria estrategikoa da Araban, Balio Erantsi Gordinean (% 23), enpleguan (% 22) eta esportazioetan (% 26). Oso ekonomia internazionalizatua dugu, eta EAEko esportazioen % 31 gara. Gainera, hainbat multinazionalen pisu handia dute gure industrian, eta horrek alde onak eta txarrak ditu: alde batetik, enplegu tasa handia, inbertsio handia berrikuntzan eta batez bestekoaren gainetik dauden lan baldintzak; bestetik, erabakiguneak Arabatik kanpo daude eta I+G jardura txikia sortzen dute, matrizearen mende beti, eta deslokalizazioaren etengabeko xantaia, "*lan gatazka handiarengatik*". Gure industria sarean, pisu handia dute Automozio Klusterrak, Kluster Aeroespazialak eta Bioteknologia Klusterrak, eta baditugu ere gune sektorial garrantzitsuak: beira, produktu tubularrak, logistika...

Logistikari dagokionez, begi-bistakoa eta ukaezina da Arabak gune logistiko-industrial gisa duen erakarmen indarra: kokapen geografikoa ardatz mediterraneoaren eta atlantikoaren artean, hainbat tipologiatako industria lurzoruaren eskaintza (9.233.285m²) eta azpiegitura (inter)modal garrantzitsuak (AP1 eta AP68, Foronda, AraSur eta Krispiñako Salgaien Intermodalak). Begi-bistakoa da ere logistikak sortzen dituen bi mailatako arazoak: lur okupazio handia eta lanpostu gutxi sortzea, ahaztu gabe garraio modu batzuen aztarna ekologiko ikaragarria, erregai fosilen mende daudenena bereziki.

I+G alorrari dagokionez, paradoxikoki, Arabako I+G/BPGd gastua % 1,47koa izan zen 2015ean; EAEEn, % 1,84koa. Gainera, Araban, berrikuntzan eginiko gastua "*inbertsio bidezko berrikuntza*" da neurri handi batean (% 45 Araban, % 18 EAEEn), eta unibertsitateen protagonismoa Arabako I+G alorrean EAEko batez bestekoaren azpitik dago ere bai (% 13,2 vs % 18,4).

Miñaoko Teknologia Parkeari dagokionez, erakarmen handiko enpresa ingurune berritzaile bat da. Azpiegitura estrategiko gehienak parke horretan daude (Zibersegurtasun Zentroa, CIC Energigune, Pharmalab 4.0), eta aprobetxatu egin behar da haien bultzada, bai prestakuntzan, bai enpresa sarea dinamizatzeko. Alde horretatik, EH Bildurentzat funtsezkoa da sakontzea Miñaoren eginkizun teknologikoan eta zientifikoan, eta horrek elkarlan handiago bat behar du parkean kokatutako enpresen eta azpiegitura estrategikoen eta Arabako ikastegien artean (unibertsitate ikastegiak eta LHkoak). Miñao maila goreneko parke teknologiko bat izan behar da.

Hala ere, baditu arazoak: parkearen okupazioa eskasa da (nolanahi ere, enpresa berriak erakartzeko aukera ematen du horrek, eta pisuzko arrazoi bat da oraingoz lurzoru gehiago ez okupatzeko, jada urbanizatuta dagoena okupatu arte), Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa txikiagoa da EAEko beste teknologia parkeetako inbertsioa baino, parkearen patronatuak ezgai izaten jarraitzen du irtenbide errealista eta praktiko bat emateko Epsilon proiektu alferrikakoak utzitako zuloari eta Haizearen Tunelaren egoerari (EH Bilduk apustu egiten du hitzarmen bat egiteko EHurekin, haren erabilera Gasteizko Ingeniaritza Eskolaren esku uzteko, industria arloko neurrien atalean azaltzen den moduan), eta bai Gasteizen, bai Araba osoan urrun dagoen –ez fisikoki bakarrik– eta ezezaguna den gune gisa ikusten da Miñaoko Teknologia Parkea (bertara heltzeko garraio publikoaren mugek larriagotu egiten dute irudipen hori).

Azkenik, Forondako Aireportuari dagokionez, EH Bilduren analisia eta proposamen zehatzak Herri Programa honen hurrengo atalean daude. Hemen azaltzen dugun proposamen zehatza, beraz, Forondari eskainitako ataleko 3. eta 6. neurrietan aipatzen diren gaien garapen zabalago bat da.

FORONDAREN INDUSTRIA-GARAPENA – FORONDA, AIREPORTU FARMAZEUTIKOA

Proposamena bere testuinguruan kokatzeko, gogoan izan behar dugu hiru direla EAEko RIS3 Estrategiaren lehentasunak: Energia, Biozientzia eta Fabrikazio Aurreratua. Arabak hiru esparruetan aitzindari diren enpresak baditu ere, kokapen bereziki ona dugu Biozientzien eta Osasunaren alorrean, beste herrialdeei dagokionez. Izan ere, sektore honetako Arabako enpresek jadanik badituzte industria produktuak (ez bakarrik laborategikoak), eta balio katearen zenbait segmentu barne hartzen dituzte: agente zientifiko-teknologikoak (I+G eta saiakuntza), fabrikazioa eta hornitzaileak.

Horrenbestez, PNVren ereduaren aurrean (aireportua helburu logistikoa ia hutsez erabiltzea), gure proposamena da azpiegitura horri loturiko gune industrial-bioteknologiko bat sortzea. Planteamendu horrek bi lehentasun ditu: ezagutza sortzeko ahalmena indartzea eta aireportuaren erakargarritasuna handitzea, kontuan izanik aire garraioak sektore bioteknologikoan duen garrantzia, tenperatura kontrola

behar duten produktuen kasuan bereziki. Helburua litzateke gune logistiko bat sortzea aireportu ondoan, hotz katea funtsezkoa duten sektoreko enpresentzat. Hala ere, kontrolpean garatu beharko litzateke industrialde hori: gaintazioak saihestea eta horrelako gune bati dagokiona soilik instalatzea. Aireportu ondoan egotea behar-beharrezkoa ez duten enpresentzat, badago nahikoa industria-lurzoru hurbil, bereziki interesgarria osagai logistiko garrantzitsua duten ekoizpen prozesuetarako (hotz katea behar duten produktu farmazeutikoak), bai Miñaon (ikerketa eta saiakuntza barne hartzen dituzten prozesuei lotuago), bai Jundizen (jarduera nagusia ekoizpen hutsa duten kasuetarako). Gainera, industrialdeak enpresa bioteknologiko berriak erakarriko lituzke Miñaora, elkarrekintzan Pharmalab 4.0 eta EHuko Farmazia Fakultatearekin.

Alde horretatik, Forondak ezaugarri onenak ditu era horretako industria jarduera garatzeko, lehiatzeko ezinbestekoa baitu 24-48h konektagarritasun globala eskaintzen duen aireportu baten ondoan egotea (hots, produktua 48 orduko gehieneko epean iristea bere helmugara). Gainera, proiektuarentzat mesedegarria da zama garraio lasterreko hiru konpainia handiak hor egotea, 24-48h konektagarritasuna bermatzen dutelako. Jakina, ezinbestekoa da horretarako Forondak H24 lizentzia berreskuratzea eta Muga Ikuskaritza Postua edukitzea.

Egitasmo honek euskal erakundeek elkarlana behar du, eta bereziki parte hartu beharko lukete VIAk eta EHuko Farmazia Fakultateak. I+G arloan, beste bi helburu nagusi ditu proiektuak:

Σ Pharmalab 4.0ren eragina maximizatzea

EH Bilduk uste du proiektu hau oinarritzkoa dela Arabako gune Bioteknologikoa sendotzeko, hiru ardatz garatuta aldi berean: Ikerketa + Saiakuntza klinikoak + Fabrikazioa. Lehenengo biek lotura zuzena dute BERC programarekin eta Farmazia Fakultatearekin. Hirugarren ardatza (fabrikazioa) berrelikatu egiten da “Aireportu Farmazeutikoa” egitasmoarekin.

Σ Terapia aurreratuen BERC

Proposatzen dugu Terapia aurreratuen BERC zentroa (Basque Excellence Research Centre–Bikaintasunezko Ikerketa Euskal Zentroa) berehala martxan jartzea. Zentzurik gabeko probintzialismoetan erori gabe, gogoratu behar dugu gaur-gaurkoz Arabak ez duela BERC zentrorik (Bizkaiak, aldiz, hiru ditu eta Gipuzkoak bat), eta ezinbestekoak direla Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa eta ekarpen ekonomikoa zentroa abian jartzeko. Ikerketa azpiegitura berriak indartu egin behar du gaur egun dugunaren balioa, ikusgarritasun handiagoa emateko eta baliabide gehiago lortzeko, eta ezinbestekoa du ere Farmazia Fakultatearen, Pharmalab 4.0ren eta enpresa sarearen parte-hartzea. Terapia aurreratuen BERC zentroaren barnean, 3D Bioinprimaketa adar bat ere ezar liteke.

Azkenik, Foronda atalean mugikortasunari buruz adierazten den moduan, uste dugu industrialde berria beste funtsezko elementu bat izan daitekeela Forondaren intermodalitatea hobetzeko, bi neurri berritzaileen bidez: gaur egungo Krispiñako geltoki intermodalaren trenbidea luzatzea Forondako pistetaraino, eta Forondara heltzen den N-624 errepidearen bide bikoitza luzatzea Krispiñaraino, A-1 autobidearekin bat egiteko. Aldiz, Jundizen geltoki intermodal berri bat eraikitzearen aurka gaude, beharrezkoa ez delako, eta uste dugu nahikoa eta aski dela geltokia handitzea egungo eremuan, nekazaritza lur gehiago okupatu gabe.

c. FORONDA

DIAGNOSTIKOA

Denok dakigu Forondako aireportuak aukera apartak dituela, inguruko aireportuekin alderatuta, bai pisten tamainagatik, bai ingurumen baldintza hobeengatik.

Hala ere, Estatuko gobernuak inoiz ez dira saiatu Forondako aireportuaren aukera horiek garatzen, eta beste aireportu batzuen alde egin dute. Hala, 2012an, Mariano Raxoiren gobernuak H24 lizentzia kendu zion Forondari eta H12rekin geratu zen; urtebete geroago, Muga Ikuskaritza Postua ere kendu zuten. Espainiako gobernuaren apustua argia zen: Forondako aireportua baztertzea eta Zaragozako indartzea zama garraiorako aireportu gisa, PPren hauteskunde arrazoi hutsengatik, krisi garaian gastuak murrizteko beharra erabili bazuen ere zuribidetzat.

2018an, Muga Ikuskaritza Postua berriro ezarri eta H24 lizentzia berreskuratzeaz zegoela iragarri zen. Hala ere, H24 ez da berreskuratu azken hauteskunde zikloaren bezperak arte.

Hala eta guztiz ere, AENak 2019ko lehen hiruhilekorako emandako datuen arabera, murriztu egin da zama bolumena 2018ko epe berari dagokionez, eta aurreikuspenak ez dira oso itxaropentsuak, eta ez da hobekuntza zeinurik sumatzen. Eta hori guztia nahiz-eta PNVk Forondako aireportua inguruan legokeen poligono logistikoko bati lotzeko apustua egin duen.

Epe berean, behera egin du ere bidaiarien kopuruak, hegaldi erregularren eskaintza txikiagoarengatik eta bidaiarien hegaldiak (erregularrak eta charter hegaldiak) VIA sozietatearen diru-laguntza publikoekiko duten erabateko mendeotasunagatik.

NEURRIAK

- EH Bilduk uste du eztabaida bat zabaldu behar dela euskal aireportuei buruz eta planteamendu zehatzak egin behar direla herri ikuspegi batetik, aireportu sarea osoki antolatuz eta aireportuen

arteko bateragarritasuna bilatuz. EAErako gure proposamena hiru terminal izango dituen aireportu bat da: Loiu, Foronda eta Hondarribia.

- Blindatu egin nahi dugu 24 orduko zerbitzua, eta horretarako beharrezkoa da aireportuen eskumena transferitzea Eusko Jaurlaritzari.
- PNVren ereduaren aurrean (aireportua helburu logistiko ia hutsez erabiltzea), gure proposamena da aireportuari loturiko gunen industrial-bioteknologiko bat sortzea.
- Gardentasuna bermatuko dugu Forondako aireportua indarberritzeko ekintza guztietan.
- Aireportuaren garapenak ez du arriskuan jarriko ingurumenaren babesa, ezta inguruko herrietan bizi diren pertsonen bizimodua ere. Zaila ibaian dike bat eraikitzea baztertzen dugu.
- Forondako intermodalitatea hobetzea proposatzen dugu, Jundizko salgaien geltoki intermodalaren trenbidea aireporturaino luzatuz, eta N-624 errepidearen bide bikoitza Krispiñaraino luzatzea, A-1 autobidearekin bat egiteko.

d. MERKATARITZA

DIAGNOSTIKOA

Tokiko merkataritzak egoera zaila bizi du gaur egun, eta bidegurutze batean dago. Azken hamarkadan azken 50 urteotan baino gehiago aldatu da merkataritza ereduak. 2007an krisia lehertu zenetik, bi gauza gertatu dira: barne kontsumoak oso jaitsiera handia izan du, eta aldaketa handia gertatu da herritarren kontsumitzeko ohituretan (ezaugarri berdinak dituzten kaleak, denda berberak munduko hiri guztietan, betiko dendak desagertzea...).

Kontsumitzeko ohituretan gertatutako aldaketa bi alderditan geratu da agerian nagusiki: lehena, etxeko ekonomiak okerragotzearen ondorioz gertatu dena, prezio baxuetan erosteko aukerari lotuta dago; horrek, alde batetik, pobretu egiten du Euskal Herriko produkzio sarea; bestetik, *“lowcost”* moduko merkataritza formatuak nagusitzen dira. Formatu horiek enpresa handiei eta, beraz, kapital handiari lotuta daude. Merkataritza formatu horien eraginez, globalizazioak aurrera egiten du, kontsumitzaile guztiek gauza berak kontsumitzen dituzte, eta gutxi batzuek merkaturatzen dituzte produktu guztiak. Adibide grafiko gisa, janari lasterra eta merkea aipa daiteke; janari mota horrek gustuak bateratzen ditu maila globalean, era horretan jende guztiak gauza bera kontsumi dezan. Gutxi batzuek saltzen digute dena, kalitate handiagoa duten establezimendu tradizionalen kalterako. Arroparekin ere antzeko adibideak aurkituko ditugu.

Bigarren alderdia teknologia berrien bitartez sartu den merkatu globala da. Internet bidezko merkatua ez da pertsona gehienek aukera, baina gorantz egiten ari da, eta gure bertako saltokientzat zaila da hor sartzea. Izan ere, merkatu globala da, eta oso eragin handia duite prezioek eta irudi globalak. Zenbait iturriren arabera, gorantz doan merkatu horren atzipen ekonomikoa guztizkoaren % 20a iristen da.

Gainera, merkatu global horrek lan baldintzak prekarizatzen ditu, eta enplegua suntsitzen du. Prezio baxuak eskaintzen dituzten establezimendu handiak ezartzeko joera dela-eta, langile gutxiago behar dira, eta tratu pertsonalik ezak desagerrarazi egiten ditu langile kontratudun kualifikatuak. Hori gutxi balitz bezala, ordutegiak luzatzeko eta jaiegunetan irekitzeko aukeraren ondorioz, bideraezina da bertako merkataritzari eta merkataritza tradizionalari lotutako formatuen iraupena. Aldi berean, administrazio publikoak ere pobretu egiten dira, PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren bidez jasotako diru-sarrerak txikiagoak baitira (inork ez daki zerga horiek non eta nola ordaintzen diren).

Globalizazioak merkataritzan duen beste ondorio kaltegarri bat Euskal Herriko produkzio sarearen suntsipena da. Izan ere, kontsumoa esku gutxi batzuetan biltzen da. eta produkzio ahalmen horrekin, mundu global batean, produkzioa munduko edozein lekutara eramaten da, eta eskaintzarik onena egiten duenak lortzen du. Gainera, enpresa handiek ezartzen dituzten lan baldintzak direla-eta, horrek guztiak eragotzi egiten du garapen bidean dauden herrialdeen hazkundea.

Azken batean, merkataritzaren globalizazioak bertako saltokiak pobretu, lan baldintzak okerragotu, enplegua suntsitu eta produkzio sarea eta administrazio publikoak pobretzen ditu. Hortaz, ekonomiarentzat kaltegarriak diren ondorio horiek saihesteko neurriak hartuko ditu EH Bilduk.

Bertako merkataritza bere onera etortzeko plan bat proposatuko du EH Bilduk, eta, horretarako, funtsezkoa da lehiakortasun handiagoa lortzea. Hori dela-eta, bertako merkataritzarako plan estrategiko bat egingo da sektoreko agenteekin; hots, saltokiekin, sindikatuekin, kontsumitzaileekin eta produkzio-sarearekin.

NEURRIAK

- Erakundeen erosketetan gizartearekin arduratsua den kontratazioari lotutako klausulak sartzea, eta bolumen ekonomiko bat iraunkortasunari eta bertako merkataritzaren babesari lotutako irizpideekin erostera bideratzea.

- Bertako merkataritzaren komunikazio planetarako babes ekonomikoa.

- Hurbileko eta bertako merkataritzaren aldeko apustua. Bultzada Arabako landa eremuko merkataritzari.

- Inbertsiorako zuzeneko laguntzen plana; ildo horretan, sektorea 5 urteko epean birmoldatzeko behar adinako aurrekontu-partida bat emango da. Aintzat hartzea langileen eskubideen errespetua edozein laguntza emateko orduan.

- Banku erakunde publikoekin plan estrategikoaren finantzaketa nahikoa –eta baldintza onetan– hitzartzea. Hazi-kapitaleko organismo bat sortzea.

- Bultzada erakundeetatik euskara merkataritzan erabiltzeari: aholkuak ematea, oinarrizko nozioak, komunikazio tresnak.

e. TURISMOA

DIAGNOSTIKOA

EH Bilduk turismoaren aldeko apustua egin nahi du, ekonomiaren atal garrantzitsua den heinean. Dena dela, ohiko turismo eskaintzaren ordeztu, beste oinarri batzuk izango dituen turismo desberdin bat bultzatu nahi dugu. Araban batez ere, oinarri desberdin batzuk kontuan hartzeaz gainera, Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko sinergiak sortu behar dira.

EH Bilduk bultzatu nahi duen turismoaren oinarriak honako hauek dira:

1 Arabako turismo politiketik aintzat hartu behar dute gure kultur ondarea; beraz, eskaintza askotarikoa eta orekatua izango da gainerako euskal lurraldeekin.

2 Gure antzinako historiaren eta gure egungo eskaintzaren arteko uztardura bilatzea.

3 Gastronomia eta ardoaren kultura bultzatzea, gure kulturaren parte baitira.

4 Zalentzarik gabe, gure baliabide naturalak eta gure nekazaritza eremuak errespetatzea.

5 Tokiko garapena eta errealitate soziala eta naturala kontuan hartzea, errespetatzea eta haren zerbitzura jartzea (ez alderantziz).

Gure helburua, beraz, ingurumenarekin, gizartearekin eta gure Herriarekin arduratsua izango den turismo bat sustatzea da. Turismoa, gainera, sorkuntza ekonomikoko jardura izan behar da. EH Bilduk bultzatzen duen turismo ereduaren helburua Arabako herriak, bazterrak eta herritarrek ezagutzeko aukera sustatzea da. Turismo merkantilistaren ordeztu, udalerrietan eta bertako biztanleengan oinarritutako turismo eredu jasangarria eta soziala bultzatu nahi dugu. Ildo horretan, balioa eman behar diegu Euskal Herriko kultur ondareari eta ingurumen bikintasunari.

Turismoa udalerritik eta eskualdeetako jardura ekonomikoa bultzatzeko ezinbesteko tresna izateaz gainera, aukera paregabea eskaintzen du euskal identitatea atzerrian ezagutarazteko. Gainera, beste herrialde batzuetako jendearekin elkartasunerako guneak sortzeko baliabidea ere bada.

Turismoa deslokalizatu ezin diren sektoreetako bat da, eta lanpostuak eta jardura ekonomikoa sortu behar ditu. Gure turismo eskaria ezin da beste inora joan. Eskaintza erakargarria sortu behar dugu, eta, gainera, gogoan izan behar dugu baliabide horrek mugak dituela eta zuhurtziaz ustiatu behar dugula. Gaur egun, baliabide horrek hazteko aukera handiak ditu oraindik, eta oso gauza ona da hori. Indar hori baliatu behar dugu turismo jasangarri, zuhur, zentzuzko eta jarraitu baten alde egiteko. Turismoa etorkizun errealitatea da herrietan bizi eta lan egiten dutenentzat.

Barne turismoa bultzatzea ere garrantzitsua delakoan gaude. Gure ustez, oraindik ere aukera aproposa dugu gure lurraldea ezagutzera emango duten eskaintzak egiteko, eta barne turismoa oso baliagarria izan daiteke gure ekonomiarentzat. Gure errealitatea askotarikoa da geografiari, hiri/herri bereizketari eta kultura tradizionalaren eta modernoaren arteko dinamismoari dagokienez. Hori dela-eta,

garatu beharreko turismo eskaintzak aukera ugari eskainiko ditu Araban turismo bereizgarri bat garatzeko eta Euskal Herriaren berezko nortasuna gure mugetatik kanpo sendotzeko.

Kontuan izan behar dugu Euskal Herrira iristen den turista oro gure errealitatearen bozeramaile izango dela. Turismoak, aberastasun ekonomikoa erakartzeaz gain, gure aberastasun soziokulturala mundu osoan zabaltzeko aukera ematen du.

Gainera, balio handiagoa eman behar diegu lurraldeko potentzialtasun guztiei. Ildo horretan, Santa Maria katedrala, Gatz Harana eta Arabako Errioxa ez ezik, Arabako udalerrietako Erdi Aroko hiriguneen bikaintasuna, gure landa joritasuna, gure ingurune natural osoa, gure kultura gastronomikoa eta ardoaren eta txakolinaren kultura, eta gainerako euskal lurraldeekiko sinergiak ere azpimarratu behar ditugu.

NEURRIAK

- Naturari eta bizi estilo osasungarriari lotutako turismo eskaintza sustatzea, Arabak ingurune natural aparteko bat duelako, nazioartean aitortua, eta dagokion balioa eman behar zaio osasunaren eta kirolaren arteko loturari (kirol ez-profesionala, kasu honetan). Zenbait ingurune natural (hala nola Gorbeialdea, Gaubea, Errioxa, Mendialdea eta Arabako iparraldeko inguruneari) balio handiagoa eman behar zaie ingurumena errespetatuko duen turismoari begira. Hurbileko turismo eskaintza, iraupen laburrekoa, Euskal Herriko beste eskaintza batzuekin konbinatuta.
- Apustu egiten dugu turismo eredu deszentralizatu baten alde, gure Lurralde Historikoa bere osotasunean ezagutarazteko, ohiko leku turistikoez gainera.
- Beste ostalaritza eredu bat indartzea, ingurumena errespetatuko duena (hala nola landa-etxeak), landa eremua dinamizatzeko eta biztanleria finkatzeko ere balioko duena.
- Aldundiak apustu egingo du eragile guztien artean koordinatutako eskaintza turistiko baten alde, toki garapeneko planen bitartez. Gainera, Aldundiak Jasangarritasun eta Kultura arloetan ezartzen dituen politika turistikoak koherenteak izan behar dira. Toki garapeneko planei laguntza ekonomikoa emateko planen barnean, Aldundiak lerro berezi bat izango du plan horietatik sortzen diren proiektuak babesteko.
- Gainera, sinergia positiboak bilatu eta beste euskal lurraldeekiko lehia saihesteko, Aldundiak hitzarmenak egingo ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta Gasteizko Udalarekin, baliabide ekonomikoak maximizatu eta optimizatzeko eta eskaintza osoari koherentzia emateko.
- Turismo aktiboa sustatuko da, jasangarria ingurumenari dagokionez. Arabak eremu naturalen eskaintza garrantzitsu bat du: parke naturalen sarea, Gasteizko eraztun berdea, aisia- eta jolas-parkeak... Horregatik, turismo aktiboko eskaintza bat egin behar da, lotura izango duena gure parke naturalekin, gure ingurune naturalekin eta aire zabaleko kirol jarduerekin (running,, mendi-ibilaldiak, mendiko lasterketak, BTT, jarduera nautikoak...).
- Arabako ondare historikoan eta arkeologian oinarritutako eskaintza turistiko bat egitea.

- Halaber, ondare industria eta meatzaritza ondarearen erabilera turistiko iraunkorrerako planak egingo dira: Atauri eta Lozako asfalto meatokiak, Pauleko igeltsu meatokiak, Araiako Ajuria fabrika...
- Kultura turismoa eta ardoaren turismoa kontuan hartu beharreko turismo nitxoak dira, eta EH Bilduk eskaintza espezifiko eta zehatza egingo du horren inguruan. Turismo hori merkaturatzeko, lankidetzak akordioak egingo dira Arabako Errioxarekin eta Aiaraldearekin, elkarlanean aritzeko. Gainera, ardoaren munduari lotutako ondare arkitektoniko-kulturalaren katalogo bat egingo da, eskaintza osatzeko tresna gisa. Hori guztia eskualde horietako eragileekin koordinatuta.
- Helburuetako bat izango da ardoaren munduari lotutako turismo-eskaintza deszentralizatzea (gaur egun ia guztiz kontzentratuta Guardian eta Eltzegon) eta Arabako Errioxako beste udalerrietara zabaltzea.

f. ENPLEGUA

DIAGNOSTIKOA

Azken lau urteetan, nabarmen murriztu da Arabako langabezia tasa, eta 2014ko azken hiruhilekoko % 16,2ko tasatik eta 26.000 langabetatik 2018ko azken hiruhilekoko % 10,8ko tasara eta 17.300 langabetara igaro gara. Hala eta guztiz ere, horrek ez ditu hobetu lan baldintzak. Aldi baterako kontratazioa izugarri igo da azken urteotan. Adibidez, Araban sinatutako kontratuen % 93,15 izan ziren 2017an, erdiak hilabetetik beherako iraupenekoak.

Gobernuek diote krisia amaitu dela, datu makroekonomikoek horixe adierazten dutela, baina, egiazki, milaka eta milaka pertsonaren egoera bestelakoa da. Gutxi batzuk aberasten ari diren bitartean, pobrezia handitzen ari da.

Alde horretatik, Araban egoera larria bizi dugu oraindik, eta aurreko urteetako neurri berean ez bada ere, enpresa-itxierek jarraitzen dute edota enplegu erregulazioko espedienteak aplikatzen dira: CEL, Tubos Reunidos, Tubacex Artziniega, Bosch, Aldanondo, STS Tubos de Dulantzi, besteak beste. Egoera horrek zio batzuk ditu, eta ezinbestekoa da horiek aztertzea irtenbide bat aurkitzeko. Krisiari aurre egiteko egin diren lan erreformek eta hartutako neurriek enplegu galera ikaragarria ekarri dute.

Aldaketa sakonak egin behar dira, eta politika eraginkorrak abiarazi, eta ezinbestekoa da horretarako aintzat hartzea, besteak beste, irizpide hauek:

Hasteko, enpleguaz hitz egitean, bere osotasunean aztertu behar dugu gaia. Alde batetik, lan ordaindua eta sozialki aitortua dago (enplegua); bestetik, doan egiten den lana (etxeko lanak eta zaintza lanak), gizarte aitorpenik eta ordainsaririk gabekoa, baina funtsezkoa dena sistema osoari eusteko. Etxeko lanak eta zaintza lanak kontuan hartuko dituen politika bat behar dugu.

Bizi baldintza duinak bermatu behar zaizkie pertsona guztiei eta, beraz, enpleguaz hitz egitean, kalitatezko enpleguaz hitz egin behar dugu. Gaur egun eskaintzen den lanak (aldi baterako lana, partziala, soldata txikiekin...) prekarietatea sortzen du eta ez du pobreziatik irtetea bermatzen.

Emakumeak, gazteak eta emigratzaileak dira prekarietatea gehien nozitzen dutenak.

Aspalditik ari gara eskatzen aberastasuna eta lana banatzea, eta inoiz baino beharrezkoagoa da. Ezinbestekoa da lana/enplegua bere osotasunean banatzea, langabeziari aurre egin, pertsonen eskubideak bermatu eta gizarte bidezkoago bat eraikitzeko.

Azkenik, gure gizartearen premiei erantzungo dieten politikak abiarazteko, egoera honetatik aterako gaituzten politikak ezartzeko, burujabetza behar dugu: ezinbestekoa da guk geuk lan merkatua eta lan baldintzak erregulatzea, inposatu dizkiguten lan erreformei eta egoera honetara ekarri gaituzten politikei aurre egiteko.

NEURRIAK

- Ataka zailean dauden enpresen egoera onbideratzeko, protokolo bat jarriko da martxan. Protokolo horretan, beste puntu batzuen artean, Arabako Foru Aldundiak bere tresna eta baliabide guztiak jarriko ditu langile eta enpresa batzorde guztien eskura (lege aholkularitza, plangintza estrategikoa, laguntza lerroak...), eta konpromisoa hartuko du egoera aztertu eta irtenbideak bilatzeko.
- Ixtear dauden enpresen kasuan, baldin-eta langileek jarduerarekin jarraitzeko asmoa badute, baliabide ekonomikoez eta materialez osatutako laguntza lerro bat eskainiko da, egoera onbideratzeko.
- Aholkuak, laguntza juridikoa eta ekonomikoa eskainiko dira, proiektuen arabera, gazteek euren egitasmoak abiaraz ditzaten bereziki. Aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dute lehenengo 2 urteetan.
- Laguntza bereziak emango zaizkie lana banatzeko eta lanpostuak sortzeko neurriak hartuko dituzten enpresei.
- Programa bat jarriko dugu martxan **lan erreforma** aplikatuko ez den **eremu libreak** sortzeko.
- **Kaltetuen edo biktimen bulego bat** sortuko da enpresetatik kaleratutako pertsonentzat. Bertan, kaleratuen egoera aztertu ez ezik, egoera onbideratzeko bideak sustatu ere egingo dira.
- **Gizarte ekonomia** eta ekonomia alternatibo eta solidarioa bultzatuko dira. Aholku- eta laguntza-zerbitzuak jarriko ditugu martxan emakumeen kooperatibak sortzeko.
- Toki garapena bultzatzeko, ezinbestekoa da Tokiko Enplegu Planak sortzea, benetako egoerei erantzungo dietenak, oinarri sendorik gabeko enplegua sortu ordez.
- Erakundeekin batera, neurriak bultzatuko dira **erretiro adina** 65 urtera itzul dadin, eta txanda kontratua 60 urterekin egiteko aukera defendatuko da.

- 1.200 euroko gutxieneko soldata defendatzen dugu, eta helburu horri begira lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- **Konpromisoa hartzen dugu emakumeek lan-merkatuan bizi duten diskriminazioari aurre egiteko** (soldata txikiagoak, lan baldintza prekarioak, lanaldi partzialak, eskubiderik gabeko lana ezkutuko ekonomian, sexu jazarpena eta oztopoak barne promoziorako).
- Lan arloan bultzada ematea jatorri, erlijio, sexu edo ideia sindikalengatiko diskriminazioen aurkako borrokari.
- Enplegu planak eta enplegurako prestakuntza planak bultzatzea langabezia tasa handienak dituzten Arabako eskualde eta udalerrietan: Aiaraldea, Agurain, Oion, Bastida...
- Enplegu nitxo berrien aldeko apustua, kooperatiben eta ETEen bidez, garapen jasangarriari loturiko sektoreetan: eraldaketa ekologikoa, elikadura burujabetza...
- Akordioak egitea sektoreko eragileekin, kooperatibismoa eta gizarte ekonomia zein ekonomia solidarioaren sektorea babestu eta indartzeko.
- Tamaina txikiagoko kooperatibak sortzen laguntzea, enpresa dibertsifikazioa sendotze aldera, enpresa dentsitate handiago bati lotutako enplegua eta ekintzailatza sustatuta.
- Enpresa edo kooperatibentzako laguntza instituzionalen programetan gizarte klausulak ezartzearen aldeko apustua egitea, Foru Arauak garatuta gizarte klausulak sartzeko eta Kontratazio Arduratsua sustatzeko.
- Zuzenean enplegu berdea sortuko duten egitasmoak bultzatzea, hondakinen tratamendua edo energia berriztagarriak bezalako sektore garrantzitsuetan.
- Gizartearen edota norbanakoaren beharrei eman beharreko erantzunarekin zerikusia duten enplegu nitxo berrien eta jarduera industrialen ikerketan inbertitzea.
- Ikerketa, berrikuntza, eraberrikuntza eta ikaskuntzari buruzko programa espezifikoak diseinatzea energia berriztagarrien eta efizientzia energetikoaren alorrean.

9. LURRALDE-OREKA

a. INGELESMENDI PARKE PERIURBANOA

Erronkak eta arazoak

Gasteizaldeko mendebaldean zenbait erronka eta arazo biltzen dira, lurralde-antolamenduarekin eta hirigintzarekin lotuta, begirada integraleko proposamen bat behar dutenak.

Batetik, lurralde-erronken artean hurrengoak zerrenda daitezke:

- Adifen Jundizko egungo tren-geltokiaren eta Forondako aireportuaren arteko lotura egoki bat egitea, merkantziak trenetatik hegazkinetara (eta aldrebes) garraiatu ahal izateko.
- Badaia-Arrato mendilerroa eta Gasteizko Mendien arteko korridore ekologikoa egitea, biodibertsitateari jarraikortasuna emanez.
- Zadorra ibaiaren bazterreko bide berdea osorik egitea Gasteiz eta Langraitz artean, hura ondo lotuz Gasteizko Eratzun Berdearekin.
- Gasteizalde mendebaldeko ondare historiko eta kultural aberatsa balioan jartzea: Iruña-Veleia, Santa Katalinako lorategi botanikoa, Jundizmendi, Ingelesmendi, telegrafo optikoen dorreak (Eskibelgo Atxa, Almoreta, Baiaguen), Mendoza eta Martiodako dorreak, Donejakue bidea, GR-25 bidea...
- Astegietako arrain, fruta, barazki eta berduren handizkako udal azoken hiri-inguru utzi samarra eraberritzea.
- Hutsik dagoen Astegietako Eroskiren ingurunea naturalki berreskuratzea. Zadorra ibaiaren bazter inundagarrian egonda, eraikina eraitsi beharko litzateke.
- Langraizko kartzela zaharraren ingurunea ere naturalki berreskuratzea. Zadorra ibaiaren bazterrean egonda, eraikina eraitsi beharko litzateke, haren gaineko eskumena eskuratu ondoren.
- Zuhatzu inguruko lur aberatsak urbanizaezin mantentzea edo, gehienez jota, Gasteizko Eratzun Berdearen parte bilakatzea.

Bestetik, lurralde-arazoen artean hurrengoak aipa daitezke:

- Jundiz-Billodako geltoki intermodalaren proiektua. 2018an Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala jada aldatu berri dute AHTaren merkantzia-geltoki hori egiteko, soilik 2.000 metrora Adifen beste geltokia ja egon arren. Mercadonaren bloke logistikoaren ondoan egin nahi dute intermodal berria, Zadorra ibaiaren bazterrean, 46 hektareako eremu handi eta luze batean, bide berdea moztuz.

- Subilla-Gasteizko gas-putzua, Euskal Herriko akuifero garrantzitsuenetako baten gainean dagoena.
- Zaia ibaiko dikea, ia 3 metroko altuera eta 3,5 km-ko luzera eduki behar dituen, Forondako aireportuaren ondoan industrialde berri bat eremu inundagarrian eraiki ahal izateko SPRIk egin nahi duena.
- AP-1 eta A-1 errepideen arteko Etxebarri-Dibina/Armiñon lotura. 2004ko Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialak proposatu zuen, eta, teoriarik, oraindik dago indarrean. Alternatiba zentzudunago bat planteatu beharko litzateke, laburragoa, lurralde hondamen txikiagoa eraginez.
- Iruña-Okako Subillabide industrialdearen handipen posiblea. 2013an Jundizmendi eta Zadorra ibaiaren arteko 50 hektareako eremu erraldoia urbanizagarri birklasifikatu nahi izan zuten, Iruña Okako HAPOaren Aurrerapenean.
- Iruña-Okako "Navarra Pequeña" harrobiaren handipen posiblea. Hirukoiztu nahi izan dute iragan gertuan, Iruña Okako 2013ko HAPOaren Aurrerapenean.

Proposamena

Esandako erronka eta arazoei aurre egiteko hiru esku-hartze proposatzen dira:

- Jundizen gaur egun ja badagoen merkantziatarako tren-geltokiaren eta Forondako aireportuaren arteko trenbide-lotura berri bat egitea, A-1 eta Estarrona arteko lurretatik, ahalik eta lurzoru gutxien artifizializatuz. Gertaezina iruditzen arren, egunen batean merkantziak AHTan iritsiko balira Jundizeraino, Adifek eta Eusko Jaurlaritzak geltoki berdina elkarbanatu beharko lukete. Ez baitu zentzurik geltoki berri bat aurretik zegoenaren parean egitea, Zadorraren bazterrak hondatzen.
- AP-1 eta A-1 lotzeko errepidea amaitzea, lotura ahalik eta laburrena eginez, Forondatik Krispinara bitartean, N-624 errepidearen jarraipen gisa, Zaia eta Zadorra ibaiak zeharkatu gabe.
- Parke periurbano bat egitea, aipatutako beste lurralde erronka eta arazoak ganoraz babestu, antolatu eta kudeatzeko. Parke periurbano horren nukleoak Badaia-Arrato eta Gasteizko Mendiak lotuko lituzke, erdigunean Jundizmendi eta Ingelesmendi edukita, 1.000 hektareako azalera osoarekin. Parkearen nukleo horretan Iruña-Veleia, Santa Katalina eta Eskibelgo dorrea ere egongo lirateke.

Halaber, parke periurbanoak beste 5.000 hektareako buffer-eremu edo babes-eremu handi bat edukiko luke, GR-25 bideak eta Zaia ibaiak mugatuko luketena. Bertan aipatutako beste erronkak eta arazoak kudeatuko lirateke: Zadorra ibaiaren bazterreko bide berdearen osotasuna, Almoreta eta Baiaguengo dorreak, Mendoza eta Martiodako dorreak, Donejakue bidea osotasunean, Astegietako Eroski eta udal-azokak, Langraizko kartzela zaharra, Zuhatsu inguruko lurrak, eta Subillako gas-putzuaren eremua, besteak beste.

Parke periurbanoak, hortaz, hainbat funtzio beteko lituzke, ikuspegi ezberdinetatik, iraunkortasunaren lau hankak jorratuz: ambiental, soziala, ekonomikoa eta kulturala.

b. TOKI ERAKUNDEEN ESKUMENAK ETA FINANTZAZIOA

FORU ARAUAK ALDATZEA ETA EGOKITZEA

Uste dugu beharrezkoa dela atal honetan aipatzen diren foru arauak berrikusi eta egokitzea. Arauok batera aldatu behar dira, eta Arabako Toki Erakunde guztiek parte hartu behar dute.

1) TOKI ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO FORU FUNTSA: Baldintzatu gabeko finantzazioa aldatzeko konpromisoa, gutxieneko puntu hauekin:

) Foru funtsaren zenbateko osoa handitzea Aldundiak urtean eskura dituen baliabideen % 58ra.

) Banaketa ehunekoa aldatzea: % 30 oinarritzko tartean eta % 70 tarte osagarrian.

) Oinarritzko tarteak: Banaketa irizpideak eta zerbitzuak berrikustea (oraingoz zehaztu gabe...) eta eskumendun Toki Erakundeari abonatzea.

) Tarte osagarria: Udalen finkoa handitzea +/- 70.000€-ra, biztanleria tarteak berrikustea eta ahalegin fiskalaren irizpidea baloratzea.

2) OBRA ETA ZERBITZUEN FORU-PLANA: Funtsezko diru-laguntza izanik Toki Erakundeentzat, berrikusi egingo da Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Foru Araua, obra bat oinarritzkotzat hartzeko irizpidea eguneratzeko, eta, besteak beste, berriro ere laguntzak eskatzeko aukera sartzeko AFak eta URAk sinatutako 2017-2027 Azpiegitura Hidraulikoen Planetik kanpo dauden goi-hornidurako azpiegitura hidraulikoetarako.

3) OBRA TXIKIAK ETA AUZOLANAK: EH Bilduk, Arabako Toki Erakunde guztiekin batera, berrikusi egingo du Obra Txikien eta Auzolanen Foru Araua, udalen eta kontzejuen benetako beharrei erantzuteko.

4) KONTZEJUEN FORU ARAUA: Uste dugu beharrezkoa dela foru arau hau eguneratzea, kontzejuen balioa nabarmendu, erakunde horiek ahaldundu eta haien etorkizuna bermatzeko, toki kudeaketarako eta administrazioarako erakunde hurbilenak direlako:

) Kontzejuen eskumen guzti-guztiak espresuki zehaztea (uraren gestioa, baso-aprobetxamenduak eta luberriak, bideak, argiteria).

) Erabakitze eta betearazteko ahalmen handiena ematea Batzar Nagusiari; honek egoki irizten dien gaiak utzi ahal izango ditu Administrazio Batzordearen edo haren edozein kideren esku.

) Irtenbide bat ematea lehendakaria “jauntxo” gisa aritzen den kasuetarako, zentsura mozioaren aukera emanez batzarrari.

) Erabateko autonomia ematea Kontzejuei euren eskumenekoak diren zerbitzuetan aritzeko, bai euren kabuz, bai beste administrazio eta erakunde batzuekin elkarlanean, inolako mugarik gabe.

) Kontzejuen izaeran, burujabetzan edo funtzionamenduan kanpotik eginiko edozein motatako esku-hartze eragozteak.

) Hirigintza arloan, EAEko Lurzoruaren Legeak adierazi bezala eta udal eskumenari kalterik egin gabe, Aldundiak sustatu egingo ditu udalen eta kontzejuen arteko hitzarmenak, urbanizazio berrien harrera egiteko.

) Kontzejuen finantzazio egokia bermatuko dugu, bai Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren bidez bai udal zergetan izan behar duten parte-hartzearen bidez, eta dagozkion foru arauak aldatuko ditugu horretarako.

5) MENDIEN FORU ARAUA ETA OGASUNAREN FORU ARAUA: Aldaketak egitea proposatzen dugu, aukera emateko toki erakundeei tasak ezartzeko lurzorua, lurrazpia eta airea okupatzeagatik, beren jabetzako lursailetan (landa eta hiri lurrak).

6) **KUADRILLEN FORU ARAUA:** Toki Erakundeekin batera, foru arau hau berrikustea eta egokitzea proposatzen dugu.

FINANTZAZIOA

1) **GIZARTE ZERBITZUAK:** EH Bilduk mantendu egingo du Aldundiaren egungo finantzazioa udal eskumeneko Gizarte Zerbitzuen gastu arrunterako, baldin-eta erakunde eskudunek (udalak) erabakitzen badute zerbitzu horiek euren kabuz edo era mankomunatuan eskaintzea (Kuadrillak, Ermandadeak edota Partzuergoak). Horretarako, konpromiso hauek hartzen ditugu:

) **ELZ:** Aurreko ekitaldian likidatutako erabiltzaileko gastuaren % 100 finantzatzea.

) **Eguneko Arretarako Landa Zentroak eta etxebizitza komunitarioak:** Udal eskumeneko erabiltzaileko gastuaren % 80 finantzatzea (0 eta 1 mendekotasun mailak) eta foru eskumeneko erabiltzaileko gastuaren % 100 (2. eta 3. mendekotasun-mailak).

2) **AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK:** EH Bilduk finantzatu egingo ditu AFak eta URAk sinatutako 2017-2027 Azpiegitura Hidraulikoen Planean eta Arabako Hornidura eta Saneamendu Plan Zuzentzailean aurreikusitako azpiegitura hidraulikoak, udal autonomia errespetatuz eta azpiegitura horien ondorengo kudeaketa baldintzatu gabe, hots, finantzazioa jaso duen erakundea AFak legegintzaldi honetan bultzatutako Kontsortzio Bakarrean sartzera behartu gabe.

3) **KONTZEJUENTZAKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUA:** Uste dugu administrazio zerbitzu berezi bat behar dela Kontzejuei laguntza eta aholkularitza emateko –ez kontrolatzeko–. Jakin badakigu Toki Erakunde askok zailtasunak dituztela, adibidez, kontratazio publikoko prozesuak egiteko. Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsak finantzatuko du zerbitzua.

FUNTZIONAMENDUA

LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA TOKI ERAKUNDEENTZAT: EH Bilduk konpromisoa hartzen du Toki Erakundeen laguntza eta aholkularitzarako bulego bakarra sortzeko, Aldundiaren baliabide teknikoak eta giza baliabideak berregituratuz, koordinatuz eta indartuz, erantzun bizkor eta eraginkorrago bat emateko edozein arazo edo kontsultari.

LURRALDE OREKA

Lurralde oreka ez da lortzen soilik lurraldeko Toki Erakundeak sustatuz. Horrekin batera, Aldundiaren sail guztien inplikazioa behar da, zeharkako ikuspegi batekin aritzeko eta lurralde orekaren kontzeptua sailek hartzen dituzten erabaki guztietan txertatzeko.

EKINTZA ZEHATZAK: HERRI BIZIAK

EH Bilduk hainbat egitasmo jarriko ditu martxan gure herrietako jarduerak bultzatzeko, herri biziak izan daitezen:

-) Antzinako Lanbideen Eskola sortzea.
-) Bultzada Eskola Txiki Publikoei (Barrundia).
-) Ekonomia zirkularra eta Errotuz proiektua.
-) Eskola curriculumean landa eremuari eta haren inguruneari loturiko edukiak sartzea (landa curriculum).
-) Landa eremua bultzatzeko estrategia integrala eta zeharkakoa, gainerako erakunde publikoetan integratuko dena.
-) Landa Bideak Mantentzeko Plan Integrala sortzea (AEPI formatua): mantentzea, hobekuntzak eta bide berriak.
-) HerriEszena: Zuzeneko laguntza kultur jarduerari (antzezlanak, musika, formatu txikiko jarduerak...) herri txikietan.
-) Landa etxebizitzak eta ekintzaileentzako lokalak sustatzea.
-) Zuzeneko laguntza toki merkataritzari.

-)] Bultzada energia berriztagarrien instalazio txikiei.
-)] Bultzada ArabaTran proiektuari eta eskualde garraioari.

1) Eremu babestuen araudia: Dagokien balioa eman nahi diegu titulartasun publikoko eta Kontzejuen jabetzako ingurune natural babestuei, kontserbazio egokirako finantzazio baten bidez.

2) Espazio publikoa erabiltzeagatiko tasa: Lurzoru, Lurrazpi eta Aire Publikoa okupatzeagatiko tasa ezarriko diegu energia banaketako enpresei, Toki Erakundeek finantzazioa osatzeko, eremu publikoen erabileratik lortzen duten aprobetxamenduagatik.

c. DESPOPULAZIOAREN KONTRAKO ESTRATEGIA

LURRALDE OREKA

Araban ezaguna da Gasteizek jokatzeko duen makrozefalia populazio, zerbitzu eta jardura ekonomikoari dagokionez, eta horrek sortzen dituen desorekak hiriburua eta gainontzeko eskualdeen artean. Nagusiki hiru desoreka ematen dira:

- Populazio Desoreka edo **desoreka demografikoa**. Zenbait herri eta eskualdetan populazioaren jaitsiera eta zahartze nabarmena eman da azken urteetan, jaitsiera areagotzen da emakumeen eta haur-gazteen taldeetan.
- **Desoreka sozioekonomikoa**. Industria eta jardura ekonomikoa Gasteizen, Laudio-Amurrian, Oionen eta AP-1 eta N-240 errepideen ardatzetan pilatzen da. Hainbat eskualdetan krisian dagoen lehen sektorea da jardura ekonomiko nagusia. Desoreka nabarmenak berrikuntzan
- **Zerbitzuen desorekak**. Hezkuntza, mugikortasuna, etxebizitza, Osasuna, aisialdia edo kultura bezalakoetan gabezia handiak dira eskualde eta herri ugarian.

Aurreko desorekak kontuan hartuta, Araba **biziberritzeko prozesua sustatzea** eta bertako **Toki Garapena garatzea** estrategikoak dira.

Sakoneko arazo baten aurrean gaudela uste dugu eta ez da konponduko aurrekontuetan jasotzen diren hainbat aurrekontu-sail batzuen inbertsio plan batekin” Alderdien interesak gaindituko dituen epe ertain eta luzerako estrategiak behar ditugu Toki garapena bultzatzetik helduko da soluzioa, beti ere herrietatik eta herriei begira egiten bada.

EKIMENAK LURRALDE-OREKA SUSTATZEKO ETA ARABA BIZIBERRITZEKO.

- **Lurralde Oreka sustatu eta despulazioari** aurre egiteko estrategia integrala eta zeharkakoa edo transbertsala bultzatuko dugu Kuadrilla, Udal, Kontzeju eta interesa duten gainontzeko eragileen parte hartzearekin. Estrategia hau AFAko zein Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde guztietan txertatu behar da epe labur, ertain eta luzeko begiradarekin. Horretarako teknikarien formazio edo sentsibilizazio planak egingo dira.
- **Arauak eta ratioak** (osasun arauak, hirigintza arauak, nekazaritza arauak, eskola ratioak...) **egokitu** behar dira herrien eta landa eremuko errealitatera eta lurralde orekaren irizpidea kontuan hartuz, politika proaktibo edo diskriminazio positiboen bidez.
- Toki Garapena ardatz nagusia da. Toki garapenak endogenoa izan behar du bertako eragileek sortua eta bertako beharretara egokitua, behetik gorakoa. Garapen ekonomikoa, sozial, kulturala eta ingurumenezko bildu behar ditu.
- **Lehen Sektorea** da zenbait eskualde eta herri askoren jarduera garrantzitsuenak. Egun nekazaritza eredua krisian dago, agroindustriara zuzenduta dago, era intentsiboan. Gero eta pertsona gutxiago bizi dira bertatik, eta gutxi batzuk gero eta lur gehiago metatzen dute. Beraz, aldaketak eta sektorearen aldeko politika ausartak behar dira. Ari direnei lagundu eta eredu berria bultzatu beharko litzateke hainbat neurriekin:
 - Estrategia agroalimentario iraunkorra
 - Bertako elikagaiak ekoiztu, transformatu eta kontsumitzearen aldeko estrategia, Zirkuitu laburrak. Jantoki publikoak.
 - Lan duina nekazari eta abeltzaintzat.
 - Lur banku publikoa. Etxebizitza+lurra eskaini.
 - Etxalde eta upategi txikiak gehiago lagundu
 - Dibertsifikazioa
- Landa **etxebizitza planak** sustatu. Herrien hazkunde naturalak bultzatzeko eta pertsona berriak zenbait herritara bizitzera joan ahal izateko
 - Bultzatu Landa alokabide moduko programa
 - Herri ertainetan alokairuzko etxebizitzak ziurtatu
 - Hutsik edo egoera txarrean dauden etxeak errekuaratu eta alokairu sistemapean jarri.
- **Ekonomia zirkularra bultzatu.** Honek enplegu berdeak (hondakin trataera, eginkortasun energetikoa...) sortzeko aukerak zabal ditzake, jarduera ekonomikoa sustatzearekin batera.

- **Zerbitzuak hobetu:**

- Garraio publikoaren eskaintza hobetu. Trenaren aukera baliatu.
- Hezkuntza eskaintza hobetu. Eskola txikien aukera zabaldu eta garraio eskola hobetu.
- Eskaintza kulturala eta aisialdia bultzatu ume, gazte, heldu eta hirugarren adinekoentzat
- Herrietan zuntz optikoa eta konektibitatea digitala bermatu
- Zerbitzu sozialen udal eskumena sustatu zerbitzu gertuagoa eta kalitatezkoa bermatzeko.
- *Errotuz* programaren garapena landa eremuetan.

- **Kohesio soziala landu.** Kuadrilla barruan landu herrien eta pertsonen arteko elkar ezagutza , harremanak, elkarlana eta kohesioa.

- Herrietan sortzen diren ekimenak eta **proiektu komunitarioak bultzatu.** Hauek herriak bizirik mantentzeko laguntzan baitute.

- **Industria eta jarduera ekonomiko eskualde eta udal planak** bultzatu. Landa aukera berriak, lagundu krisian dauden enpresak. Enpresa txiki edo ertainen arteko sinergiak eta elkar ezagutza. Eskualde beharrak eta ezaugarriak kontuan hartu

- Herrien eta **kontzejuen ahalduntzea** sustatu. Behetik gorako gobernantza parte hartzailea bultzatu.

- **Kuadrilla eta ADR**-etan gardentasuna, parte hartzea eta gobernantza irekiagoa sustatuko dugu.

- * **Landa-eremuko** baloreak, jarduerak, lanak eta ezaugarriak prestigiatu behar dira. Harrotasunez landu behar dira, beste begirada bat behar da, sentsibilizazio landu behar da.

- Landa **etorkinekin harrera planak** herrietan.

- **Hurbileko merkataritza**, herri-ekonomatoak eta denda txikiak bultzatu.

- Parke naturalen eta espazio natural babestuen kudeaketa aldatu behar da. Kudeaketa konpartituak, debekuetan oinarritu beharrean eragile guztien kontsentsuan oinarritu.

d. TREBIÑU 2023

TREBIÑUKO HERRI PROGRAMA

1. NEGOZIAZIO ZUZENA

EH Bilduk Trebiñuko Enklabearen auziaren konponbidea agenda politiko nazionalean txertatzeko konpromisoa hartzen du. Hortaz, konponbidearen marko politikoa Arabako instituzio nagusiek

(Foru Aldundiak zein Batzar Nagusiek) eta Enklabeko Udalek oniritzi beharreko Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordio bilateral batean kokatzen du EH Bilduk. Hots, Eusko Jaurlaritzak negoziazio zuzena irekiko du Espainiako Gobernuarekin gatazkari konponbide demokratikoa emateko herritarren erabakia errespetatuko duen kontsulta loteslea.

2. AFERA SOZIALIZATU

Enklabearen inguruko eztabaida politikoa sustatzeaz gain, urtero aurrekontuen partida bat bideratuko dugu Trebiñuren afera ezagutarazteko Araban bertan eta Euskal Herri osoan, baita, beharrezkoa balitz, Estatu Espainiarrean zein Europan ere. Soilik trebiñutarren borondatearen errespetutik helduko da behin betiko soluzioa.

3. OINARRIZKO ZERBITZUAK BERMATU

Konponbide hori erdiesten den bitartean, Arabako Diputazioak mantenduko ditu Burgosko Diputazioarekin indarrean dituen hitzarmenak. Halere, Arabako Foru Aldundiaren eta Burgosko Diputazioaren eskumenek gizarte aurreratu batean duintasunez bizitzeko oinarrizko zerbitzu batzuk (osasuna, hezkuntza, indarkeria matxistaren kontrako borroka...) bere baitan hartzen ez dituztenez, Eusko Jaurlaritzari exijituko diogu bere eskumenen arloan pareko hitzarmenak landu eta adostu ditzala Gaztela Leongo Juntarekin.

4. INBERTSIOAK

Halaber, konponbidea lortu bitartean, Araba Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak pareko finantzazioa izango duen inbertsio funts publiko-pribatu bat abiaraziko dute, sektore estrategikoetan diharduten euskal enpresa eta finantza erakundeei irekita, Enklabearen behar diren inbertsio estrategikoak gauzatzen joateko. Funts horrek Trebiñu eta Argantzongo Udalekin adostuko ditu egin beharreko inbertsioak eta horien lehentasun ordena.

e. KUADRILLAK

AIARALDEKO HERRI PROGRAMA

1. Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu Aiaralde osorako (Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrakundiaga barne) datorren legealdian eskualde ospitale bat eraikitzeke. Ospitale horrek, besteak beste zerbitzuok izan beharko ditu: kronikoentzako eremu bat, egoera horretan dauden pertsonen eta horien senideen

deserrotzea ahalik eta gehien ekiditeko, 24 orduko urgentzia zerbitzua, pediatria urgentziak barne, eta espezialitate ohikoenak (traumatologia, ginekologia, barne medikuntza...).

2. Aiaraldeko industriak azken hamarkadatan jasan duen krisi ia etengabearen ondorioz Kuadrillako egoera sozioekonomikoa ez da batere ona. Gainera, bertako sare ekonomikoan pisu berezia daukaten sektore batzuen etorkizun zalantzaragariaren aurrean funtsezkoa deritzogu Legebiltzarrean EH Bilduk eskatutako Aiaraldeko egoera sozioekonomikoari buruzko ponentzia lehenbailehen abiarazteari, bertatik industria trantsiziorako estrategia eraginkorra garatzearren.

3. Bai hiriguneetan (Laudio, Amurrio...), bai herri txikietan beharrezkoa da alokairu sozialerako etxebizitza politika abiarazteko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa eskatuko dugu, tresna desberdinak bilduko dituen eta, herri txikien kasuan, horien landa izaera arriskuan jarriko ez dutenak: gazteentzako etxebizitza komunitarioak, masoberia bidezko alokairuak (etxea konpondu eta zaindu bertan bizitzearen truke), belaunaldien arteko etxebizitza dotazionalak...

4. Nerbioiak duen ingurumen egoera guztiz jasanezinaren aurrean, Aiaraldeko instituzio guztietatik zein Arabako Foru Aldunditik indar osoz presioa egingo dugu Markijana eta Basaurebako araztegien eraikuntzari segituan ekin diezaioten; eta Espainiako Gobernuak bere konpromisoak betetzeke jarraituz gero, Eusko Jaurlaritzari exijituko diogu lan horiek bere gain har ditzala eta Estatuari ordaindu beharreko Kuponetik deskontatu ditzala.

AÑANAKO HERRI PROGRAMA

1. Despopulazioaren kontrako plan estrategiko integral bat abiaraziko dugu. Horretarako *Añana Biziberritu* Mahaia osatuko dugu, Kuadrilla, Udal eta Kontzejuen parte-hartzearekin, baina horrekin batera ezinbestekotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea ere, baita Añanako gizarte eragileena ere. Urtero 500.000€-ko partida bideratuko dugu horretarako eta beste horrenbeste eskatuko diogu Eusko Jaurlaritzari. 2019 urtea amaitu aurretik lehen plangintza bat aurkeztuko dugu Mahai horretan. Arreta berezia eskainiko diegu etxebizitza alokairu politikari, garraio publikoari eta hezkuntza zein osasun beharrei.

2. Añanarako berezko estrategia agroalimentarioa sustatuko dugu, ekonomia zirkularra eta garapen endogenoa helburu. Lehen urratsa izango da Tuestako industriagunean Transformazio Agroalimentarioarako Gune bat garatzea legealdi honetan EH Bilduren ekimenez bertako ekoizleekin

burututako parte-hartze prozesuaren ondorioetatik abiatuta eta Kuadrillako lehen sektorean sinergia berriak sortzeko.

3. PNVk Gasteiz-Miranda artean sustatu nahi duen eta ondorio ekologiko, sozial eta kultural ezin larriagoak izan ditzakeen AHTren proiektu guztiz txikitzailearen aurrean, ArabaTran tren soziala sustatuko dugu instituzio guztietan. Proiektu horren bidez, egungo trenbidea modernizatu egingo dugu, 3. Haria ezarri, Añanako herritarrei Gasteiz-Miranda linearen bidez euren mugikortasun beharrak asetzeko eta merkantziak garraiatzeko. Gainera, Manzanosen trenbidea lurperatzeko azterketa teknikoak egin eta plangintza berezi bat ezarriko dugu eskualdeko trenbide-pasaguneak desagerrarazteko.
4. Porrot ekonomikoaren arrisku oso handia eta ingurumen ondorio oso larriak biltzen dituen Barrongo urtegiaren proiektu faraonikoa bertan behera utziko dugu eta XXI. Mendeko ureztapen politika berritzailea abiaraziko dugu, alturako baltsen bidezkoa.

ARABAR ERRIOXAKO HERRI PROGRAMA

1. Bide hori egin nahi duten ardogileekin batera Arabar Errioxako berezko izendapena landu eta abiaraziko dugu, beti ere egungo DOCen geratu nahi dutenen borondatea errespetatuz eta babestuz. Horretarako Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu jarrera proaktiboa izan dezala, Espainiar Estatuko zein Europako instituzioek izendapen berria abiarazteko prozedura burokratikoa ahalik eta gehien azkartu dezaten.
2. Eusko Jaurlaritzari exijituko diogu behingoz Lezako ospitalea Arabar Errioxako eskualde-ospitale bilakatu dadila. Ildo horretatik egun dauden espezialitateez gain, ezinbestekoa deritzogu bertan ginekologia zerbitzuak (mamografiak egiteko beharrezko azpiegitura barne) modu iraunkorrean eskaintzeari. Horrekin batera, bertan kokatuko dugu Arabako Hegoaldea artatuko duen anbulantzia medikalizatua.
3. Turismoari dagokionez, Arabar Errioxa osorako Turismo Plan Estrategikoa garatuko dugu, bertako Kuadrilla, Udal eta Kontzejuekin zein bestelako eragileekin elkarlanean. Plan horren bidez, besteak beste, Kuadrilla osoaren mota guztietako ondare historiko eta kultural ezin aberatsagoa balioesteaz gain, berau babesteko neurri eraginkorrek ere hartuko ditugu.

4. Kuadrilla osorako kirol eta kultur azpiegituren multzo bat abiaraziko dugu, bikoizkeriak eta handikeriak ekiditeaz gain, herri desberdinen artean berauek modu orekatuan banatzeko eta errioxar guztien arteko kohesio soziala ere lantzeko balioko duena. Zehazki, honako azpiegitura hauek bultzatuko ditugu: erabilera anitzeko antzoki-zinema bat, igerileku estalietako gunek bat, ardogintzari buruzko interpretazio eta dokumentazio zentro bat eta aire zabaleko kirol gunek bat, kanpo igerilekuak ere izango dituenak.

GORBEIALDEKO HERRI PROGRAMA

1. Biztanleria gaztearen exodoa ekiditeko ezinbestekoak da hainbat neurri hartzea oso gaztetatik jendea Gasteizetik menpekoa izan ez dadin. Horretarako ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren inplikazio positiboa: batetik, ahalbidetu behar da Bigarren Hezkuntza ere Kuadrillan bertan egitea, eta gainera hezkuntza eskaintzak balioetsi behar ditu Kuadrillak eskaintzen dituen berezko aukerak. Horrekin batera, Murgiatik Leioako kanpuserako bus garraioaren egoera ulergaitza urtebeteko epean konpontzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Bestetik, gazteek Gorbeialdean bertan bizitza proiektua garatu ahal izateko, bestelako etxebizitza behar da, alokairu sozialean oinarrituta. Hemen ere Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa ezinbestekoa da, Alokabide zerbitzuaren bidez. Gainera, arreta berezia eskaini behar zaie abandonatzen ari diren baserriek, gutxienez bi norabidetan: batetik, bertan bizitzeko proiektuak sustatzea maldan beheara doan lehen sektorean jardutearekin lotuz; bestetik, haien morfologia erabiliz etxebizitza komunitarioak eskaintzeko.
3. Eskualde euskaldunena izanda, bertan baita UEMAko kide den Arabako udalerririk bakarra, jausi kuantitatibo eta kualitatiboa emateko garaia iritsi da. Batetik, erabilera sustatzeko programak gogotik sustatuko ditugu Kuadrillatik zein Udaletatik, batez ere gazteen artean eta euren aisialdiarekin lotua (kirola, kultur kontsumoa...). Bestetik, Udalen eta Kuadrillaren kontratazio publikoetan euskararen exigentzia handituko dugu, bertako egoera soziolinguistikoarekin koherentziaz jokatzeko.
4. Ekonomia zirkularraren eta garapen endogenoaren aldeko apustu argia egiten jarraituko dugu. Hondakinen tratamenduari dagokionez, lehentasun osoa daukate gaikako bilketa egokiak eta konpostaren berrerabileran sakontzeak. Gorbeialdeko Toki Erakundeek bertako ura ondo baino

hobeto kudeatzeko erakutsi duten gaitasun erabatekoa babestuko dugu, eta finantzazio egokia ziurtatuko diegu Foru Aldunditik, PNVk sustatzen dituen zentralizazio arriskuaren aurrean eta txantaje ekonomikoaren kontra.

LAUTADAKO HERRI PROGRAMA

1. Lautada zeharkatuz, Iruñea eta Gasteiz lotzeko Arabako PNVk babesten duen AHTren proiektuaren aurrean, ArabaTran tren soziala martxan jarriko dugu bai Aldunditik eta baita Udal eta Kuadrillatik ere. AHTaren kalte ekologiko, sozial, ekonomiko eta kultural atzeraezinak ekidin eta Lautadako herritarren mugikortasun beharrak aseko dituen eta merkantziak garraiatzeko bateragarria izango den Gasteiz-Altsasu trenbidea modernizatzeko lanak burutu eta hirugarren hari bat gehituz trenbidearen nazioarteko zabalerara egokituko genuke.
2. Lautadan sustatuko dugun plan agroalimentarioari begira, funtsezkoa deritzogu legealdi honetan Okiturrin Donemiliagako Udalak eta Lautadako ADRk irekitako Transformazio Agroalimentariorako Gunearen bigarren faseari ekitea. Horretarako, untxi eta oilaskoentzako hiltegi bat abiaraziko dugu, orain arte bezala bertako ekoizle txikiekin elkarlanean.
3. Gure ingurune naturala baloreen jarriko dugu jarduera ekonomikoa aktibatzeke elementu gisa eta, horrez gain, ekonomia zirkularraren aldeko apustu argia egingo dugu bertako eragile sozioekonomikoekin elkarlanean. Energia iturri berritzagarriak sortzeko aukera berriak aztertzeaz gain, gure basoen kudeaketan sustengatutako biomasa proiektuak bultzatuko dugu. Bertako nekazarien kooperatibekin elkarlanean, gure hiri hondakin organikoak konpostaje planta berri baten bitartez kalitatezko lehengai eta ongarri bilakatuko ditugu, larre eta soroetan erabiltzeko.
4. Udal eskumeneko gizarte zerbitzuak bertatik bertara kudeatu nahi ditugu, horrexegatik, Aldunditik finantzazio nahikoa eskainiko dugu Lautadako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, Eguneko Zentroak eta Etxebizitza komunitarioak guk geuk kudeatu ditzagun. Horrez gain, Eskualdeko Berdintasun Kontseiluari ere bultzada bat emango diogu Kuadrillatik aurrekontu finko bat eskainiz.

MENDIALDEKO HERRI PROGRAMA

1. Despopulazioaren kontrako plan estrategiko integral bat abiaraziko dugu. Horretarako *Mendialdea Biziberritu* Mahaia osatuko dugu, Kuadrilla, Udal eta Kontzejuen parte-hartzearekin, baina horrekin

batera ezinbestekotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea ere, baita Mendialdeko gizarte eragileena ere (UAGA, Guraso Elkartek, Gazte Taldeak...). Urtero 500.000€-ko partida bideratuko dugu horretarako eta beste horrenbeste eskatuko diogu Eusko Jaurlaritzari. 2019 urtea amaitu aurretik legealdi osorako lehen plangintza bat aurkeztu eta adostuko dugu Mahai horretan.

2. Mendialderako berezko estrategia agroalimentarioa sustatuko dugu, bertako ekoizle txikien beharretatik abiatuta, eta ekonomia zirkularreko garapen endogenorako abiapuntu gisa. Bide horretako lehen urratsa izango da PNVk baztertutako Transformazio Agroalimentariorako Gunearen proiektua berreskuratzea.
3. Kuadrillarekin eta udalekin batera turismo plan estrategiko bat egingo dugu, Mendialdeko potentzialitate guztia (turismo berdea eta abentura turismoa, Bide Inaziotarra, Atauriko meategiak, Vasco-Navarroko ibilbidea...) balioetsiko duena. Planteamendu orekatua egingo dugu, herri guztiei bertan sartzeko aukera emanez.
4. Mendialde osoan bereziki larria da etxebizitzaren arazoa, batez ere gazteei bideratutakoa, hau funtsezkoa osagaia bada ere despopulazioari eraginkortasunez aurre egingo dion edozein planteamendutarako. Ildo horretatik, eta beste neurri batzuekin batera, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatuko dugu Mendialdean alokairu politika egokia sustatzeko, bertan bizi nahi duten gazteei lehentasuna emanez eta gure herrien landa izaera bereziki zainduz.

10. OGASUNA

a. ZERGA POLITIKA

DIAGNOSTIKOA

Bizi dugun egiturazko krisiari aurre egiteko alternatiba sakon eta integralak dira beharrezkoak, gehiengoen eskubide eta kalitatezko bizi duin baten defentsa oinarri beharko luketenak. Krisiari irtenbide gisa inposatu zaizkigun neurriak, aldiz, kapital handien interesak babestera zuzenduak izan dira, ez langileonak. Kontrara, neurri horiek, beste urraketa batzuen artean, langileek mendeetan egindako borroka bitartez erdietsitako ongizate-sistema hustu dute.

Jendartean dauden disparekotasunak gero eta handiagoak dira, bai errenta eta bai aberastasunaren banaketari dagokionez. Indarrean dagoen zerga sistema gero eta bideragabeagoa izanik ez dago ez diseinatu ez kudeatua ere dualizazio gehikorrera garamatzan bilakaera horri aurre egiteko. Azken urteotan atzera egin da ekitate eta progresibitate printzipioetan, zama batez ere lan errenta eta zeharkako zergetara bideratu da, hau da, zerga-sistemaren geroz eta maila handiagoa herritar xumeen bizkar utziz joan da, horrela fiskalitateak izan zezakeen funtzio birbanatzailea maila handian neutralizatuz.

Sozietateen Zergari dagokionean, dagokiena ez ordaintzeko enpresa handiek eskura dituzten zulo edo dedukzioak kendu nahi ditugu. Izan ere, gaur egun enpresa handiek %2 eta %7aren artean ordaintzen dute, nahiz eta beraien tipoa %24-tik %26-ra izan. Era horretara, egiazko tipoa, egiten duten ekarpen erreala, ezarritako tipoetara ahalik eta gehien hurbiltzea nahi dugu. Gure helburua ez da gure ehun enpresarialari eta produktiborari kalte egitea, kontrakoa, bultzatu nahi dugu. Ez dugu exijitzen gehiago ordaintzea, baizik eta dagokiena ordaintzea, gutako bakoitzak egiten dugun moduan.

Gipuzkoan ezarritako Aberastasun eta Fortuna Handien Gainerako Zergak goraipamen asko jaso ditu instituzio eta Europako herri askotan. Zerga honek herritarren %1ari baino ez dio eragingo, hau da, aberatsenei. Nolanahi ere, PNVk, PSEk eta PPk bultzatuta, bertan behera geratu da zerga hau.

Adituek diotenez, EAEn bakarrik iruzurra 2.500 milioi euro baino gehiagoko da. Enpresa eta fortuna handiek eragiten dute, batez ere, iruzur hori, euskal ogasunek publiko egindako zerrendetan agerian geratu zen bezala. Iruzur horretako dirua berreskuratzeak ehunka milioiko ekarpena suposatuko luke altxortegi publikoarentzat.

Kasu gehienetan, politika fiskalek ez diete erantzun egokia eman herritarren oinarritzko premiei, ez, behintzat, modu proportzionatuan eta berehala, ez baitute bermatu aberastasuna arian-arian eta bidezko moduan birbanatuko denik diru-sarreraren arabera aurrekontu-politika baten bitartez.

Horregatik jasan ditugu murrizketak, eta horregatik ez dugu izan behar adina baliabide lehentasunei erantzuteko. Joera hori areagotu egin da EAEn azken urteotan; izan ere, PNV-PSE-PP triunbiratuak kontraerreforma fiskalari ekin dio EH Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundian diseinatutako eta, zenbait kasutan, ezarritako proposamen oso garrantzitsuak baliogabetzeko.

Bestalde, zerga-arloko eskumena Lurralde Historikoei dagokien arren, Eusko Jaurlaritza da erantzule herritarrentzat biziki garrantzitsuak diren gaietan.

Erantzukizun hori izan arren, Jaurlaritzak ez du protagonismo handiagoa izan politika fiskalak landu eta ezartzeko garaian, eta ez da bete honako helburu hau: administrazio bakoitzak bere eraginpeko herritarren premiei eta eskubideei erantzun egokia emateko helburua.

HELBURU OROKORRA

Datozen lau urte hauetan, guk lortu nahi dugun politika fiskalaren oinarriak unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna izango dira, gizarteak sortu eta administrazioak kudeatzen dituen baliabideak biltzeko garaian.

Gure ustez, helburu horiek administrazio eskudunen eta pertsona fisiko edo juridikoen arteko harremanean eragin behar dute, baina ez harreman horretan bakarrik: berdintasun-printzipioari jarraikiz, euskal administrazio guztien arteko harremanean ere eragin behar dute.

Politika fiskalen ahalmena ez dago soilik ezarri nahi den ereduaren baldintzapean, politika horietako bakoitza zehazteko eta garatzeko gaitasunak ere baldintzatzen baitu; hortaz, gobernuaren eta erakunde guztien ekintzaren helburu nagusietako bat erabateko subiranotasun fiskala lortzea da, hemen har ditzagun zerga guzti-guztiei buruzko erabakiak.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Erreforma fiskala egiteko proposamen bat aurkeztea, berdintasunezko fiskalitate progresibo eta bidezkoago bat lortzeko.

- Sozietateen gainezko zerga aldatzea, sinplifikatzeko eta bidezkoago eta eraginkorrago egiteko. Zerga-tasak berrikustea, hiru tarteko eskala progresibo bat ezarriz irabazien arabera: 200.000 eurorainoko irabazietarako % 24, 200.000 eurotik milioi batera arteko irabazietarako % 26, eta milioitik gorako etekineterako % 28, hurrenez hurren.

- Aberastasunaren eta fortuna handien gainezko zerga bultzatzea, iruzurraren aurkako kontrol gisa eta sistemaren progresibitatea hobetzeko baliagarri izan dadin. Horretarako, ezinbestekoa da ezkutu fiskala desgitea, aberastasun eta fortuna handienak dauzkatenak direlako haren onuradun bakarrak.

- PFEZa aldatzea, kapital errenten gainezko tasa lan errenten gainekora gerturatu.

- Zerga-sistemari buruzko eztabaida publikoa jendartean egiteko oinarriak finkatzea; zehazki, ereduei, helburuei, baliabideei eta proposamenei buruzko eztabaida izango da, eremu erabakigarri baina ilun hori jendartera hurbiltzeko eta demokratizatzeke asmoz.

- Jendartean eztabaida bat irekitzea honako zerga-figura hauen inguruan: ekotasa turismoari eta goi-tentsioko lineei, kanon bat instalazio pribatu edo publikoetan hondakinak bota eta errausteagatik, gas

kutsatzaileak emititzeagatik, erabilera bakarreko plastikozko poltsak erabiltzeagatik, eta urbanizazio berriko jardunetarako lurzoru-erabilerak aldatzeagatik, besteak beste.

- Energia-auditoriek proposatutako neurriak ezartzen dituzten enpresei, mugikortasun jasangarriko planak abian jartzen dituztenei eta garraioak trenbidez egiten dituztenei pizgarri fiskalak berrezartzeko aukera aztertzea.

- Eremu guztietan erabateko subiranotasun fiskala eskatzea, eta bereziki eskumen arau-emailea BEZari eta zerga bereziei dagokienez, zeharkako zergek zuzeneko zergekiko duten pisua murriztea ahalbidetzeko.

2. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko neurriak areagotzea

- Giza baliabide eta baliabide teknikoak areagotzea, informazio-gurutzaketa masiboak ugalduz, eta arauak emateko eta ikuskatzeko gaitasun handiago baterantz aurrera eginez nazioarteko eragiketa eta enpresa handiei dagokienez.

- Iruzur eta Saiheste Fiskalaren aurkako Euskal Behatokia sor dadila sustatzea.
- Iruzurtutako zergak pixkanaka berreskuratzekeo neurriak aktibatzea.

3. Zerga politikan genero ikuspegia txertatzeko tresnak garatzea:

) Egungo zerga-sistemaren eragina aztertzea generoaren arabera eta dauden ezberdintasunen zergatian sakontzea, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

) Generoen arteko diskriminaziorik sortuko ez duen zerga-politikaren oinarriak zehaztea.

Aipaturiko txostenean, **Pertsona Fisikoen Errenta Zerga** orekatu asmoz, honako neurri zehatzak proposatzen genituen:

-) Errenta sarrerei dagokionean, aurrezkiaren errentei eta gainerako errentei tratamendu berbera eman behar zaie. Horrela, etxebizitzaren alokairutik jasotako errentek ere tipo progresiboak ordaindu beharko dituzte, errenta guztiaren tamainaren arabera (%23tik hasi eta % 49raino)
-) Errenta gastu kenkarietan berriz, etxebizitza alokatzeagatik kenkariak ponderatu egin behar dira errenta txiki eta ertainen mesederako. Errenta mailak handitzen diren heinean etxebizitza alokatzeagatik kenkariak murriztu egingo dira.
-) Etxebizitza premiaren tratamendu fiskala birplanteatu egin behar da, alokairuaren kenkaria bultzatuz eta etxebizitza erosketaren kenkaria gradualki ezabatuz.

Bestalde, EH Bilduk finkatua du aspalditik alokairuen gehiegizko prezioei muga jartzea ezinbestekoa dela, inork ez lukeelako bere diru sarreraren %30a baino gehiago etxebizitza gastuei aurre egiteko erabili beharko, ezta diru sarreraren %15a baino gehiago egoera zaurgarrienetan aurkitzen direnen kasuan ere.

Proposamena argitze aldera, **Urteko Errenta oinarriaren maila €tan** jarri dugu, eta oinarri horrek lan errentak + aurrezki errentak batzen ditu.

1. Etxebizitza alokairua **ordaintzen** duten herritarren **kenkariak** egokitu eta ponderatzea errenta mailaren arabera. Horra proposamen zehatza eta aldagarria:

Urteko Errenta oinarriaren maila, €tan	Alokairua ordaintzeagatik kenkaria
16.030 €. arte	%35
16.030 eta 32.060 €. artean	%30
32.060 eta 48.090 €. artean	%25
48.090 eta 68.690 €. artean	%20
68.690 eta 95.150 €. artean	%15
95.150 eta 126.850 €. artean	%10
126.850 eta 184.950 €. artean	%5
184.950 €tik gora	%0

2. Alokairutik errenta **jasotzen** duten pertsonen zergaren tipo altuagoak eta progresiboagoak ordaintzea, errenta mailaren arabera. Aurrezkiaren errentak izaki, lan errenten tipo berdinak izango dituzte. Horra proposamena:

Urteko Errenta oinarriaren maila, €tan	Zerga tipo marginala
16.030 €. arte	%23
16.030 eta 32.060 €. artean	%28
32.060 eta 48.090 €. artean	%35
48.090 eta 68.690 €. artean	%40
68.690 eta 95.150 €. artean	%45
95.150 eta 126.850 €. artean	%46
126.850 eta 184.950 €. artean	%47
184.950 €tik gora	%49

3. Alokairu prezioen erreferentziazko indizeak finkatzen dituenean Eusko Jaurlaritzak, erreferentziazko indizeen gaintik dauden alokairuen jasotzaileek ez dute gastu kengarririk eta hobaririk izango. Gaintik dauden kasuetan ezingo dute zerga araudiaren 32. Artikulua aplikatu.

Aldiz, erreferentziazko indizeen azpitik dauden alokairuen jasotzaileak % 30eko gastu kengarriak aplikatu ahalko dituzte. Alokairu baxuen kasutan hobaria handituko da (hauxe dio egun indarrean dagoen 32. Artikuluak: "Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, higiezin

bakoitzeko lortutako etekin osoen % 20ko hobaria aplikatuko da"). Erreferentziazko indizeen berdinak diren alokairuen jasotzaileek %20ko gastu kengarriak aplikatu ahalko dituzte. Egun aplikatzen dituzten berberak.

4. Etxebizitza alokatzeagatik inork ez luke bere diru sarreraren %30a baino gehiago ordaindu beharko. Eta diru sarreraren %15a baino gehiago ere ez, egoera zaurgarrietasan aurkitzen diren pertsonen kasutan. Aipaturiko egoerak emango balira, laguntza bereziak jasotzeko eskubidea izango da.

b. EKARPEN LEGEA

DIAGNOSTIKOA

Lurralde Historikoen Legearen aplikazioaren ondorio zuzena da Ekarpen legea. Gure egitura instituzionalaren izaera dela eta Foru Aldundiak dira zerga sistemaren diru bilketa ahalmen nagusia dutenak eta Jaurlaritza eskumen nagusietan gastua egiteko ahalmena duena. Ekarpen legearen bidez euskal erakunde publikoen artean Ekonomia Ituna kudeatzetik eratorritako baliabideak banatzen dira, Kupoagatik Estatuari ordaindu zaion zenbatekoa kendu eta gero. Baliabide horiek banatzeko kontuan hartzen dira indarrean dagoen ordenamendu juridikoari jarraituz, erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru organoek dituzten eskumenak edota zerbitzuak.

Azkenengoz Ekarpen Legea onartu zen Finantzen Euskal Kontseiluan 2007an, eta 2011n epe muga bazuen ere oraindik indarrean dago. Bitartean 2016an Toki Erakundeek Legea onartu zen Legebiltzarrean, urte luzez haren beharren udal mailatik hainbatetan erreklamatu ondoren. Eta lege honen bidez Toki Erakundeek ordezkartza ere Finantzen Euskal Kontseiluan gauzatu zen, honek toki erakundeek izaera propioa eta autonomian duen garrantziarekin. Toki Erakundeek Legeak, EH Bilduk bultzatuta, eskatzen zuen erakunde maila ezberdinen eskumen propioa eta finantzaketari buruzko txostena egitea Ekarpen Legea egiteko oinarri moduan.

Tamalez, txostenak ondorioztatzen duena da instituzio guztiek indarrean dauden eskumenak garatzen dituztela era zuzenean eta horretarako finantzazio egokia dutela. Beraz, txosten honen arabera, gaur-gaurkoz ez dago arazorik. Eta hori, gure ustez ez da errealitateak erakusten diguna. Udalen bat kudeatzen egon den edonork badaki zein den egoera, zein den Aldundiek erabakitzen duten finantzazio banaketarekiko dagoen menpekotasuna eta nola urteroko zenbateko hori hain funtsezkoa den.

Ezin dugu ahaztu Aldundien artean dauden finantzazio arazoak eta nola, gaur-gaurkoz ez dagoen biztanleko finantzazio berdintasuna gure erkidegoan. Gauzak horrela 2019an gaude eta Ekarpen Lege berririk ez dago mahai gainean. Ez dago, Finantzen Euskal Kontseiluan ez dutelako adosten, nahiz eta alderdi bereko ordezkariak egon. EH Bilduk argi du Ekarpen lege berri bat behar dela gure erkidegoko maila instituzional guztiek (Jaurlaritzak, Aldundiek eta Toki Erakundeek) finantzaketa egokia dutela bermatze aldera.

Arabari dagokionez, nazio ikuspegi horretatik, Ekarpen Lege berria funtsezkoa da erakundeen finantzazio mailak zehazteko, lotura estua du toki erakundeen finantzazioarekin eta zerga politikak guztiz baldintzatuta dago. Alde horretatik, PNVren porrota erabatekoa bada, Arabako PNVrena ia esperpentotzat har daiteke. Ez dira epeak bete, ez EH Bildurekin hitzartutako epea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea izapidetu eta onartu zenean, ezta PNVk eta Urkulluren gobernuak euren buruari horren eskuzabalki ezarritakoa ere (PNV barruan akordio batera heltzeko, EH Bildurekin eta gainerako indar politikoekin negoziatu aurretik). Gaur-gaurkoz, argi baino argiago dago legealdi autonomikoa amaituko dela Ekarpen Legea berritu gabe, Arabako Toki Erakundeen finantzazio egokia (Kontzejuak, Udalak eta Kuadrillak) ziurtatzen ez duena.

Aipamen berezia merezi du EH Bilduk eta PNVk toki finantzazioaren beharren inguruan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen akordioaren baitan hitzartu zuten txostenak. Alde batetik, atzeratu egin zen txostenaren elaborazioa eta entrega, legean bertan ezarritakoa baino askoz gehiago, PNV barneko desadostasunengatik eta, bereziki, alderdi horrek uko egiten diolako legea aldatzeari. Hori gutxi balitz bezala, Arabari dagokionez, PNVk txostena erabili zuen Batzar Nagusietan hilabeteak eta hilabeteak atzeratzeko Toki Erakundeak Finantzatzeko Funttsaren erreforma aztertu behar zuen batzordearen lana. Eta zentzugabekeria kate horri amaiera emateko, txostenaren ondorioak guztiz etsigarriak izan ziren: jeltzaleen autokonplazentzia nagusi, txostenak adierazten zuen EAEko eta Arabako toki erakundeek finantzazio egokia dutela eta, jarrera ezin zinikoago batetik, horri gehitzen zitzaion, baldin-eta udal batek bere finantzazioa hobetu nahi baldin bazuen, bere baliabideetara jo behar zuela; hau da, bere herritarren gaineko presio fiskala handitu behar zuela.

Arabako EH Bilduk lanean jarraituko du Ekarpen Lege berria onartzeko bideari lehenbailehen ekin dakion. Beraz, Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu aurkez dezala dagokion lege proiektua, Araba kaltetzen duen egungo legearen gabeziak zuzenduko dituen, koefiziente horizontalean ekarpen eta baliabideen banaketa egoki bat planteatuta. Gainera, Ekarpen Lege berriak berrorekatu egin behar du baliabideen banaketa EAEko erakunde mailen artean, eta bermatu egin behar du Toki Erakundeen finantzazio egokia (Kontzejuak, Udalak eta Kuadrillak), laguntzen deialdi askotarikoen etengabea mende egon ez daitezen – alderdikeria nagusi baita hor–, eta aukera izan dezaten euren herritarrei kalitatezko zerbitzuak emateko.

11. FUNTZIO PUBLIKOA

Erakunde guztiek neurriak hartu behar dituzte enplegua sortu eta mantentzeko, eta Arabako Foru Aldundiak zeregin eta zeresan handia du alor horretan.

NEURRIAK:

- Arabako Foru Aldundiak hartu behar duen lehenengo neurria da kalitatezko enplegua sustatzea. LEP zabalak eta gardenak egin behar dira, gaur egun foru administrazioan horren handia den bitartekotasuna murrizteko.

- 1.200€-ko gutxieneko soldata ezarriko dugu sektore publiko osoan, azpikontratazioa barne.

- **Lanaldia murriztea**, 35 orduko lanaldia orokortzea, 32 orduen helburua betetzeari begira, eta **telelana** bultzatzea. Neurri horien bidez, erraztu egin nahi da foru langileen kontziliazioa, bai emakumeen ahalduntzea, bai gizonen erantzunkidetasuna zaintza lanetan indartzeko.

- Langileen ordezkariekin akordioetara heltzearren urratsak aztertzeke bidea indartzea, dagokion negoziazio alorrean. Nolanahi ere, negoziazio kolektiborako eskubidea bermatuko dugu sektore publikoan, “dekretazoak” baztertuta.

- EAEko Enplegu Publikoari buruzko Legea izapidetzeko prozesuan, bi lehentasun bete daitezzen lan egingo dugu: alde batetik, legea izan dadila sindikatuen eta erakundeen gogoetaren eta haien arteko akordioaren ondorio; bestetik, langileei lan baldintzak alde bakarretik ez inposatzeko konpromisoa (hau da, negoziazio kolektiboa bermatzea).

- **Zerbitzu publikoak** pribatizatzeko joera amaitzeko konpromisoa.

- Gaur egun pribatizatuta dauden zerbitzu publikoak aztertuko dira, berriro publiko egiteko helburuaz, aintzat harturik, beti ere langileen egoera babestuz.

- Konpromisoa hartzen dugu gizarte klausulak sartzeko **kontratazio publikoetan** (gizarte ikuspegia kontuan hartzen duten kontratazioak): dagokion arloko lan hitzarmena betetzea, ingurumena bermatzeko neurriak, hizkuntza irizpideak, berdintasuna bermatzeko urratsak, ezgaitasunak dituzten pertsonak lan merkatuan sartzeko konpromisoa, etab.

- Indarrean dauden kontratazio publiko guztiak aztertuko dira, eta gizarte klausulak/sozialki arduratsuak bete beharko dira kontratazio berrietan. Besteak beste, lan-erreforma ez aplikatzeko konpromisoa hartuko da.

- Obra publikoetako kontratazioetan horren ugari diren lan baldintza eskasak eta lan prekarietate egoerak errotik mozteko, bermatu egingo da prebentzio legearen aplikazioa, eta baliabideak ezarriko dira horretarako.

- Aldundiak ez du kontratatuko Berdintasun Legea betetzen ez duen, sexu-diskriminazioagatiko salaketak dituen edo berdintasun planik ez duen enpresarik. Aurreko guztia baldintza pleguen kontratazio klausuletan jasoko da.

- Beharrezko enplegu politikak garatuko dira dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat lanpostuak sortzeko, enplegu arruntaren modalitatean batez ere, eta pertsona horientzako erreserbak egingo dira lanpostuen zerrenda publikoetan. Gainera, funtzio publikora itzuliko dira hainbat zerbitzu: garbiketa, lorezaintza, ikuztegia, etab.. Era berean, zentro berezietako langileen lan baldintzak ere aztertuko dira, sektorearentzat lan hitzarmen bat lortzeko helburuari begira.

- Ez da inolaz ere kontratatuko aldi baterako laneko enpresarik (ABLE) eta konpromisoa hartuko da harreman ekonomikoak eteteko ABLEak kontratatzen dituzten enpresekin.

- Kalitatezko enplegua bultzatu eta lan baldintzen prekarizazioari aurre egiteko, konpromisoa hartzen dugu ez erabiltzeko ez praktiken modalitatea, ezta prestakuntza eta ikasketarena ere. Horien ordez, berezko lantalde bat osatuko da, beharretara egokitua.

- Obra publiko guztien jarraipen egokia egingo da, azpikontratazioari buruzko 32/2006 legea betez, azpikontratazio katea kontrolatzeko helburuaz.

- Protokolo bat adostuko da sindikatuekin obra publikoetan gertatzen diren lan istripu larri edo oso larrietarako, eta istripuan hildakorik izanez gero, administrazioa akusazio partikularra izango da.

12. GOBERNANTZA

DIAGNOSTIKOA

Ordezkaritza-botere publikoen jardunaren kontrolaren inguruan, herritarren erantzukizuna berreskuratu behar da. “Arlo publikoan” parte hartzeaz harro egon behar dugu eta atsegin handiz gauzatu, alderdi publikoei dagokienez ere (gure ongizatea horien mende dago), gure bizitzaren eraikitzaile zuzen eta arduratsuak izatea lortzeko.

Gardentasunaren izenean ekimenak ugaritu diren arren, benetako neurri eta aldaketarik ez da eman trantsiziotik jaso dugun egituraketa administratibo tradizionala bezain zaharkituetan. Gardentasun ezaren egituraketa administratiboak ditugu eta euren kudeaketak herritarren esku-hartze aukerarik ez dute ematen.

Hala ere Euskal Herrian zein Araban, sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana”, “vereda”, eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketa, ekimen soziala eta elkarrekin egindako lanaren bidez herrigintza egitea. Mugimendu eta elkarte sare handi, errotu eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore eta praktika hauen baitan kokatzen da, herri proiektu batek jaso zein sakondu beharreko eguneroko demokrazia sare horietan.

Ustelkeria erakunde-arloko tolerantziazko giro batean geratu da, behin eta berriz zigorrik jasotzen ez den eta isiltasunaren lege hitzartuaren testuinguruan, non interes ekonomikoek eragiten duten eta kontrol publikoa eta monitorizazio soziala lortzeko mekanismoek huts egiten duten.

Araban Espainiako ustelkeriaren tsunamitik urrundu ez garen arren, ustelkeria demokratikoa -lege itxurakoa- dagoela aipatu behar dugu, austeritatearen doktrinapean gizarte-zerbitzuak degradatzen dituen, publikoa dena pribatu bihurtzen duen, bizitzaren kostua garestitzen duen eta hainbat urtetan borroka eginez lortutako gizarte-eskubideak merkaturatzen dituen ustelkeria, hain zuzen ere.

HELBURU OROKORRA

Zaila da gardentasuna eta kultura partizipatiboa indartzen duten prozedura ondo ezagutzea. Zaila da, era berean, Araban eta Euskal Herrian gauzatzen diren prozesuen arteko trukea gauzatzea. Ez dago jardunbide guztien sistematizaziorik zentzu horretan. Horregatik, jendarte-autonomian, herri-autokudeaketan eta erradikaltasun demokratikoan oinarritutako jardunbide guztiak bildu, partekatu eta indartzen lagunduko diguten esparruak eta tresnak behar ditugu.

Gure erakundeek jendartearen berdintasuneko, justiziako eta askatasuneko zenbait helburu/eskaera/eskubideri erantzuna emango diete. Eskaera/eskubide hauek gauzatzeko ezinbestekoa da botere publikoen eta herritarren edo jendarte zibilaren arteko benetako harreman bat sustatzen eta babesten duen erakunde-garapeneko esparru bat, jendarte zibilak gobernu- eta legegintza-jardunetan inplikazio zuzena izan dezan.

Administrazio publikoek hizkuntza zuzena eta erraza erabili behar dute, teknizismorik gabekoa, herritarrek, arazo erantsirik gabe, administrazioarekin elkar eragiteko aukera izan dezaten. Gainera, sortzen den informazioa unean-unean eta modu eskuragarrian eskaini beharko da, herritarrek informazio egokia izan dezaten, egiten diren kudeaketa eta inbertsioen inguruan.

Kargu politikoak eta Foru Gobernuari izendapen librearen bidez atxikitakoak herritarren zerbitzura dauden pertsonak direnez, gastu publikoa modu zorrotz eta gardenean kudeatzea ahalbidetzen duten neurriak hartuko dira.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Arlo publikoaren kudeaketa eredu kalitatezkoa, gertukoa, herritarren parte-hartzean, lankidetzan, gardentasunean eta kontu-ematean oinarritzen dena sustatzea.

-)] Administrazio publikoen berregituraketari buruzko eztabaida-prozesuak irekitzea, administrazioak irekiagoak eta sendagoak, herritarren zerbitzurakoak eta parte-hartze sozialean oinarritutakoak izan daitezen. Era berean, oinarritzko zerbitzuak deszentralizatzea eskualdeetan/auzoetan, zerbitzu publikoak hurbiltzeko eta horien berri emateko helburuarekin.
-)] Gardentasun eta Parte-Hartzeari buruzko Foru Araua berrikustea. EH Bilduren ustez bi foru desberdin izan behar dira, eta, hortaz, egungo foru araua bitan banatu behar dela.
-)] Isilpekotasun klausulak dituzten kontratuak legediak soilik behartzen dituen kasuetara mugatzeko konpromisoa, Foru Administrazioaren jarduerako gardentasuna eta hurbiltasuna areagotzeko.
-)] Jardunbide Onaren eta Ustelkeriaren Kontrako Foru Bulegoa sortuko dugu, Foru Aldundiaren eta bere menpeko organismo autonomoen zein enpresa publikoen jardueraren gaineko barne kontrolak areagotzeko eta herritarren zein gizarte eragileen kexak eta salaketak jasotzeko.
-)] Agente eta eragile sozio-ekonomiko desberdinekin erakundeen eta herritarren artean informazioa trukatzeko bideak, guneak eta esparruak adostea, baita herritarrek arlo publikoari lotutako erabaki-hartzean eta plan eta programa garrantzitsuen betearazpenaren jarraipenean parte hartzeko ere.
-)] Herritar guztiek ulertzeko moduko informazio erraza eskaintzea (gastu eta aurrekontu publikoak, diru-laguntzak, proiektu handiak eta abar), teknizismoak alde batera utziz, beharrezkoak diren bide guztiak erabiliz baztertuen dauden kolektiboetara iristeko. Era berean, prozesu administratiboan

desburokratizazioa martxan jartzea, herritarrentzat ulergarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezen.

-)] Udaletako lan-batzordeak eta erakundeak herritarrentzat irekitzea, era horretan eztabaida instituzionala eskuragarriagoa bihurtuz, eta sailen arteko taldeak sortuz herritarren beharrezaneiei soluzio integral eta holistikoak eskaintzeko, erantzun partzialetatik urrunduz.
-)] Kargu publiko eta izendapen libreko kargu guztientzat jokabide-kodeak diseinatzea / martxan jartzea, honako hauek bermatzeko: soldatak egokitzea errealitate sozialarekin bat etorritik, pribilegioak ezabatzea eta euren zereginak sortutako beharrezanekin soilik eta eskusiboki bat datozen konpentsazioak egokitzea; baita erabaki-hartze eta gastu publiko zorrotzak ere.
-)] Foru-zorrei buruzko auditoria sozial eta ekonomikoak egitea eragile eta agente sozialen parte-hartzearekin.
-)] IKTei arreta berezia jarri eta administrazioa gerturatu eta erabil errazagoa egiteko mekanismoak jarriko ditugu, zurruntasunarekin eta burokratizazioarekin amaitze aldera.

13. NEKAZARITZA

DIAGNOSTIKOA

Lehen sektorea Arabako jarduera nagusia da, pertsonen errentan duen pisu ekonomikoagatik baino gehiago, lurraldearen kudeaketan (mendiak, ibaiak eta lurra bera barne) duen eraginagatik eta, batez ere, elikagaien ekoizpenean duen garrantziagatik. Azken batean, EH Bilduk apustu egiten du lurralde bizi baten alde, herri bizien alde, helburua izanik lurraldearen garapen iraunkorra eta elikagai osasungarrien ekoizpen agroekologikoa.

Nolanahi ere, ezinezkoa da lehen sektore bizi bat edukitzea landa eremu aktiborik ez badago, aukera emango diona pertsoneri herri txikietan lan egin eta bizitzeko.

Azken 40 urteetako nekazaritza ereduak egoera kezkarri batean utzi gaitu, eta etorkizuna zalantzarik dator. Sektore gero eta maskulinoagoa eta zaharragoa, lur hektareak metatuz doazen ekoizleek osatua, modu intentsiboan nekazaritza industriarako lehengaiak sortzen dituztenak. Gazteak herrietara lan aukera gisa erakartzeko gai ez den sektorea, alternatibarik eskaintzen ez duena.

Egungo ereduak laguntzen mende bizitzera kondenatua dago, eta oso etorkizun zalantzarria du. Politika ausartak eta eraginkorrak behar dira, inoiz baino gehiago, produktuen ekoizpena, eraldaketa eta salmenta bultzatuko dituztenak hurbileko merkatuetan. Parametro agroekologikoen pean egongo den ekoizpena, aliantzak ezarri lehen sektoreko profesionalen eta hirietako gizartearen artean, mesede egingo diona lurraldeari eta tokiko produktu osasungarri eta agroekologikoak kontsumitzen dituzten pertsonen osasunari.

Trantsizio agroekologikoak berme izan daitezke –eta izan behar dira– sektore independente, errentagarri eta multifuntzional baten aldeko apustuan, landa eremuan egiten duen lanaren ordaina jasoko duen sektorea.

Nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra sortzea eta garatzea

2015-2019 legegintzaldian, bi mozio aurkeztu genituen, aho batez onartu zirenak. Lehenengoan, haxe onartu zen:

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko apirilaren 13ko osoko bilkuran, mozio hau onartu zuten: 27/2016 mozioa, apirilaren 13koa, tokiko elikagai osasungarri eta ekologikoak sustatzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek premiaz eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari sail arteko talde bat sor dezala, bertako elikagai ekologikoak ahalik eta gehien zabaltzeko xedez, bi helbururekin: alde batetik, alor honetako bertako eta Europako araudia aztertzea, tokiko elikagai osasungarri edo

ekologikoek ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten; bestetik, otsailaren 11ko 5/2015 Foru Araua garatzea, foru-sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeari buruzkoa.

2. Arabako Batzar Nagusiek premiaz eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari bultzada eman diezaiela Arabako nekazaritzako elikagaiei hurbileko produktuen azoka eta elikagai-merkatuetan, baita bultzatzen dituen jarduera gastronomikoetan ere, enplegua sortzeko eta nekazaritza-sektorea mantentzeko.

Ondoren, beste mozio bat onartu zen, aho batez, Araban nekazaritzako elikagaien estrategia bat sortzeari buruzkoa. Hona hemen hitzez hitz:

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko urtarrilaren 24ko osoko bilkuran, mozio hau onartu zuten: 8/2018 mozioa, urtarrilaren 24koa, nekazaritzako elikagaien lurralde-estrategia iraunkor bat sortzeari buruzkoa.

*Arabako Batzar Nagusiek premiaz eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari **oinarriak aurkez ditzala**, 2018ko uda baino lehen, **nekazaritzako elikagaien lurralde-estrategia iraunkor bat sortzeko, eta estrategia hori garatzeko prozesu parte-hartzaile baten metodologia**, sektorean zeresana duten agenteen eta elkarteen parte-hartze aktiboa bermatuta, eta kontuan harturik kontsumitzaileen eta ekoizleen elkarteak, landa-garapenerako elkarteak, toki-erakundeak eta hala nahi duten alderdi politikoak.*

Lehenengo mozioari dagokionez, 2 edo 3 bilera egin ziren, eta tokiko elikagairen bat sartu zen foru jangeletako dietetan, baina urruti gelditu ginen hasierako helburutik: hots, sail arteko talde bat sortzea, tokiko produktu ekologikoak sartzea ahalbidetuko zuten pleguak idazteko. Kontuan izan behar da Aldundiaren ardurapean dauden jangeletan 5.000 bazkari baino gehiago prestatzen direla egunero.

Arabako estrategia agroalimentarioa sortzeko mozioari dagokionez, ez da urrats bakar bat ere egin. Ez da borondate politikorik egon abiarazteko.

Legealdi honetan, lan bat aurkeztu da trantsizio agroekologikoei buruz, garatzeko moduko arrasto interesgarriak ematen dituen.

Azkenik, gogoratu behar da Gasteizko Udalean martxan jarri dela estrategia agroalimentario jasangarria, hainbat kolektibok bultzatutako prozesu baten ondoren. Geroago, Ingurumen Azterlanen Zentroak gidatutako prozesu parte-hartzaile bat egin zen, eta *Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren 2017-2025 Udal Ekintza Plana* izeneko dokumentua argitaratu zen. Dena dela, oraingoz ez da garatu, ezta gizarteratu ere (helburua hori bazen ere).

ARABAKO 2020-2030 ESTRATEGIA AGROALIMENTARIOA

ARABAKO LURRALDEAREN ELIKADURA AUTOSUFIZIENTZARANTZ

Testuingurua:

Arabak baldintza ezin hobeak ditu era honetako estrategia bat garatzeko. Azaleraren % 32 nekazaritza lurra da, % 62 ingurune naturalak, % 5 eremu urbanizatuak eta % 1 ur-masak. Gainera, Arabako Kuadrilla gehienak landa eremuak dira, lehen sektoreari eta nekazaritza zein abeltzaintza jardueri lotuak. Hots, baldintza egokiak ditugu toki estrategia baten bidez ekoizpen zirkuitu laburrak, transformazioa, merkaturatzea eta kontsumoa sustatzeko. Helburuak lirateke:

-)] Nekazaritza eta abeltzaintzaren ekoizpena eta dibertsifikazioa bultzatzea eta lehen sektorearen baldintzak duintzea.
-)] Elikagai osasungarriak ekoiztea herritarrentzat eta ohitura osasuntsuak sustatzea.
-)] Aztarna ekologikoa murriztea, garraioaren energia-kontsumoa txikituta.
-)] Gizarte trazabilitatea eta merkataritza harreman bidezkoagoak bultzatzea.
-)] Toki garapena, jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzea.
-)] Lurralde desorekari aurre egitea eta landa eremuaren despopulazioa gelditzea.
-)] Lehen sektorearen multifuntzionaltasuna aitortzea lurraldearen kudeatzaile nagusi gisa.
-)] Sektorearen autonomia indartzea, errenta eta lan baldintza duinekin.

Helburu orokor horiez gainera, ibilbide-orri bat egin nahi dugu 2030ean Araba elikadura ikuspegitik bere burua aski izango duen lurraldea izan dadin. Hau da, lurraldean ekoiztutako produktuak izatea arabarrek gehien kontsumituko dituztenak. Jakina, elikagai guztiak ezingo lirateke bertakoak izan, % 25-30 gutxi gorabehera (zenbait fruta, arraina...), baina gainerako guztia bai (% 70). Hortaz, proposatzen ditugun neurriak dira:

- Ibilbide-orri bat egitea Arabaren **elikadura autosufizientzia lortzeko 2030ean** (edo ahalik eta autosufizientziarik handiena).
- Plan estrategiko bat egitea 2020-2030 urteetarako.
- Azpisail bat sortzea AFaren Nekazaritza Sailean Arabako estrategia agroalimentarioa garatzeko.
- Sail arteko lantalde bat sortzea tokiko produktu freskoak, osasungarriak eta ekologikoak bultzatuko dituzten elikagaien kontratazio-pleguak egiteko.
- Sentsibilizazio eta komunikazio neurriak hartzea toki produktuen ekoizpena eta kontsumoa indartzeko.
- Tokiko produktu osasungarriak sartzea foru jangeletan. Bigarren fase batean, beste jangela publiko eta pribatu batzuetan sartuko lirateke produktu horiek.

- Elikagaiak eraldatzeko zentroak (EEZ) indartzea.
 - o Lautadako EEZren 2. fasea
 - o EEZ Mendialdea
 - o EEZ Añana, Tuestako Dehesa industrialdean, Gatz Haraneko gatz eraldatzeko zentro batekin batera.
- Araudiak malgutzea eta egokitzea elikagaien eraldaketa eta estrategia agroalimentario bera errazteko.
- Sareak edo kooperatibak bultzatzea toki produktuak banatu eta merkaturatzeko. Aliantza eraginkorrak sortzea toki merkataritzaren eta ekoizleen artean bertako produktu osasungarriak ateratzeko merkatura, ekoizleentzat eta kontsumitzaileentzat bidezkoak izango diren prezioetan.
- Trantsizio agroekologikoak bultzatzea, aholkuak eta laguntza indibidualizatua emanez horren aldeko apustua egiten dutenei, lehenengo urteetan bizi-kalitatearen edo errentaren balizko galera saihesteko. Horretarako, **Eskalmendi** indartuko dugu, trantsizio hori erraztuko duen prestakuntza, berrikuntza eta dinamizaziorako zentro gisa.
- Ekonomia zirkularra eta haren aukerak indartzea, etxaldeetako hondakin organikoen behin betiko irtenbide gisa, nekazaritza lurretan baliabide organiko bihurtu eta ongarri gisa erabiltzeko. Hondakin tratamendu hau aukera puntual bat izan daiteke lehen sektoretik bizi diren pertsonentzat, baita hondakin horien kudeaketa eta aprobetxamendu ekonomikoa egiten bada ere.

BESTELAKO NEURRIAK

- **Aholkularitza** indibidualizatua, glifosatoa, pestizidak eta nitrato kimikoak baztertuko dituzten alternatiba bideragarriak bilatzeko, gero eta zorrotzagoak diren Europako araudiak betetze aldera.
- **Lurren banku publikoa**. Lur erabilgarriei eta luberri publikoei buruzko azterlan bat egitea, hutsik dauden etxeei loturikoak, herrietara familiak erakartzeko, elikagaiak ekoitzi eta saltzeko eta lurra bera ikuspegi jasangarri batetik mantentzeko.
- **Laguntzei lotutako neurri zehatzak**. Helburu hauetarako:
 - o Profesionalei sektorean sartzen laguntzea.
 - o Emakumeei laguntzea ekoizpen sektorean eta sektorearen inguruko egituretan eta antolakundeetan parte hartzen.
 - o Herrietan bizi eta lan egin nahi duten gazteei laguntzea.

Emakumeen estatutuaren aplikazioa bermatzea eta aholkularitza eskaintzea lehen sektoreko kooperatiba, sindikatu eta elkarteei, emakumeen parte-hartze aktiboa erabaki-organoetan susta dezaten.

- **Sentsibilizazio aktiboko** kanpainak, landa eremuan bizi eta lan egiten duten pertsonen lana eta ekarpena ezagutarazteko.
- Burokrazia **erraztea** eta prestakuntza arautua eskaintzea sektoreari, autonomia izan dezan etorkizuneko aukera berrien aurrean.
- **Prestakuntza** lurralde osoko **eskoletan**, landa eremua, lehen sektorea eta elikadurari loturiko gaiak gizarteratzeko. Martxan jartzea gizartearen eta landa eremuaren arteko kontratu bat, elkarren sentsibilizaziorako.
- **Jatorri-izen berria Arabako Errioxarentzat**, familia-upategi txikiei laguntzeko aurre egiten ardoaren sektorearen industrializazioari eta deslokalizazioari.
 - o Gero eta globalagoa den mundu batean, Arabako Errioxako ardoak argi bereiztearen alde gaude, eta ardoaren sektoreak gidatuko duen eredu propio baten alde, Arabako familia-upategi txikien betiko ereduaren etorkizuna eta biziraupena bermatzeko. Apustu egin behar da kalitatearen eta produktuaren trazabilitatearen alde, ardoak identifikatu eta bereizteko lurraren, kokapenaren, elaborazioaren eta mahatsaren zein ardoen ezaugarrien arabera.
 - o Eredu hori bultzatzeko, sektoreak zer dioten entzun behar da, eta estrategia eta neurri berriak saiatu. Alde horretatik, uste dugu jatorri-izen berria sortzea mesedegarri izango dela sektoreak berak kontrolatutako eredu bat ezartzeko, Arabako Errioxaren garapen sozioekonomikoari begira. Garapen jasangarriagoa, ingurune naturalarekiko nahiz paisaiarekiko; sozialagoa eta integralagoa; eskualdearen eta bertako herrien nortasuna errespetatu eta sendotuko duena, baita haren kultura eta ondare historiko, artistiko eta arkitektonikoa ere; eta herri horietako jendearen, gizarte eragileen eta gizarte osoaren ahalduztze eta partaidetza handiagoa, Arabako Errioxan bizi eta lan egiteko apustua egiten dutenak.

- o Sektorearen egoera desberdinez eta bide berri bat urratzeak sortzen dituen zalantzez jakitun, EH Bilduk babesa eta laguntza eskainiko dio ardoaren sektore guztiari, egingo den aukera gorabehera.

) Bultzada **Arabako Txakolina** jatorri-izenari eta Arabako txakolinari. Aiaraldeko txakolina sustatzeko eta garatzeko plan bat proposatzen dugu.

) **Frutagintza** sustatzea lehen sektoreko alternatiba gisa.

- o Sagarraren eta sagardoaren plan estrategikoa abiaraziko dugu.
- o Olibondoaren eta oliba-olioaren plan estrategikoa abiaraziko dugu Arabako Errioxan.
- o Arabako frutaren ikerketa, ekoizpena eta eraldaketa indartuko dugu.
- o Antzinako tokiko barietateen berreskurapena bultzatuko dugu.

• **Basogintzari** dagokionez, teknikari gehiago mendien kudeaketarako, arreta berezia jarrita mendien biodibertsitatearen bilaketan eta baso sektoreari kalte galerak dakarzkieten gaixotasunen prebentzioan. Plan estrategikoa bat behar da mendi publikoen eta pribatuen kudeaketa jasangarri, koordinatu eta gardenerako, etorkizuneko krisiak saihestu eta biodibertsitatea mantentzeko.

• Lehen sektoreari laguntzeko zeharkako eta sail arteko politikak sartzeari **despopulazioaren aurkako eta lurralde orekaren aldeko estrategian**, landa eremuan bizitzeak dakartzan disfuntzioak kontuan hartuko dituztenak, landa eremuan enplegua sustatzeko araudiak egokituz eta eguneratuz.

• **Ekonomia zirkularra** bultzatzeko neurri zehatzak hartzea, hondakinak kudeatzeko eta gizarte, ingurumen eta ekonomia errentagarritasuna lortzeko aukera gisa lehen sektorearentzat.

) Bultzada **ureztatze-sistema iraunkor** bati.

- o Dibertsifikazioari, beste ekoizpen alternatiba batzuei eta strategiari agroalimentarioari lotua.
- o Barrongo urtegi gaindimentsionatuaren aurka gaude. Beste alternatiba batzuk aztertzea proposatzen dugu, baltsen bidez, Arabako beste lekuetan bezala.

) **Gizarte pedagogia eta inplikazioa**. Nekazaritzaren etorkizuna ez da soilik sektorearen kontu bat, gizarte osoari dagokion gai bat baizik. Lehen sektoreak, arabarrontzat elikagai osasungarriak ekoizteaz gainera, lurraldea, paisaiak eta herriak bizirik mantentzen laguntzen du. Beraz, sektorearen etorkizunarekiko erantzukizuna eta interesa gizarte osora zabaldu behar dira, eta beharrezkoak dira haren inplikazioa eta parte hartzea, gizarte pedagogiaren bidez.

14. MUGIKORTASUNA ETA BIDE AZPIEGITURAK

a. FORU GARRAIOA

DIAGNOSTIKOA

Legealdiko proiektu izarra izan behar zena, “Eskualde Garraio” eredu berria (horren gutxi erabiltzen den “Eskariaren arabera garraio” eredu mugatua ordeztu behar zuena), landa gunetik txikiak elkarren artean eta gunetik txikiak eskualdeetako herri nagusiekin lotzeko, eta herri txikiak autobus linea erregularrekin, ez da funtzionatzen hasiko –kasurik onenean– ekainera arte, eta, gaur-gaurkoz, Arabako leku askotan (Lautadan eta Gortealdearen eremu handi batean), alferrikako bi saioen ondoren, ez da ezta adjudikaziorik ere egin, eta oso litekeena da zerbitzurik ez izatea gutxienez 2020ra arte.

Linea erregularrei dagokienez, egia da legealdi honetan berrantolatu eta berregokitu egin direla, horrek bidaiari-kopurua handitu duela eta oro har ondo baloratua izan dela, nahiz eta aldeak izan linea batzuetatik besteetara. Hala eta guztiz ere, bere horretan jarraitzen du Bizkaia-eremuko auziak, erabakitzeke nori dagokion Gasteiz-Bilbo linearen ordenazioa (maiztasunak ezartzea, ibilbideak eta geltokiak), eta horren ondorioetako bat da egungo emakidadunak Gasteiz barruan duen geltoki kopuru gehiegizkoa, TUVISAren geltokiak parasitatu eta autobus handien trafikoa handia sortzen duen puntako orduetan hiri erdian. Gainera, *kutsadura efektuz*, Aldundiak berak baimena eman du Gasteizen tarteko geltokiak ezartzeko bere lineetan, inolako zentzurik ez dutena mugikortasun jasangarri, ordenatu eta intermodalaren ikuspegitik.

Bestetik, kexa asko daude oraindik herrietako geltokien egoerari buruz eta Aldundiak ez dauka plangintza serio eta zorrotzik konponketa lan horiek egiteko. Lanak egiten dira dagokion kontzeju edo udalaren baliabide ekonomikoaren arabera, presio mediatikoa edo politikoa egiteko duen ahalmenaren arabera edota zuzenean alkatetzaren kolore politikoaren arabera.

Arabako Garraio Agintaritzak bide erdian gelditu den beste proiektu bat izan da: ofizialki sortua, baina partida txiki batez hornitua (10.000€/urte), ez dauka inolako dinamizarik eta PSEren “loriarako” (txikia bada ere) sortutako apaingarri hutsa da.

Nabarmenezkoa da ere ADIFen erabateko utzikeria Arabako trenbide sarean (Miranda-Urdña tartean, bereziki), arazo larriagoa bihurtu dena Ramiro Gonzalezen gobernuak gai honetan izan duen

axolagabekeria eta pasibitateagatik. Miranda-Gasteiz-Altsasu AHT linea da gobernuaren alternatiba trenbidearen alorrean, Lautada osoan ingurumen, gizarte eta ekonomia ondorio oso txarrak izango dituen.

Azkenik, Bizikleta Bideen eta Bide Berdeen Arloko Lurralde Planaren tramitazioak (2018ko udaberrian amaitu behar zen) ez du hasierako onarpenik ere izan, foru gobernuaren zabarkeriagatik, eta, bide berriak egin baldin badira, martxan zeuden proiektuetan aurreikusita zeudelako izan da (Nerbioiko Parke Lineala, Vasco-Navarro Ibilbidearen Berreskurapena). Gainera, gaur-gaurkoz ez dago planteamendu seriorik bizikletaren erabilera aisialdi edo kirolek harago bultzatzeko hiriguneen arteko ibilbideetan.

HELBURUAK

-)] Herritar guztien irisgarritasun unibertsala, segurtasunez eta erosotasunez, ahalbidetuko duen mugikortasuna. Beraz, ezinbestekoa da tarifen progresibitatea.
-)] Mugikortasun jasangarria, aztarna ekologikoa txikitu, ingurumen inpaktuak minimizatu eta ingurune naturalaren okupazioa eta artifizializazioa ahalik eta gehien murriztuko dituen.
-)] Mugikortasun intermodala, garraiobide kolektiboak egoki konbinatu eta ibilgailu pribatuaren erabilera eraginkorki murriztuko duena.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

-)] “Eskualde Garraioa” jarri nahi dugu martxan, epe labur batean, eta egitasmo horren ebaluazio zorrotza egin 2022an, neurri zuzentzaileak hartzeko, hala badagokio. Oraindik eman gabe dauden loteei dagokienez, uste dugu ahaleginak biderkatu behar direla horiek adjudikatzeko, eremu horietako langabeentzako lan planak barne (lan irteera modura interesatuta egonez gero).
-)] Arabako herrietako geltokietarako 2019-2023 Inbertsio Plan bat planteatzen dugu, irizpide objektiboetan eta plangintza zorrotz batean oinarritua, detektatutako premia eta gabeziei irtenbide bat emango diona.
-)] Autobus-linea erregularrek Gasteizen dituzten tarteko geltokien birplanteamendu serio baten alde gaude, hiri barneko trafikoa txikitzeko eta linea horien zerbitzua hobetzeko (batzuetan arrazoi horrengatik lehiakortasuna galtzen dute), Gasteizko Udalarekin elkarlanean eta intermodalitatean oinarritutako neurriak hartuta, erabiltzaileek gehiago ordaindu gabe.
-)] Apustu sendoa egingo dugu Arabako Garraio Agintaritzaren alde, egiazki bete ditzan Arabako lurreko garraioko operadore publikoen eta pribatuen zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak.
-)] Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu eska dezala Arabako trenbideen transferentzia, trenbide horien ardura gure erakundeetara transferitzeko eta Arabako aldiriko zerbitzua biziberritzeko behar diren inbertsioak egiteko, egiazko Tren Soziala bultzatu eta behin betiko baztertzeko Arabako diseinatu diren AHT proiektu berriak. Gainera, Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu ere aprobeitza dezala Espainiako Estatuan gauzatzearen trenbide trafikoaren liberalizazioa Eusko Treneen zerbitzua Arabara zabaltzeko.

- J Konpromisoa hartzen dugu Bizikleta Bideen eta Bide Berdeen Arloko Lurralde Plana onartzeko 2020ko uda baino lehen, eta esperientzia pilotuak sartzeko plan horretan, hiriguneak konektatzeko bizikleta bide seguruen bidez eta bizikletaren erabilera sustatzeko eguneroko garraio modu gisa.

b. ARABATRAN

Mcrit aholku-etxeak eta Bartzelonako Aula d'Ecologiak egungo Miranda-Gasteiz-Altsasu trenbide-ardatzaren aprobetxamenduaren inguruan eginiko azterlana aurkeztu ondoren, argi gelditu da asko hobetu daitekeela ardatz hori eta aukera emango lukeela horrek gure lurraldearen zati handi baten mugikortasuna hobetzeko, ingurumen eta ekonomia ikuspegitik garraio kolektibo eta jasangarri baten bitartez. Alde horretatik, garrantzi berezia dute azterlan horren 2. alternatiban jasotako neurriek. Alternatiba hori pixkanaka-pixkanaka aplikatu daiteke, epe laburrean eta faseetan, eta ez du inbertsio handirik eskatzen. Horren bidez, osatu egingo lirateke Aldundiaren egungo autobus lineak, baita trenbide zerbitzua ere. Gainera, azterlan bereko 1. alternatiban, trenbide ardatz hori osoki eraberritzea proposatzen da, Araban planteatu diren eta eztabaida eta alegazio fasean dauden beste trenbide makroproiektu batzuen baimo inbertsio askoz txikiagoarekin (gure lurraldearen ingurumenarentzat eta gizarte eta ekonomia orekarentzat askoz kaltegarriagoak diren proiektuak). Azkenik, kontuan izanik azterlanak izan duen harrera ona, bai eragile politiko eta sozialen artean, bai erakundeetako ordezkarien artean (Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako diputatua barne), egoera ezin hobean gaude trenbide korridore horren egoera hobetzeko.

Azken batean, azterlanak agerian uzten du proiektua errentagarri izan daitekeela sozialki nahiz ekonomikoki, ikuspuntu guztietatik: lurraldea kohesionatzen lagun dezake, udalerrri txikiaren presentzia indartuz; maiztasunak hobetzen ditu (gaur egun bost orduko hutsuneak ere daude kasu batzuetan); operadoreen arteko gainezarpenak saihesten ditu; esku-hartze txikiagoa du zerbitzuen kudeaketan; bideragarriak diruditen erakundearen arteko akordioak behar ditu, denon mesederako baita.

Azterlanaren beraren arabera, alternatiba hau faseka ezar daiteke, inbertsio txikiago batekin. Horrela, epe laburrean, soilik egin beharko litzateke billete guztien prezioa harmonizatu, Gasteizen gero berri bat eraiki, Zabalzana eta Jundiz artatzeko, eta autobus zerbitzuen bitartez egungo tren defizitei aurre egin. Gainera, eskaripeko geldialdiak egitea ere proposatzen da gutxien erabiltzen diren geltokietan; hau da, bidaiariren batek eskatuz gero bakarrik geldituko litzateke trena. Alternatiba honen inbertsio guztizkoa bi milioi eurokoa gutxi gorabehera litzateke urtean, eta 400.000 euro/urte inguruko ustiapen kostua izango luke. Epe ertainean, 6,4 milioi euro/urteko inbertsio gehigarri batekin eta tren bat erosituz, autobus bidezko errefortzua ordeztuko litzateke.

Datu horiek eskuan, EH Bilduk proposatzen du elkarriketak hastea ADIFekin eta beharrezko azterlanak egitea lau oinarritzko ardatz izango dituen plan bat edukitzeko uda aurretik: tarifa bakarra,

Zabalganako geraleku berria, eskaripeko geldialdiak eta autobus errefortzuak. Azken kasu horretan, bost maiztasun gehigarri beharko lirateke Miranda eta Gasteiz artean, eta beste hiru, Altsasu eta Gasteiz artean.

RENFEk Espainiako Estatuko eskari txikiko 80 bat geltokitan aplikatzen du jada eskaripeko geldialdien sistema. Geldialdi gehigarri bakoitzeko denbora-kostua minutu batekoa izango da; beraz, 3 minutu gehien jota Miranda-Gasteiz zatian kasurik okerreanean.

b. BIDE AZPIEGITURAK

i. PICA ETA ERREPIDEEN FORU ARAUA

PICA berriaren hasierako eztabaida ireki zenean EH Bilduk apustu argia egin zuen modu positiboan ekarpenak egiteko bi norabidetan: batetik, PICAren *“oinarri ideologikoa”* deitu ditzakegunei dagokienez, hots, PICA berriaren norabide estrategikoa zehatzen duten oinarritzko planteamendu teorikoak aldatzeko eta gizarte aurrerakoi, parte-hartzaile, moderno eta ekologiko batek eskatzen eta behar duenaren parean jartzearren datozen urteetako errepide politika; bestetik, proiektu batzuen gauzapenari dagokionez: batzuetan aurreikusitako proiektu batzuk ezabatzea proposatuz eta beste proiektu batzuen gauzapena aurreratuz, baita proiektu berriak plazaratuz ere. Horretarako, Ramiro Gonzalezen gobernuarekin akordioa bilatu genuen, eta ildo horretatik, besteak beste, hainbat alegazio aurkeztu genituen aurreko planteamendu horiek guztiak azaltzeko eta akordio horretarako bide-orria marrazteko. Tamalez, foru gobernuak alegazio gehienak ez zituen aintzat hartu, ez zuen ahalbidetu foru arau honen izapidetzean inolako eremurik EH Bildurekin akordio hori bideratzeko eta egungo 20/1990 foru arau zaharkituak ematen dion abantaila burokratikoaz baliatuta dena utzi du osoko eztabaida baten baitan.

Laburbilduz, eta PICA hau sostengatzen duen marko teoriko horri dagokionez, hainbatetan entzun diogu diputatuari PICA hau *“kontinuista”* dela, hori nolabaiteko meritua izango balitz bezala, eta aurreko PICA 2008tik aurrerako krisi sistemikoaren ondorioz egin ezin izan ziren azpiegiturei erreferentzia eginez. Jakina, hori esaten denean ahaztu egiten da/ahaztu nahi da krisi horren sakoneko erroetariko bat izan zela azpiegitura handi, ertain eta txikietako porlanarekiko menpekotasun suizida eta miresmen eroa. Horrexegatik, gure alegazioetan aldarrikatzen genuen Bide Azpiegituren politikak garapenkeria planteamendu oro bertan behera uzteko premia eta PICA berrian, Lurralde osoko irisgarritasun segurua eta eraginkorra bermatzearekin batera, ezinbestekoa zela urbanizatu gabeko lur gehiagoren okupazioa eta artifizializazioa ahalik eta gehien ekiditea, egungo errepide sarearen hobekuntza eta optimizazioa lehenetsiz eta, beharrezkoa izanez gero, disuasio neurriak hartuz garraiobide oldarkorrenen zirkulazioa mugatzeko edota oztopatzeko. Ildo horretatik, Gobernuak onartu ez zuen gure alegazio batek eskatzen zuen hemendik aurrera A Alternatiba kasu guztietan izatea ingurumen eragin eta arriskuak ekiditea lehenetsiko duena eta B Alternatiba izatea funtzio beharrak lehenetsiko dituen, orain arteko PICA eta PICA berrian planteatzen denaren alderantziz.

Bestaldetik, ezagun da bide azpiegituren garapenak askotan tokian tokiko gatazkak eragiten dituela, batzuetan aurreikusitako proiektuek ingurumenaren zein gizarte jasangarritasunaren aldetik ondorio latzak eragingo lituzketelako; bestetazuetan, eremu (herri, udalerri, eskualde) zehatz bateko biztanleriaren mugikortasun edota segurtasun arazoak konpontzeko balio ez dutelako. Eta holako gatazkak sortzen direnean, gehien-gehienetan, guztietan ez bada, kale egiten du proiektu horiek gizarteratzeko eta horien inguruan herritarren zein toki erakundeen parte-hartze eraginkorra sustatzeko Diputazio honen gobernantza ereduak. Gehienez jota, eta gatazkak leher egiten duenean, ez lehenago, inprobisatu egiten da hobeto edo gaizkiago nolabaiteko prozesu parte-hartzailea, gehienetan ere paternalismo eta agintekeria dosi handiak uztartu ohi dituen, teknokrazia zein burokrazia ur sakonetan askotan oso arrazoizkoak izaten diren eskaerak itotzea helburuarekin. Horrexegatik proposatu genuen Interbentzio Irizpideetan puntu berri bat jasotzea, PICA berriaren ondorioz gauzatu beharreko proiektu guztietarako Herritar Parte-Hartzeko Protokolo bat garatuko lukeena. Protokolo hori proiektuaren hasieratik bertatik abiaraziko litzateke, berorren fase guztiak bere baitan hartuko lituzke eta ebaluazio mekanismoez hornituta legoke. Alegazio hau ere ez zen onartu, noski.

Horrekin batera, termino politiko zein instituzionaletan onartezina deritzogu PICA hau berraztertu eta birmoldatzeko Memorian planteatzen den “blindaje” modukoari, espreski kentzea eskatu genuena. Erantzuna, berriro ere, ezezko borobila.

Azkenik, eta proiektu zehatzei bagagozkie, gehiago (eta garrantzitsuagoak) dira ez onartuak onartuak baino. Esate baterako, espreski egiten diogu kontra Zanbrana eta Gatzaga-Buradon herrien arteko N-124 bikoizteari, ez dugu konpartitzen Azazetako zeharbideari eman nahi zaion konponbide eskasa, kezkatzen gaitu arlo honetan ere Gonzalezen Gobernuak Trebiñurekiko erakusten duen axolagabekeriak eta horrek ingurunean dituen ondorio eskasak (esaterako, Manzanoseko lotunea A-1rekiko). Desadostasun gehiago egon badaude, baina beude oraingoz.

EH Bilduk konpromisoa hartzen du 2019a amaitu aurretik Batzar Nagusietan proposamena aurkezteko egun PICAREN tramitazioa arautzen duen Foru Arau zaharkitu horren prozedura ilun, burokratiko eta parte-hartzearen kontrako hori aldatzeko.

Baranbioko zeharbidea egitearen eta N-124 bikoizketa Zanbrana Errioxako mugaraino bikoiztearen guztiz kontra gaude, azken kasu honetan proiektu horrek Gatzaga-Buradon eta Haroko Kontxetan izango lukeen ingurumen inpaktu handiagatik. Halaber, ez dugu konpartitzen Azazetako zeharbideari eman nahi zaion konponbide eskasa, kezkatzen gaitu arlo honetan ere PICA berriak Trebiñurekiko erakusten duen axolagabekeriak eta horrek ingurunean dituen ondorio eskasak (esaterako, Manzanoseko lotunea A-1rekiko).

Praktikan errepide gisa erabiltzen ari diren landabideen aferari dagokionez, eta argi edukita horiek besterik gabe eta modu automatikoan errepide bilakatzeak EH Bilduren planteamendu orokorrekin talka

egin dezakeela, errepide bilakatze horrek ezinbestean natur eremu gehiago artifizializatzea eragingo lukeelako, uste dugu kasuz kasu eta bertako toki erakundeekin aztertu behar direla, kasu bakoitzean konponbiderik egokiena hartzearen, beti ere honako printzipio hauek kontuan hartuta: lur gehiagoren artifizialazioa ahalik eta gehien ekiditea, tokian tokiko biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak asetzea eta landabide horietako erabiltzaile guztien segurtasuna guztiz bermatzea.

ii. LEHENTASUNAK 2019-2023 TARTERAKO

- Añanako saihesbidea.
- Guardiako saihesbidea.
- Egun Forondako aireporturaino heltzen den N-624 errepidearen bikoizketa luzatzea Krispiñaraino, A-1 autobidearekin puntu horretan bat egiteko.
- Lotura berria A-1 autobidearen eta A-2134 errepidearen hasieraren artean, mugimendu aukera guztiak emanaz ibilgailuei Donostiako noranzkoan. Horrek erraztu egingo luke puntu horretatik Salburura iristea, Venta del Pation atera beharrik gabe, eta trafiko hori kenduko litzaioke N-104 errepideari.
- A-4107 errepidea hobetzea (bazterbideak eta Zerioko saihesbidea egitea) Ilarratza eta Argandoña artean, A-1 autobidetik Mendialderanzko bidea errazteko, Arkaiaten sartu gabe eta Arkautiko eta Elorriagako trafikoa kargatu gabe.
- AHTren eraikuntzak Aramaion sortu dituen arazoak, konektibitatean eta bide-segurtasunean, konpontzea.
- A-4001 eta A-2134 arteko bidegurutzea hobetzea (Zurbaoko bidegurutzea).
- Behin betiko irtenbidea N-240ri: lehen fase batean, Zabalaingo bidegurutzeraino; gero, hortik A-4402 errepidearekiko bidegurutzeraino.
- Lotura berria A-623 eta A-2620 artean, Legutioko herriguneko egungo igarobidea saihestuz.
- Amurrioko ekialdeko saihesbidea (lotura A-624 errepidearekin). A-625-Amurrioko Ipar Lotunearen bigarren fasea.
- Tertangako zeharbidea.
- A-625: Amurrio-Laudio bikoizketa, Laudiora iristeko Gardeako lotunea barne.
- Epe laburrean, BI-2604 errepidearen Artziniega eta Gordexola arteko zatian dagoen irtengune-kopuru handia kendu eta trafikoa moteltzeko sistema egokiagoak eta eraginkorragoak ipintzea.
- N-124: Egungo lanen erremateak, bikoizketa Lacervilla eta Lacorzanillako industrialdeen artean eta A-68rako sarbide berria, Gatzaga-Buradon eta Haroko Kontxen arteko zatia bikoiztu behar ez izateko.
- Sarbide berria Manzanosera A-1 autobidetik.
- Sarbide berria Billodara, Zadorra gaineko zubi berri baten bidez.
- Bihurguneak zuzentzea La Tejeran.
- A-124 eta A-2124 arteko bidegurutzea, behin betiko konponbidea emateko puntu arriskutsu horri.

- A-4202 errepidea hobetzea Assan, A-4208 errepidea Eltziegon, eta A-3226 errepidea, Oiongo Santa Maria kaletik A-124 errepidearekiko bidegurutzeraino.
- N-232 errepidea hobetzea Samaniegon, espaloiak eraikita.
- Irtenbide egokia Azazetarako.
- Behin betiko konponbidea A-4144 errepidearen Zekuiano eta Musitu arteko zatiari, eta A-3124 errepidea hobetzea Maeztu eta Zekuiano artean.

iii. AP-1 eta AP-68

AP-1 autobideari dagokionez, Sustapen Ministerioak bere gain hartutako konpromisoen jarraipen zehatza: lehen autobidea zen Burgos eta Armiñon arteko zatia egokitzea.

AP-68 autobidearen kasuan, transferentzia horren iragarpenaren ondoren, EH Bilduk gogoeta hau egiten du:

Transferentziak ez du ondorio praktikorik izango 2026. urte amaierara arte (izan ere, orduan amaituko da egungo emakida), baztertu egiten baita emakidaren erreskatea, kostu ekonomiko handiagatik. Dena dela, albiste ona da, arabarron aspaldiko aldarrikapen historiko bati erantzuten diolako. Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari eginiko transferentzia berretsi ondoren, bigarrenari exijituko diogu premiaz utz dezala Arabako zatia Aldundiaren esku, gizarte eta erakunde eztabaida zabal bati ekiteko AP-68aren Arabako zatiaren etorkizuneko kudeaketa ereduari buruz. Era berean, transferentzia honek balio behar du lotura berri bat egiteko N-124 errepidearen eta AP-68 autobidearen artean, Zanbrana parean, Errioxaranzko norabidea azkartzeko –bi noranzkoetan–, N-124 errepidea Zanbrana eta Espainiako Errioxa artean bikoiztu beharrik gabe (ondorio larriak izango lituzke horrek Gatzaga-Buradonen eta Haroko Kontxetan).

Azkenik, lan egingo dugu hitzarmen bat egiteko Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien artean, AP-68 autobidearen Audio eta Bilbo arteko zatiaren ohiko erabiltzaileen bidesaria hobaritzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Gasteiz-Eibar zatiko erabiltzaileentzat sinatutako hitzarmenaren antzekoa.

15. INGURUMENA

DIAGNOSTIKOA

1. AHTa eta makroazpiegituren eredua.

Arabian eta EAEn boterean daudenek lurraldea erasotzen duten azpiegitura handien eredua bultzatzen jarraitzen dute. Araban momentu honetan 2 azpiegitura handi aurreikusita daude: Altsasu eta Miranda lotuko lukeen AHT proiektua eta Barrongo urtegia. Biek kontrako erantzun soziala izan dute. Eta bietan ez da kontuan hartzen ezinbestekoa den irizpide bat: Errentagarritasun soziala. Izan ere, ez dago kosteak (ekonomikoak, ingurumen kalteak, afekzioak herriei eta ondareari...) eta onurak aztertuko eta justifikatuko dituen txostenik. Horrez gain, ez dira aztertu beste alternatiba posible batzuk, bi kasuetan badaude ere zentzuzkoagoak eta efizientzia sozial handiagoa dituzten alternatibak.

2. Gas putzuak eta energia eredua klima aldaketaren testuinguruan

Gaur egungo energia eredua erregai fosiletan oinarrituta dago. Egoera honen adibide garbia da, besteak beste, Euskal Herrian eta bereziki Araban azken urte hauetan izan ditugun gasa ustiatzeko proiektuak, frakinaren teknika erabiliz edota "*teknika konbentzionalen*" bidez. Izan ere, EAEk energia arazo larria duen komunitatea dugu: Europako helburu bada ere 2020. urterako energiaren %20a berriztagarria izatea, arabarrok kopuru horretatik oso urrun gaude, %6 tamalgarri batean. Baina helburu hori bilatu beharrean, gasa ustiatzeko proiektu arriskutsuen aldeko apustua egiten dute Eusko Jaurlaritzak eta PNVk. Horren adibidea, Arabako Subillan egin nahi den Armentia-2 putzuaren proiektua Zulaketek Zadorrako kontserbazio bereziko guneari edota Gasteizko Mendiei eragingo liekete, besteak beste. Izan ere Armentia-2 putzuak Subillako akuiferoa zulatuko luke, EAEko lur azpiko ur erreserbarik handiena, alegia.

Hau dena gutxi balitz, ez dugu ahaztu behar erregai fosilen ustiaketa atzetik enpresa multinazionalak daudela. Gainera, klima aldaketan ere eragin zuzena du energia ereduak, izan ere, gas isurketen zati inportante bat erregai hauen eraldaketa eta errekontza prozesuetan ematen baita. Hortaz, Araba ez da salbuespena, eta nahiz eta gas ustiaketa aurrerako mugimendu soziala eta herri mailako aldarrikapenak indartsuak izan, mehatxuak hor jarraitzen du, Arabako instituzio nagusiek jarraitzen dutelako energia berriztagarrietan oinarritutako energia eredu baten aldeko aurrerapausorik egin gabe.

3. Hondakinak.

Hiri hondakinen kudeaketa eta tratamendua garrantzi handiko kontua da Europa osoan. Baliabideetan urria den gure lurraldean birziklapenak, berrerabilpenak eta batez ere prebentzioak zer nolako garrantzia

duten gero eta agerikoagoa da. Beraz, Europan *Ekonomia Zirkular* baterako lehenengo urratsak ematen hasiak gara, eta legedia ere norabide horretan ari da birmoldatzen. Legedi berriak birziklapen maila altuagoak ezartzen ditu, hondakinen tratamenduan hierarkia argia ezarriz: Lehenik eta behin prebentzioa, bigarrenaz berrerabilpena, gero birziklapena, ondoren balorizazio energetikoa eta azkenik zabortegetako tratamendua. Material desberdinetarako helburuak ere zehazten ditu. Gainera, adierazle hauek neurtzeko metodologia bateratua ezartzen du, esate baterako, 2035. urtean udalerrri bakoitzak zabortegetan hiri-hondakinen %10 bakarrik isurtzeko baimena izango du. Orokorrean, zabortegeiak eta errauskailuak ekonomia zirkularraren filosofoaren kontra doazen praktikak dira.

Gaur egun, Araban, pertsona eta urteko 418 kg hondakin sortzen ditugu, Europako batez besteko baino pixka bat gutxiago. Araban hiri hondakinen gainean egindako karakterizazio ezberdinek adierazten dute gure lurraldean sortzen ditugun hondakinen %92 berreskuratu daitezkeela. Hala ere, gaur egun, soilik %29 birziklatu egiten da, %1 baino gutxiago berrerabiltzen da, %4 energetikoki balorizatu (erre) egiten da, eta beste guztia zabortegeira doa.

Duela gutxi Arabako hondakin plan berria 2017-2030 aurkeztu da, baina hori aztertzeari ekin aurretik, aurreko plana baloratu behar dugu:

- Oro har, helburu gehienak ez dira bete, eta, beraz, porrota izan da. Azken bi legealdietan, moteltze kezkarri bat gertatu da birziklapen tasan: % 25-28an dago, eta Europak % 50eko gutxienekoa ezarri du 2020rako.
- Ez da errespetatu Europak hondakinei dagokienez ezarria duen hierarkia, honako hau dena, garrantzi-ordenaren arabera:

1. Garrantzitsuena hondakinen prebentzioa eta murrizketa da. Helburu honetan, emaitzak eskasak izan dira, geldialdi bat egon delako eta ez delako landu herritarrekin ez konpromisoa, ezta sentsibilizazioa ere.

2. Bigarren helburua da birziklapena edo berrerabilera, ekonomia zirkular baterantz jotzeko. Geldialdi kezkarri bat gertatu da, eta azken urteotan ez da % 25-28tik gora egin. Gaikako bilketak huts egin du, ez direlako urratsak egin ez kalitatea hobetzeko, ezta hautapen egokia egiteko ere. Bilketa pneumatikoa ere ez da ondo funtzionatzen ari (Gasteiz, Agurain).

3. Berbalorizazioan ere ez dira aurreikuspenak bete.

4. Zabortegei bidez ezabatzea. Europarentzat azken aukera bada ere, Araban jarraitzen dugu eramaten hondakinen % 51 Gardelegiko zabortegeira, oso datu kezkarria dena eta ezarritako helburuetatik oso urruti dagoena. Gainera, irregulartasunak egon dira Gardelegiko funtzionamenduan, eta konpondu gabe jarraitzen du lindano filtrazioen arazoak.

- Azpiegiturei dagokienez, Jundizko TMB plantak eta ontzien plantak ere ez dituzte helburuak bete. TMB plantaren kasuan, azkenean zati handi bat Gardelegira eraman da. Aldundiaren ontzien plantari dagokionez, oso kritikoak gara kontrataren kudeaketarekin. Lan arazoak, arazo higienikoak eta segurtasun alorreko arazoak izan dira. Garrantzi handiagoa ematen zaio onura ekonomikoari ontzien bilketa murriztu edo bilketaren kalitatea hobetzeari baino.
- Horren aurrean, herritarrei adierazi zaie, era akritikoan eta ez errealistan, gauzak ondo egiten ari direla, autokonplazentzia handiegiz eta helburuak betetzen ari ez direla ezkutatuz, eta horrek gizartea lokartu egin du. Sentsibilizazio kanpainak huts egin dute, eta helburuak ez dira izan ez argiak, ezta partekatuak ere.

2017-2030 Arabako Hondakin Planaren azterketa kritikoa

EH Bilduk ez zuen babestu plan berria, PNVk, PSEk eta PPk onartu zutena, honako arrazoiengatik:

┐ Parte-hartze eskasa plana lantzeko orduan. Eragileen parte-hartze handiagoa behar zen (udalak, kuadrillak, kontzejuak, talde ekologistak...).

┐ Europako hierarkiaren bi eskala nagusiek (prebentzioa eta berrerabilera) askoz pisu handiagoa izan beharko zuten, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideei dagokienez batik bat. Planak arrakasta izan dezan, aldatu egin behar dira herritarren ohiturak, eta horretarako ahalegin handia egin behar da lehenengo bi urteetan, informazioan, sentsibilizazioan, kontrolean eta pedagogian. PNV-PSE gobernuaren planak ez du horrelakorik aurreikusten, eta planaren gabezia handienetako bat da hori.

┐ Ontzien berrerabileran urratsak egin eta apustu egiteko gordetze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema baten edo hondakin organikoak nekazaritza lurretan berrerabiltzeko sistema baten alde, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak araudia egokitzea helburu horietara.

┐ Birpentsatu egin behar da egungo azpiegituren funtzionamendua, helburu berriak betetzeko. Aztertu egin behar da azpiegiturak zuzenean erabiltzeko modua, eta helburu horretarantz jo.

┐ Urrats ausartagoak eta eraginkorragoak egin behar dira ontzien murrizketan.

┐ Errealitatea eraldatzeko eta birziklapenean % 50aren muga gainditzeko gakoa konpostajearen kudeaketan datza. Ekonomia zirkularrerantz egiteko, apustu egin behar da konposta nekazaritzan ongarri gisa berrerabiltzearen alde. Plan pilotuak egin behar dira, eta udalek eta kuadrillek beren planak egiteko aukera izan behar dute.

┐ Aurrekoari lotuta, oinarritzak da gaikako bilketa hobetzea eta udal bakoitzak hainbat ereduren artean aukeratzea, aurrez ezarritako helburuak betetzeko.

┐ Planak balorizazio energetikoarekin jarraitzea planteatzen du (hondakinak erretzea).

┐ Planak ahaztu egiten du guztiz Trebiñu.

┐ Gobernantzari dagokienez, nabarmentzekoa da gaur egun soilik Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala arduratzen direla hondakinak altan kudeatzeaz (hots, hondakinen tratamendua herri bakoitzeko bilketaren ondoren). Hala, agerian dago bi erakunde horien aurreko planen porrota, hondakinen

berreskurapen eta birziklapen egoki baten bidez ingurumena eta osasuna babesteko helburuei dagokienez. Gobernantzaren atal honetan, printzipio hauetan oinarritutako kudeaketa-eredu bat ezarri behar da:

1. Legediak ezartzen duen hondakin hierarkia errespetatzea: prebentzioa, berrerabilera, birziklapena, beste helburu batzuetarako berreskuratzea eta ezabatzea.
2. Urratsak egitea ekonomia zirkularrerantz, non hondakinak ekoizpen zikloan sartzen diren berriro, bigarren mailako lehengai gisa.
3. Planaren helburuak betetzeko aukera bermatzeko, oinarritzko bi printzipio hauek bete behar dira:
 - a. Araban hondakinak kudeatzeko sistema egoki bat behar dugu, eta horretarako Aldundiak inbertsio publiko handiagoa egin behar du.
 - b. Sistema egoki hori ezarri ondoren eta behin-behinean, *«kutsatzen duenak ordaindu egin behar du»* printzipioa aplikatuko da.
4. Hondakinen tratamenduak ez du arriskurik eragin behar ingurumenarentzat, ez du zaratarik edo usain txarrik sortu behar, eta ez ditu paisaiak edo interes bereziko lekuak kaltetu behar.
5. Birziklapen eta berreskurapen helburuak aintzat hartzea eta betearaztea, etxeko hondakinekin eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinekin, Europako legediak ezarritakoaren arabera.

J Jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspén direla-eta, planak jarraipen eta ebaluazio ekintzak jasotzen baditu ere (Arabako Hiri Hondakinen Webgunean argitaratuko direla adierazten da), uste dugu funtsezkoa dela auditoria, partaidetza eta eztabaida foro irekiak sortzea plana zer mailataraino bete eta ebaluatu den jakiteko.

4. Gizarte eredu (kontsumoa, deshazkúndea)

Begi-bistakoak dira neurrigabeko kontsumismoan oinarritutako egungo gizarte ereduak gure planetaren mugekin dituen kontraesanak. Gero eta baliabide natural gehiago kontsumitzen ditugu, izadiak baliabide horiek berritzeko duen ahalmena gaindituta. Aztarna ekologikoaren kontzeptua horren adierazle on bat da: *“Populazio batek bizimodu zehatz batekin eta mugagabeki kontsumitzen dituen baliabideak ekoizteko eta sortzen dituen hondakinak asimilatze behar den lehorreko eta itsasoko azalera biologikoki produktiboa (basoak, larreak, laborantzak eta itsasoak)”*. Kalkulu hori egin daiteke populazioekin, norbanakoekin, produktuekin, herrialdeekin edo enpresekin. Zalantzak badaude ere aztarna ekologikoa kalkulatzeko metodologiari dagokionez eta 2007az geroztikako datu edo txostenik ez eduki arren, egoerak ez du hobera egin eta jarraitzen dugu baliabide gehiago kontsumitzen eta planetak jasa dezakeen baino

hondakin gehiago sortzen. Beraz, egungo baliabideen kontsumo maila ezin mantendu dezakegula onartzeko ordua da, gehiago edukitzea hobeto bizitzearen sinonimo ez dela ulertzekoa.

5. Babestutako espazio naturalak

Arabian badira 4 ZEPA, 25 ZEC/LIC eta 4 parke natural: Valderejo, Izki, Gorbeia eta Aratz-Aizkorri. Oraintsu bete dira 25 urte Arabian lehen parke naturalak ezarri zirenetik. Azken urteotan figura berriak ere etorri dira hainbat espazio natural babesteko: LIC orain ZEC bihurtu direnak, ZEPA eta Natura 2000 eremuak, paisaia singularrak.... Eta hau dena osatzeko badira beste mendi eta baso asko babes berezirik ez dutenak.

Ikusten denez, Arabian zein Erkidegoan ditugun babesguneen eskema konplexuegia da, eta askotan ez da erraza ulertzen. Parke Naturalen egungo planteamenduari dagokionez, EH Bildu figura horren alde dago, baina jarrera kritikoa dauka. Izan ere, orain arte Parke Naturaletan eman den kudeaketa ez da parte-hartzailea izan (herri, kontzeju eta herritarren iritzia askotan ez dira kontuan hartu eta, txarragoa dena, ez dute erabakitzeke inolako ahalmenik izan), ez dira behar bezala garatu garapen planak eta , ondorioz, kasu gehienetan ez dira bete hasierako promesak, lanpostuen sorrerari edo herrien garapenari dagokionez.

6. Ibaien egoera eta uraren kudeaketa

)] **Saneamendua:** Gabezia ugari ditugu lurralde osoan. Garrantzitsuenak eta larrienak aipatzearren:

- o Oso saneamendu eskasa Nerbioi ibaian, Amurrión eta Laudion, araztegiak ez dagoelako. Espainiako gobernuak araztegi berriei buruzko konpromisoak behin eta berriro ez betetzearen ondorioz atzerapena 20 urtekoa da jada.

- o Gasteizen, Zadorraren saneamendu sistema ez da nahikoa, Krispiñako Ur Zikinen Araztegiak dituen mugengatik. Ondorioz, lindano eta metal kutsatzaile ugari detektatu dira Krispiña eta Tresponde artean. Emaria handia denean, behar bezala arazteko arazoak sortzen dira.

)] **Uholde arriskua:** Uholde arriskua Gasteiz, Arratzua-Ubarrundia eta Iruña-Okako hainbat lekutan, arrazoi hauengatik: Iberdrolak duen urtegien kudeaketa sistema, ibai ibilguak inbaditu eta aldatzea, eta ibai eremu erabilgarri txikiegia. Gainera, atzeratu egin dira aurreikusita zeuden hobekuntza-obrak. Zaiako dikeak sortutako gatazka dela-eta, EH Bilduren ustez, ez da beharrezkoa, eta PNVk azpiegitura hori lotzen du Forondako industrialdearen neurrigabeko handitzearekin.

)] **Arabako ur masen egoera:** URaren beraren txostenen arabera, Arabako ur masen % 70 egoera kaskarrean dago. Oro har, ez da betetzen Europako Uraren Oinarriko Zuzentaraua. Horren arrazoiak dira: saneamendu sistema desegokiak eta eskasak, legez kanpoko isuriak, nitratoak, lixibatuak, emari ekologiko urriak... Ondorioz, hezegune gehienak egoera txarrean daude, gehienbat nekazaritzan nitratoak eta

pestizidak erabiltzeagatik. Bereziki larria eta guztiz salagarria da Arabako administrazio nagusien (URA eta Aldundia) eraginkortasunik eza aurre egiteko legez kontrako isuri ugari, batzuetan enpresa handien zabarkeriagatik eta utzikeriagatik gertatzen direnak.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

A. HONDAKINAK

Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politikak behar dira, *zero hondakin* filosofiarekin bat eginik, eta bateratu egin behar dira horretarako kontzientziazioa, berrerabilera eta tratamendu prozesuak. Barneratu egin behar dugu *zero hondakin* filosofia gure herrietan eta etxeetan, konpromiso pertsonaletik kolektibora igaroz, eta filosofia hori datozen urteetako foru politikaren ardatz nagusia izan behar da. Helburu hori bete daiteke denon parte-hartze eta konpromisoarekin, Arabako erakunde eta herritar guztiekin, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko politikak jarriko ditugu abian horretarako, kontzientziazioa, berrerabilera eta tratamendu prozesuak bateratuta. Horretarako, halaber, kontsumo arduratsua sustatu behar da, eta, gure eskumenek ahalbidetzen duten neurrian, material gehienak berrerabilgarriak eta birziklagarriak izan behar dira produktu guztietan.

Gaur egun, Udalek, Kuadrillek eta Aldundiak dirutza bideratzen dute hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzea. Hondakin gutxiago sortuko bagenu, diru dezente aurreztuko genuke, gizarte premietan erabiltzeko. Gainera, hondakinen tratamendu ziklo osoan inbertitzen den diruaren zati handiena enpresa pribatuetara bideratzen da; hau da, irabazi pribatuak sortzera, lan baldintza prekario eta gogorretan oinarritutakoak, neurri handi batean. Zerbitzuen publikazioak, inbertitutakoa amortizatzeaz gainera, lanpostu berriak sortuko ditu.

Hondakinen politika berrirako funtsezko beste zutabea da hondakinen hierarkia europarraren arabera jokatzeko, esfortzu eta inbertsio handienak lehen bi eskaletan eginez: prebentzioa eta berrerabilera. Bi horietako giza zein gauza baliabidetan inbertsio handiagoa egitea proposatzen dugu, planak arrakasta izan dezan eta herritarrek plana ezagutu dezaten eta sentsibilizazioan aurrerapausoak egin ditzaten.

Aurreko guztiaren ondorioz, EH Bilduk konpromiso argia hartzen du 2017-2030 Arabako Hondakin Planaren gauzapenean aldaketa esanguratsuak egiteko, helburu zehatz hauen arabera:

1. Prebentzioan sakontzea

- Horretarako ezin bestekoa da herritarren ezagutza eta sentsibilizazioa lantzea eta horretarako ezinbestekoa da giza baliabidetan zein baliabide materialetan inbertsioa egitea herritarren ohiturak aldatzeko. Lehen bi urteetan Kuadrilla eta herri guztietan informazioa, sentsibilizazioa, lan pedagogikoa eta

bilketa ondo egingo den kontrola bermatzeko esfortzu berezia egin beharko da. Hau, jakina, enplegua berdea sortzeko aukera interesgarria ere bada.

- Autokonposta eta auzo konposta lehenestea. Arlo honetan funtsezkoa da lortzen den konposta, tratatu ostean, nekazaritza lurretan berrerabiltzea. Horretarako nekazari talde bati prestakuntza eskaini behar zaie eta prozesu osoa burutzeko hainbat gune deszentralizatu atontzea

- Ontziak berrerabiltzeko sistemak ezartzeko proiektu pilotuak martxan jartzea.

2. Jatorrizko bilketa selektiboan sakontzea

- Sailkapena modu egokian egiteko herritarrengan ohitura aldaketa eman behar da. Sentsibilizazioa, informazioa eta baliabideak (materialak eta giza baliabideak) eskaini behar dira (bide batez, enplegu berdea sortzeko aukera interesgarria da). Helburuak lortzeko sistema eraginkorrak ezarriko dira, atez ate, txiparen bidezko bilketa edo bestelako formulak bilatuz. Hau ez ba ziurtatzen, plan berria desideratum hutsa izan daiteke.

- Ekonomia zirkularra sustatuko da. *“Hondakinak baliabideak dira”* filosofiapean

- Organikoaren kudeaketa. Plana arrakasta izateko jauzi kualitatibo garrantzitsua eman behar da organikoa edo biokonpostean. Lehenik gaikako bilketa egokia eginez kalitatezko organiko lortzeko eta bigarrenik, trataera egokia emanaz.

3. Tratamendu deszentralizatua bultzatzea

Gasteizko gune batean zentralizatzea Araba osoko konpostaren trataerari ez esaten diogu. Alternatiba bikoitza da:

- Eskualde batzuetan organikoa tratatzeko gune deszentralizatuak jarri
- Kudeaketa alternatiboak aztertu/garatu (eredu Austriakoa)

4 . Kudeaketa

Kudeaketa ereduari dagokionez Toki Erakundeek Partzuergoan parte hartze boluntarioa izatea proposatzen dugu, beti ere informazioa eta gardentasuna ziurtatuz.

5. Finantzazioa

Arabako Hondakinen kudeaketa sistema egokia izatea helburua bada, AFAk inbertsio handiagoa egin behar du. Guk uste dugu aurrekontua nabarmen handiagoa izan behar dela. Horrekin batera, prebentzioak eta neurri estrategikoek izan behar dutela azpiegiturek baino pisu handiagoa. Foru Gobernuak aurkeztutako proiektuan, azpiegiturek eramaten dute aurrekontuaren %77,2.

B. ENERGIA

EH Bilduren ustez, energia politikoa gizateria osoarentzat gero eta arriskutsuago bilakatzen ari den klima aldaketaren kontrako borrokaren ardatz nagusienetariko bat, hainbat ildotan gauzatu beharrekoa: energia kontsumoaren murrizketa, kontsumo mota oro arrazionalizatzeko eta arabarron aztarna ekologikoa ahalik eta gehien gutxitzeko; energia trantsiziorako politikak (erregai fosiletan eta industria nuklearrean oinarritutako sistema batetik energia berriztagarriak nagusi izango diren sistema batera igarotzea, karbono isurketarik gabeko sistema bat lortzearren); energia ekoizpenaren eta kontsumoaren gaineko kontrol publikoa, besteak beste, instituzio publikoen menpekotasuna energia arloko multinazionaletikiko gutxitzeko eta kontsumitzaile ahulenei energia beharrak duintasunez asetzeko eskubidea bermatzeko.

1. Energia trantsizioa arlo publikotik eta energia berriztagarrien aldeko apustua

Foru eraikinen energia elektrikoaren kontsumoa % 100ean energia berriztagarrietatik lortzea. Horretarako, elektrizitate kontsumoaren esleipenen baldintza-pleguetan ezinbesteko baldintza izango da. Halaber, foru eraikin guztietan efizientzia energetikoa ezartzeko programak sustatzea.

Energia berriztagarrien udal agentziak eta autohornikuntzarako kooperatibak sortu nahi dituzten erakunde, herritar talde zein PYMEentzako diru-laguntzen lerro bat abiaraztea.

Foru ibilgailuen parkea berritzean gutxien kutsatzen duten ibilgailuak (elektrikoak, hibridoak...) hobestea. Halaber, foru garraio kolektiboaren lineak eta zerbitzuak esleitzeko baldintza-pleguetan holako ibilgailuen erabilera lehenestea.

Foru eraikin guztietan kontsumo baxuko argiteria erabiltzea eta norabide horretan argiteria publikoa aldatu nahi duten udal eta kontzejuentzako diru-laguntzen lerroa indartzea.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak aztarna ekologikoari buruz egindako azterlanetan osagai energetikoaren balorazioa egitea.

Energia faktorea (murrizketa, efizientzia eta iturri berriztagarrietatik eratorritakoa) hirigintzan eta lurralde-antolamenduan kontuan izatea.

Frakinaren zein gas putzuen proiektu berrien kontrako jarrera irmoa izango Arabako Foru Aldundiak kasu guztietan.

2. Biomasa

Biomasa Araban erabilgarritasun handiko energia iturri berriztagarria da. Biomasarekin energia lortzen da baso eta nekazaritza hondakinak erabilita. Kontuan izanda Arabako lurrazalaren %47 basoa dela eta horren %84 jabetza publikoa dela, oso aukera interesgarria da eraikinetako berokuntzarako, eta dagoeneko esperientzia oso interesgarriak egon dira hainbat herritan eta bereziki EH Bilduk gobernatutako udalerri batzuetan. Hori bai, basoen egoera onena izan beharko da biodibertsitatearen zaintzarako eta ez ditugu bultzatuko monokultiboan oinarritutako landa basoak biomasaren erabilerarako.

)] Biomazari lotutako proiektuak sustatzeko diru-laguntza lerro berriak abiaraziko ditugu, bai toki erakundeentzat, bai PYMESentzat.

3. Bestelako energia berriztagarriak

)] Miñao parke teknologikoan energia berriztagarriak bultzatuko dituen gune formatibo-teknologikoa sortuko dugu, gutxienez eragile hauen partaidetzarekin: EHUKo Arabako Ingeniaritza Eskola, Arabako Lanbide Heziketako zentroak eta energia berriztagarrietan jarduten duten enpresak.

)] Eguzki energia bultzatuko dugu eta foru eraikinetan ezartzeko plangintza burutuko dugu.

)] Baldintza egokiak dituzten industria guneetan edo artifizializatutako eremuetan parke mini-eolikoak ezartzeko azterlanak eta plangintzak sustatuko ditugu.

)] Energia geotermikoa, hidraulikoa, fotovoltaikoa, eolikoa, biomasa, eta bestelako energia berriztagarrien aukerak ikertu, garatu eta bultzatuko ditugu lurralde osoan.

C. GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA

Urte luzez talde ekologistek, herri mugimendu desberdinek, Arabako toki erakundeek eta herritar askok Garoña zentral nuklearra ixtearen aldeko borrokaren ostean behin-betiko ixtea lortu dugu legealdi honetan. Beraz, Arabako jendartearen zoriondu behar da urte hauetan guztietan, askotan egoera zailetan, egindako lan handiagatik eta bereziki lan horrek izandako emaitzagatik.

Halaber, itxiera suertatu eta gero, zentral nuklearra eraisteko prozedura burokratiko eta teknikoa abiarazi behar zen, baina ohi bezala, Espainiar Gobernuak (bai PPko Mariano Raxoirena, bai PSOEko Pedro Sanchezena) ilunkeriaz jokatzeko ari dira, prozesu horretan eman beharreko urratsei buruz informazioa eman gabe eta Arabako instituzioak berriro ere mesprezatuz. Are gehiago, gaur-gaurkoz ez dakigu ez zein den Garoñako zentral nuklearraren benetako egoera, ez noiz abiaraziko diren eraispen lanak, ez ezer. Horrexegatik EH Bilduk konpromiso irmoa hartzen du eraispen prozesuaren jarraipenerako instituzioen arteko batzorde bat eratzeke, Arabako Batzar Nagusiek urtarrilaren 21eko 3/2013 mozioan onartutako termino zehatzetan.

D. BIOANIZTASUNA

Bioaniztasunaz ari garenean gure planetako bizidunak eta horien bizi ereduez ari gara. Gure artean eta gure ingurunearekin ditugun harremanek baldintzatzen dute gure bizitza, eta gurea ez ezik, baita planeta osoarena ere. Bioaniztasuna kontserbatzea, hortaz, gure biziraupenerako baldintza da. Giza jarduerak orok ingurunean eragiten du ezinbestez, baita bioaniztasunean ere. Hala ere, orain arte errentagarritasun ekonomikoa izan da jarduerak askoren irizpide nagusia (eta, kasu batzuetan, bakarra). Horrek ekarri du, besteak beste, ekosistema eta espezie ugariaren galera kasurik txarrean eta kasurik onenean natur gune askoren degradazio handia. Eta horrek ere zerikusi zuzena du gizateriaren biziraupena larriki mehatxatzen

duen klima aldatzarekin. Hortaz, eta guri dagokigunez, Arabako bioaniztasunaren kontserbazioa eta zaintza, balio etiko eta morala ez ezik, epe luzean oraingo eta geroko arabarron ongizatearen bermea ere bada.

1. Korridore ekologikoak.

┐ Bioaniztasuna zaintzeko estrategiaren barruan, garrantzia berezia du korridore ekologikoak zaintzea eta ziurtatzea. Helburu hau ziurtatzeko, honako neurri zuzentzaileok hartzea proposatzen dugu.

- Mendebaleko Lautadan azpiegitura ugari ezartzen ari direnez, Inglesmendi izeneko parke periurbanoa sortzea proposatzen dugu Gasteizko Mendien eta Badaia-Arrato Mendilerroen arteko konektibitatea ziurtatzeko.

- Fauna pasabideak ziurtatzea errepide nagusietan. Plangintza eraginkorra egitea errepideetan pasabide egokiak ziurtatzeko eta errepide plan berrietan ezartzeko.

2. Baso masak

┐ Sutako egurrak mantentzea.

┐ Luberritzeen berreskurapena. Mendien Foru Araua aldatzea proposatzen dugu, eta horrela, epe jakin eta progresibo batean, baina betiere modu eraginkorren, baso azalerarako berreskuratuko dira iraganean nekazaritzarako luberritutako eta gaur egun lagapen erregimenean dauden mendi publikoko lurak.

┐ Baso azalera mantentzea eta, ahal bada, baso azalera zuhaiztua gehitzea, degradatutako lurak leheneratuta.

┐ Mendi pribatuetan hazkunde bizkorreko espezie aloktonoekin birlandatzeko zenbait laguntza mugatzeko edo ezabatzeko aukera aztertuko dugu. Horien ordez espezie autoktonoekin edota hazkunde ertaineko espeziekin egin beharreko landaketak indartzea, balio ekologiko berezia duten baso lurzatien erostea eta heskaiak zein korridore ekologikoak egiteko diru-laguntzak ezartzea.

3. Fauna eta flora

┐ Lurralde plan bat egitea eta burutzea espezie aloktono inbaditzaileak kontrolatzeko.

┐ Irizpide orokor gisa, espezie aloktonorik ez erabiltzea mendi publikoetako landaketetan eta basoa berritzeko proiektutan.

┐ Ezpondak eta tarteko heskaiak zaintzea.

┐ Galzorian dauden espezieen kudeaketa planak eta Kontserbazio Bereziko Eremu eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuetarako egindako neurriak betetzea, udalei horretarako baliabide ekonomikoak emanaz.

┐ Ureztapen baltsak naturalizatzea, bizi akuatikoa eta urbazterreko landaredia izan dezaten, fauna ez itotzeko neurriak hartzearekin batera.

) Aisialdiko erabilerak kontrolatzea natur eta nekazaritza eremuetan, batez ere motordun ibilgailuen erabilerari dagokionez. Erauzketa jarduerak arautzea.

) Jardunbide egokien irizpideak ezartzea fauna eta flora zaintzeko eraikin zaharrak zaharberritzean, baita eraikuntza berriko eraikinetan ere, bizirik irauteko ingurune horien beharra daukaten espezieentzako arriskuak murrizteko; gune horiekin lotutako espezieen ezarpena bultzatzea; eraikuntza lanetako jardunbide desegokiek eragindako arriskuak saihestea; egitura eta material arriskutsuak baztertzea. Behar bezala beteko direla ziurtatzen duten neurriak bilatzea.

) Kontrol neurriak ezartzea argi eta soinu kutsadurarako, herrien aldirietan eta eremu babestuen ingurunean arreta berezia jarritz.

4. Gune babestuak

) Gune babestuei buruzko aurrekontu partidak (Natura 2000 Sarea, parke naturalak eta abar) gehitzea.

- Egun kontserbazio figura asko daude eta askotan zaila da jakitea zeintzuk diren bakoitzaren ezaugarriak eta zehaztasunak: parke naturalak, babestutako biotopoak, zuhaitz bereziak, Europa Natura 2000 sarea (eta honen barruan ZEC eta ZEPak). Hauetatik kanpo ere badira beste espazio natural babestu beharko liratekeenak eta gaur egun aurreko eremuetatik kanpo daudenak. Honekin batera, badira ere balio handiko nekazaritza eremuak edo paisaia berezien sailkapena dutenak. Figura hauek guztiak erraztu, sailkatu eta berrantolatu behar dira. Planteamendu globalagoa egin behar da, ildo nagusiak adostu behar dira instituzio eta eragile desberdinen artean, eta Arabako Lurralde Antolamendua eta Lurralde Planak berraztertu. **Helburua: Arabako Kontserbazio Plan Integrala osatzea.**

- Ahalegin berezia egin behar da gaingintzeko gaur egun dagoen dikotomia maltzurra: naturaren kontserbazioa versus nekazaritza sektorea eta herriak. Alde horretatik, Ipar Euskal Herriko eredia oso interesgarria da, zigor eta debekuetan indarra jarri beharrean, adostasunetan eta partaidetzan jarri dutelako, eragile guztien artean plan integralak osatzeko. Honek, jakina, beste gobernantza estilo bat eskatzen du ezinbestean, baina bide bakarra da nekazaritza mundua, herriak eta naturaren defentsa elkarren osagarriak izan daitezen. **Helburua: Garapen sozioekonomikoa eta naturaren kontserbazioa modu integralean jorratzea gune horietan.** Aurreko guztia kudeaketa planetan islatu behar da, eragileen osaketa anitza bermatuko dutenak eta baliabideak eta kudeaketa ahalmena izan behar dituztenak.

- **Parke Naturalen funtzionamenduaz eta kudeaketaz gogoeta zabala proposatzen dugu, eredia berraztertzeke eta eguneratzeko.**

- Gobernantza parte hartzaileagoa sustatu behar da eta eredu integrala eta zabalagoa bultzatu.
- Inguruko herrien garapen sozioekonomikorako eta populazioa finkatzeko balio behar dute.
- PORNen funtzionamenduan aldaketak eman behar dira, finantzazio eta autonomia propioa izan behar dute, bioaniztasuna lantzeko eta kudeaketa egokia bermatzeko.

- o Arreta debekuetan eta neurri koertzitiboetan jarri beharrean, eragile guztien arteko atxikimenduan eta adostasunean jarri behar da.
- o Nekazaritza jarduera onuragarrientzat konpentsazio ekonomikoak ezartzeko sistema aztertu beharko litzateke.
- o Bateragarriak izan behar dira nekazaritza eta abeltzaintza jarduera iraunkorrak eta bioaniztasunaren kontserbazioa.

5. Kudeaketa eta Gobernantza

) Foru Basozainen plantilla handitu eta egonkortu behar da; besteak beste, Ehiza eta Arrantza Zerbitzuan konpromisoa hartzen dugu 2019-2023 basozainen kopurua gutxienez 10eraino igotzeko. Horrekin batera konpromisoa hartzen dugu basozainen autoritate agenteen izaera juridikoki eta teknikoki indartzeko, Eusko Legebiltzarrean onartutako legez besteko proposamenaren ildotik. Halaber, egun pribatizatutako dagoen Arrantza Zaintza zerbitzua berriro publikatzeko konpromisoa hartzen dugu.

) Behar diren azterlan teknikoak egingo ditugu 2021an Gorbeialdean Suteak Itzaltzeko eta Salbanendurako Eskualde Unitate (SISEU) berri baten beharra eta horren balizko kokapena zehazteko.

) Juridikoki kontzejuen kudeaketa herri lurretan indartzea, Mendi eta Kontzejuen Foru Arauetan behar diren aldaketak eginez, beti ere alde aurretik kontzejuen elkarrekin negoziatuta eta adostuta.

) Gune degradatuetan (harrobiak, kontrolik gabeko zaborteak...) ingurunea leheneratzeko eta kutsatutako lurzatiei dagokienez nitxo ekologikoak berreskuratzen saiatzeko udal planak lantzeko diru-laguntza deialdia, baita.

) Bioaniztasunari buruzko azterlanak zabaltzea ingurune babestuetatik kanpo dauden gunetara.

) Bioaniztasunaren adierazlea jarduera sozioekonomikoari buruzko plan guztietan kontuan hartzea.

) Ingurumenaren egungo kontrol eta zaintza baliabideak indartzea.

E. URAREN POLITIKA

EH Bilduren ustez, uraren kultura berria behar du Arabak. Helburua ur-masen egoera ekologiko ona lortzea da, eta, horretarako, “kalitate” kontzeptua aldatu behar da (ez gara uraren kalitateaz ari, ekosistemaren kalitateaz baizik). Horren bidez, ekosistema-ikuspuntu bat ezarriko dugu. Ura ez dago isolatuta naturan; aitzitik, ekosistemak lotzen dituen elementua da. Beraz, ibai baten arroa kudeatzea urtegiak eta araztegiak kudeatzea baino gehiago da. Azkenik, beharrezkoa da herritarren esku-hartzea kudeaketa horretan eta kudeaketaren gardentasuna. Erabiltzaile eskubidea baino, herritarron eskubidea da uraren kudeaketan parte hartzea.

URAREN KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA

Amaitu berri den legealdian PNVren Foru Gobernuak goitik beherako eredu zentralizatua eta partzuergo bakarra bultzatu ditu. Honen aurrean EH Bilduk proposatu eta proposatzen jarraituko du Arabako uraren kudeaketaren diagnostiko erreala egitea eta kudeaketa iraunkorrerako proposamen bat zehaztea (partzuergo txikiak sortzea, arazketa-sistemak ezartzea, ur-masei balioa ematea eta abar). Zehazki, honako hauek dira EH Bilduren proposamen nagusiak:

┐ Toki erakunde txikiei babesa ematea Uraren Esparru Zuzentzarauaren eskakizunak betetzeko (prestakuntza, aholkularitza, finantzaketa...). Halaber, industriei pizgarriak edo babesa ematea eskakizun horiek betetzeko.

┐ Uraren kudeaketa publikoaren aldeko apustu irmoa egitea eta pribatizazioak saihesteko neurriak hartzea. Ildo horretatik, oso larria iruditzen zaigu PNVk baliabide natural hau kontrolatzeko nahian, egiten ari den kudeaketa mugimenduak Arabako Partzuergo zentralizatua eta Errioxako enpresa merkantila bultzatuz.

┐ Edateko ura eskuragarri izateko eskubidea ziurtatzea (ordaindu ezin izateagatiko ur hornidura etetea saihestea).

┐ Udalerrri guztiek euren premietara egokitutako saneamendu-sareak izateko lan egitea. Hondakin-urak oraindik ibaietara isurtzen dituzten udalerrri eta gunen txikietan, “*iragazki berdeak*” ezartzeko aukera balioetsi behar da. Horrelako herrietan, aukera hori araztegi handien aukera baino hobeto dimentsionatuta dago, kudeatzeko autonomia ematen du eta inbertsio txikiagoa eskatzen du.

URAREN HIRI ZIKLOAREN IKUSPEGIA

Arlo honetan ere badago zer hobetu eta zer aldatu, eta horretarako, hauexek dira EH Bilduren proposamen nagusiak:

┐ Toki erakunde kudeatzaileekin elkarlanean, Arabako ur-sare osoaren diagnostiko integrala egitea: ur-baliabideen egoera, uraren kalitatea, galdutako ur-kantitateak, kontsumoak, sarearen egoera, azpiegituren egoera...

┐ Diagnostiko horren ondorioz, eta elkarlan horren gauzapean gisa, toki erakundeei laguntzea uraren eskaria kudeatzeko planak ezartzen.

┐ Gasteiz aldean dauden uholde-arazoak saihesteko esku hartu behar du Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzarekin eta zoritxarrez Arabako uren kudeaketan aginte gehiegi Confederación Hidrográfica del Ebro estatu erakundearekin batera. Hasteko eta behin, Iberdrolaren Zadorra Sistemaren kudeaketa eta ustiapena berriz negoziatzea eskatzen du EH Bilduk, baita aldiro-aldiro gertatzen diren uholdeek eragindako kalteetarako tasa bat sortzea ere.

┐ Ur masen (ibai, hezegune, urtegi eta abarren) eta edateko uraren egoera kualitatibo eta kuantitatiboaren informazio zehatza eta benetakoa aldiro ematea Arabako Foru Aldundiak.

Merkturatuaren diren ur botilaratuen ordez txorrotako uraren kontsumoa sustatzeko kanpainak egitea, ostalaritzari ez ezik, herritar guztiei ere bideratuta.

Kontsumitzeko urak desinfektatzeko sistemen (klorazioaren) alternatiba berriak bilatu eta proposatzea, eta fluorazioaren premiari eta ondorioei buruz eztabaidatzea.

Foru eraikinetako lorategien ureztapena arrazionalizatzea eta toki erakundeekin batera ildo horren aldeko kanpainak sustatzea, herritarrei pedagogikoki ikusarazteko normala dela abuztuan soropila horituta egotea

UR MASAK ETA UR EKOSISTEMAK

2023. urterako helburu oso zehatza eta argia ezartzen du EH Bilduk bere buruari: Gasteizko eta Arabako ur masa guztien egoera ona izatea. Horretarako hauek dira proposamen nagusiak:

Udan emari ekologikoekiko errespeturik eza borrokatzea eta gehiegizko ongarritzearen eta nekazaritza zein abeltzaintza jardunbide txarren ondoriozko eutrofizazioa kontrolatzea eta zigortzea. Honek eskatzen du URA agentziaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hobetzea eta sakontzea.

URA agentziarekin lankidetzan, akuifero estrategikoak (Subijana kareharriak, Kuaternarioko akuiferoa eta abar) betetzeko eremuak babesteko perimetroak ezartzea.

Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuen betetzea kudeaketa-planen bidez ziurtatzea.

Hezeguneen egoera ekologiko ona ziurtatzea eta mehatxuak saihestea (isurketak, materia organikoa eta abar).

Zadorra ibaiko urtegien titulartasun publikoa negoziatzea, ezin dugu onartu diktadura frankistak emandako pribilegioen ordez baliabide estrategiko hori interes pribatuaren arabera kudeatzen jarraitzea eta ez kudeatzea interes publikoaren arabera.

Arabako Ibai sarea korridore natural gisa bultzatzea, konektibitate ekologikoa lortzeko.

Ibaiak eta ur-masak garbitzea: ulertaraztea ibaiak garbitzea ez dela “kanala hobetzea” (askotan ibaiaren kontrako eraso izaten da hori), ibai-sisteman agertzen diren eta ibaiarenak ez diren elementuak (hondakinak) desagerraraztea baizik.

URAREN KUDEAKETA

Legealdiaren balantze moduko bat

Arabako Foru Aldundiak legealdi honetan onartu du 2016-2026 Arabako Ur Hornikuntza eta Saneamendu Plana. EH Bilduk egiten duen balorazioa plan hori guztiz partziala dela eta ez duela aintzat hartzen Arabako uren ziklo osoaren kudeaketa. Izan ere, ez du uraren plangintza eta kudeaketa bere osotasunean jasotzen, goi-hornidurako azpiegiturei baino ez dielako eragiten, hots, behe-hornidura eta

saneamenduko sareak, industria arloa eta nekazaritza sektorea plan horretatik kanpo dira. Esate baterako, Arabako Ibarretako ureztaketa proiektua edota Barrongo urtegia plan horretatik kanpo geratzeak ez du zentzurik, ez bada hirigintza espekulazioa errazten duten azpiegiturak lehenetsi nahi direla; izan ere, plan horretan beharrezko jarduerak lehenesteko puntuazio altuena daukan irizpidea etorkizuneko hirigintza garapenei lotutako hornidura izatea guztiz esanguratsua da, eta ezin hobeto islatzen du EH Bildu eta PNVren proiektuen arteko desberdintasun estrategiko sakonak: EH Bilduk uraren kudeaketan ingurumen balioak lehenesten dituen bitartean, PNVk jarraitzen du gizateriaren biziraupenerako estrategikoa den arlo honetan porlana eta adreiluak hobesten.

Legealdi honetan PNVk uraren kudeaketaren arloan sustatuko bigarren proiektu estrategikoa Ur Partzuergo bakarreko proposamena izan da. Hemen ere guztiz jarrera desberdina dauka EH Bilduk: ez gatoz bat Diputazioak partzuergo bakarreko bere proposamena “*eskaintzeko*” erabilitako metodologiarekin, Toki Erakunde eskudun bakoitzari banaka azalduz; izan ere, legealdiaren azken txanpan PNV saiatu da, maltzurkeria eta mehatxuak konbinatuz, egungo toki erakunde kudeatzaileak muturreko bi egoeraren artean aukeratzera behartzen: “*Edo egoera negargarri honen ondorio eta behar guztiei zeure kabuz eta bakar-bakarrik egiten diezu aurre edo gure planteamenduan sartzen zara eta ez duzu izango zertan kezkatu, Diputazioak zeure arazo guzti-guztiak konponduko dituelako*” Gure ustez estrategia honen oinarria beldurra eta txantaia dira.

ILDO NAGUSIAK ARABAKO UREN KUDEAKETA DELA-ETA

1. Urari buruzko kultur berri batekiko sentsibilitatea sustatu behar da arabarron artean, gure gizartearen eremu desberdinetara (administrazioa, hezkuntza komunitatea, gizarte osoa....) bideratutako berariazko kanpainen bidez.
2. Ezinbestekoa da ura kudeatuko duen edozein erakundek bete beharreko gutxieneko eskakizunak estandarizatzea, beti ere goi- zein behe-horniduraren kudeaketa integrala kontuan hartuta.
3. Toki Erakunde eskudunen autonomia eta euren uraren gaineko kudeaketaren kontrola defendatzea funtsezko zutabea da.
4. Sortuko den edozein Erakunde kudeatzaile berrik bere erabaki guneetan toki erakundeek kontrol publikoa bermatu beharko du. Arabako Errioxan PNV sustatzen ari den mugimenduak egungo partzuergoa enpresa merkantil bilakatzeko eta bertako toki erakundeek orain arte uraren gainean izan duten kontrol publikoa ezabatzeko bertan behera uzteko konpromisoa hartzen du EH Bilduk.
5. Kudeaketa aukera desberdinak egon daitezke, ez bakar bat. Ildo horretatik, guztiz onartezina da PNVren Foru Gobernua Ur Partzuergo bakarreko proiektua aurrera ateratzeko eramandako ildo politikoa, mehatxu, beldur, gezur eta txantai hutsean oinarrituta.

7. EH Bilduk “Arabako Ur Agentzia” izandakoaren antzeko zerbitzu bat abiarazteko konpromisoa hartzen du, zailtasunak izan arren kudeaketa bateratuaren alde (bestelako elkarteen bidez, esaterako partzuergoak sortuz) egingo duten Toki Erakunde guztiei laguntza administratibo, juridiko eta teknikoa ematearren, beste garai batzuetan Diputazioak berak egiten zuen bezalaxe.

16. EUSKARA

DIAGNOSTIKOA

Ukaezina da euskarak azken hamarkadetan Araban egindako ibilbide oparoa, eta oraindik ere Araban euskararen egoera normalizatzeko bide luzea geratzen bazaigu ere, neurri handi batean euskarak Araban dituen arazoak eta mugak ez dira beste herrialdeetakoetatik horren desberdinak:

-)] Alde handiegia dago ezagutza eta erabileraren artean. Ezagutza gero eta handiagoa bada ere, eta belaunaldi gazteen artean egoera guztiz normalizatu batetik hurbil dagoen bitartean, erabileran ez dugu lortzen jauzi kuantitatiborik ematea.
-)] Arreta berezia eskaini behar zaie oraindik ere euskararen *lurralde asketik* kanpo bizi diren biztanleria taldeei, eta horien artean mundu osotik azken hamarkadetan iritsitako arabar berriei, bereziki haur eta gazteen euskalduntze lasterrari dagokionez.

Legealdi honek ekarri du PPK 2011-2015ean euskararen arloan garatutako politika ziztrinaren amaiera, krisiaren aitzakipean ezarritako diru murrizketak eta Arabako gizartearen aldaketa soziolingustiko begi-bistakoarekiko erabateko utzikeria oinarri nagusitzat zituen. Ildo horretatik, 2016-2017an EH Bilduk eta PNVk lortutako akordio hitzarmenen ondorioz Araban inoiz baino diru gehiago inbertitu da hizkuntza politikan eta lehen aldiz ekimen guztiz berriak eta berritzaileak plazaratu dira; hona hemen legealdi honetako lorpen nagusienetakoak:

-)] Kuadrilletako Euskara Teknikarien lanpostuak egonkortu dira, FOFELen Foru Arauaren bidez Kuadrilletako oinarrizko langile plantillan ezarri eta horien finantzazioa ziurtatuz. Horrekin batera, Kuadrillek berek berezko ekimenak burutzeko finantzazioa bermatu da.
-)] Euskarazko jarduerak sustatzeko *Birika* programa gehitu zaio ohiko deialdiei, arnasguneen ekimenak finantzatzeko.
-)] Arabako euskarazko komunikabideentzat lehen aldiz diru-laguntzen deialdi propioa ezarri da.
-)] Aurrekontu akordioa egondako bi urteotan Trebiñuko ikastolak diru-laguntza jaso du bertan hainbat obra egiteko eta ikastola bera txukuntzeko.
-)] Arabako berezko ezaugarriak kontuan hartuta eta arabar heldu guztien euskalduntze prozesua errazteko, lehen aldiz euskaltegien gela desplazatuek diru-laguntza ildoan izan dute. Halaber, arabar guztien matrikula prezioa merkatzeko diru funtsa sortu da, doakotasunerako bidean Foru Aldundiak laguntzeko.
-)] Euskara Arabako enpresetan txertatzeko *Lanabes* programak ere finantzazio duina izan du lehen aldiz.
-)] Kirol klub eta federazioen euskalduntzerako ere diru-laguntzak abiarazi dira.

J Legealdiaren amaieran, Foru Gobernuarekin adostu dugu 2019-2022 Euskaren Plan Estrategikoa. Gure ekarpenen bidez dezente hobetu dugu, batez ere ebaluazio eta plangintza mekanismoak zehaztuz eta Euskalgintzarekiko elkarlanaren beharra bereziki azpimarratuz.

Izan ere, eta alde negatiboei bagagozkie, arazo larrienetarikoa da oraindik ere instituzioak euskaldun eta euskaltzaleen atzetik doazela. Horren ondorioz, gehienetan, euskalgintzaren txinaurri lanaren ondorioz etorri dira lau urteotako berri pozgarrienak: 20 eta 21. Korriken ibilbide arrakastatsua eta 21.arenaren amaiera apoteosikoa, Euskaraldiaren ikusgarritasuna, Gasteizen eta herrietan sortutako arnaguneek egindako lan oparoa, ezagutzaren zabalpena... Are gehiago, oraindik ere ugari dira euskalgintzari mesfidantzaz begiratzen dioten alderdi eta arduradun politikoak, eta hizkuntza politikaren garapen estrategikoa eta horri lotutako funtsezko proiektuak kalkulu alderdikoi hutsen arabera larriki baldintzatzen dituztenak. Alde horretatik, legealdi honetako kapitulu tristeena da Urtaran alkateak Gasteiz Antzokiaren inguruan idatzitakoa: Gasteizko euskalgintzak hamarkada luzez eskatzen daraman proiektu estrategikoa gauzatzeko alkate batek inoiz izan duen aukerarik onena zapuztu egin du Urtaranez eta legealdiaren amaieran balantze ezin negargarriagoa aurkeztu diezaieke PNVk Gasteizko euskaltzaleei. Luzamendu zentzugabeetan murgilduta, mota guztietako aitzakiak erabilia eta Gasteiz Antzokiarekin inolako zerikusirik zeukaten beste eztabaida batzuk baliatuta, orain dela lau urte zegoen toki eta egoera berean dago Euskararen Etxea.

HELBURU OROKORRA

Euskaraz osorik bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, ohiko hizkuntza bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

EH Bilduren hizkuntza politikarako proposamena gaur egungo errealitatetik abiatzen da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa da. Hizkuntza politikaren oinarriak Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak proposatutako gutxienekoak dira:

- Burujabea, kanpoko esku-hartzerik gabekoa.
- Euskarari estatus juridiko egokia eskaintzen diona.
- Euskara erdigunera eraman eta baliabide nahikoak dituen: euskararen normalizazioaren zentralitatea aldarrikatu eta praktikara eramango duena.
- Elkarlana, lidergo partekatua eta zeharkakoa: euskararen normalizazioa norbanako eta eragile guztien bultzadatik, auzolan estutik, eta erakunde zein administrazio ezberdinen koordinaziotik etorriko da.
- Hizkuntza politikaren xedea euskararen hiztun komunitatea izan behar da, berau burutzerakoan herriek, hiriburuak eta Kuadrillek hizkuntza politika gauzatzeko garrantzia berezia izango dute.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Legealdiaren amaieran EH Bilduren babesarekin onartutako Euskararen Plan Estrategikoa da funtsezko tresna datozen lau urteetan euskarak behar eta merezi duen jauzi kualitatiboa eman dezan Araban, eta horri lotu behar zaio Foru Aldundiak garatuko duen hizkuntza politika, beti ere eta Planaren Oinarriak atalean bertan jasotzen den moduan zera kontuan hartuz: *“Plan honek arrakasta izango badu, ezinbestekoa da lidergo hori konpartitzea Arabako euskararen sustapenean zein normalizazioan hamarkada luzeotan lan eskerga egin duen mugimendu euskaltzalearekin”*.

1. Administrazioa euskalduntzea

┐ Administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza irizpideak zehaztea eta ezartzea. Administrazioarentzat lan egiten duten enpresa guztiek hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte.

┐ Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.

┐ 16 urtetik beherakoekiko harreman eta jardueretan administrazioak euskararen erabilerari lehentasuna emateko neurriak onartzea.

┐ Arabako herrietan eta arlo zehatzetan lanean diharduten arnasguneak babestu, indartu eta zabaltzea, elkarren osagarriak diren sare bereko elementu estrategikoak direlako batzuk eta besteak.

┐ Arabako Foru Aldundiaren Euskara Barne Plana Euskaren Plan Estrategikoaren baitan txertatzea, Arabako Foru Aldundiaren hizkuntza politika eredugarria izateaz gain, Plan Estrategikoaren garapenarekin batera joan dadin.

2. Euskararen sormena eta zabalkundea bultzatu eta sustatzea

┐ Hainbat urtetako hitzarmenak sustatuko ditugu euskarazko toki komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko, Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin berriki sinatutako hitzarmenaren baitan.

┐ Administrazio publikoaren euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen diren komunikabide guztietan.

┐ Euskal kulturaren sormena eta kontsumoa sustatzea, euskal kultura indartzeko helburuarekin, *Birika* programaren finantzazio lerroa handituz.

┐ Kirolaren euskalduntze bidean lan egitea, Arabako kirol federazioarekin eta klubekin euskara normalizatzeko elkarlana areagotuz. Horretarako egungo diru-laguntzen ildoan sakondu beharra dago.

┐ Erabilerari dagokionez, lehentasuna gazte eta haurren erabileran jarri behar dugu, gazte eragileekin elkarlana sustatuz gazteek eurek hizkuntza normalizazioaren eta erabileraren sustapena euren gain hartu dezaten.

- ### 3. Eremu sozioekonomikoa euskalduntzea

- #### 4. Sentsibilizazioa eta euskalduntzea bultzatzea

- ARABAKO HERRI PROGRAMA 119 | 141

17. KULTURA

DIAGNOSTIKOA

EH Bildurentzat, Kultura ez da atal bat gehiago edo azken tokian uzten den atal bat, pertsona gisa eta herri gisa libre egiten gaituen ondarea baita. Kultura tolerantziaren eta errespetuaren oinarria da, baina baita espiritu kritikoa ere, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa dena bereizten jakiteko, egungoak bezalako garai gorabeheratsuetan.

EH Bilduk kultura bere zentzu zabalean ulertzen du, gure hizkuntza, historia, literatura eta musika ezagutzetik gure lurraldean elkarren ondoan bizi diren kultura eta hizkuntza guztiak ezagutu eta errespetatzeraino.

Kulturatzat hartuta artea, musika, literatura, arkitektura eta ondare materialaren eta immaterialaren babesa. Eta ondare immaterialaz mintzo garenean, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren tradizio, ohitura eta jakintza guztiez ari gara.

EH Bilduk uste du kultura pertsona guztien esku egon behar dela. Kultura ezin da utzi elite batzuen esku, ezta kultura “erabili” egiten duen klase politikoaren gidaritzapean ere, talentu berriak aurkitu eta bide berriak urratzeko hura oinarritik sustatu eta bultzatu baino gehiago.

HELBURU OROKORRA

Horregatik guztiagatik, EH Bilduk eredu eta egitura parte-hartzaileak bultzatuko ditu, Gasteizen eta Araban, bere lan politikoaren oinarriak ezartzeko. Parte-hartzea bultzatuko du, ez bakarrik entzuteko eta kontsultatzeko, sektore sortzaileei eta sormen horren jomuga diren publikoei begira; horrez gainera, bere ateak zabalduko ditu, partaidetza erreala izan dadin ere erabakiak hartzean eta erabaki horiek betearaztean.

Zehazki, kontuan izanik gure lurraldeko sakabanaketa eta desoreka demografikoak, EH Bilduk bultzada emango die sortzaileek, herritarrek, kultura-elkarteek eta beste eragile batzuek osatutako sareei, kultura-jarduerak Arabako txoko guztietara irits daitezen.

Sinergiak sortu behar dira Arabako Musika Eskolen eta Gasteizko Kontserbatorioaren artean, trukeak eta elkarlana sustatu Arabako museoan eta erakusketa-aretoen artean. Erakargarri nagusiak –Artium, Santa Maria Katedrala edota Gatz Harana– beren konfort-eremutik atera eta elkarlanean aritu behar dira beste egitasmo batzuekin.

Publikoen prestakuntza lantzeke dagoen gaia da, beharrezkoa kulturarekiko maitasuna eta jakin-min intelektuala sustatzeko. Gainera, kultura beste diziplina batzuekin lotu behar da: hala nola ingurumenarekin, nekazaritzarekin, baita gizarte gaiekin ere.

Azken batean, kontua da kultura zubi gisa ulertzea, distantziak laburtu eta komunikazioa, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzen dituen.

Amaitzeko, EH Bilduk kultura sektoreko langile guztien lan baldintza duinak defendatzen eta defendatuko ditu. Kultura, sektore profesional gisa, aisiaren eta boluntariorzaren esparru tradizionaletatik emantzipatu behar du.

Alde horretatik, aurreko guztiaren elementu aglutinatzaile gisa, aipatu behar da Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa onartu dela legealdi honetan, EH Bilduren babesarekin, gure ekarpenak onartuak izan ondoren. Besteak beste, parte-hartzearen eta kogestioaren beharra azpimarratu genuen, kultura politika egoki bat egiteko, eta PNV-PSE gobernuak diru-sail batzuk onartzea plan hori martxan jartzeko. Jakina, plana, 2015-2019 legealdiaren amaieran onartua, modu egokian garatu beharko da hurrengo legealdian, eta horixe da EH Bilduren konpromiso gakoetako bat.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Kultura parte-hartzailea sustatzea

-)] Sektoreko protagonistak (administrazioa, enpresak, sortzaileak) elkartuko dituzten mahai sektorialak sortzea.
-)] Arabako foru kultura zentroen kudeaketa parte-hartzailea eta kudeaketa partekatua sustatzea kultura ekimenekin, sortzaileekin eta abarrekin, gune publikoen kudeaketa pribatua saihestuta.
-)] Autokudeketako oinarria duten proiektuak lehenestea laguntza publikoak ematean.
-)] Neurriak hartzea autokudeatutako guneak sustatzeko, hala nola lokalen lagapena eta talde artistikoentzat entseguko lokal publikoak sortzea.
-)] Lokal horiek guztiak batuko dituen Arabako autokudeatutako kultura zentroen sarea sortzea, haien eskaerei erantzun ahalko diona, kultura garaikide eta alternatiboari irekitako kultura gune handi baten moduan ulertuta gisa, diziplina artistiko eta kultura kolektibo desberdinei zabaldua.
-)] Kultura librea sartzea laguntza jaso dezaketen kultura proiektuen balorazio irizpideen artean (proiektuetan software librea erabiltzea, erabilitako lizentziak, eduki libreak sortzea eta abar).

2. Euskarazko kultura sorkuntza sustatzea eta babestea

-)] Kultur deialdi “*orokorretari*” euskarari eta euskal kulturari toki ematea eta kontzientziazio kanpainen bidez lehentasunez sustatzea.
-)] Euskarazko proiektuak balioestea eta lehenestea edozein diru-laguntza deialditan.

)] Euskaraz sortutako kulturaren kontsumoa sustatzeko kanpainak.

3. Kultura inbertsio eta garapen sozioekonomikoko motor gisa

-)] Kulturarako sarbidea bermatzea sektore pobretu eta prekarizatuenei (langabeak, gazteak, erretirodunak...) kultura arloan trebatu, parte hartu eta gozatzeko aukera izan dezaten.
-)] Arabako kultura industria eta ekimen guztiei zuzendutako laguntza jarraituak sortzea, industria horiek “enplegu sorgune” bat izan baitaitezke.

4. Ondarea.

)] ONDARE IMMATERIALA

Arabako ondare immateriala babestea, kontserbatzea, ezagutaraztea eta hurengo belaunaldiei helaraztea izan behar da helburu nagusienetakoa. Herriaren jakinduria osatzen duten elementuak: etnografia, kanta, dantzak, herri inauteriak, esaerak, ahozko literatura, toponimia, ohiturak,... bildu behar dira, gal ez daitezen eta hurrengo belaunaldiek ezagutu ditzaten.

Proposamenak:

- o Ondare immateriala osatzen duten elementuak gordetzeko eta kontserbatzeko plangintza bat egitea.
- o Arabako Ondare Immateriala ezagutaraztea:
 - Publikazioak bultzatzea.
 - Hezkuntza kurrikulumerako materialak prestatzea.
 - Kontzeju, Udal eta Kuadrillei laguntzea ondare immateriala kontserbatzeko har dezaketen ekimenetan.

)] ONDARE MATERIALA.

Oso oparoa den Arabako ondare historiko eta artistikoa babestu, kontserbatu, balioan jarri eta ezagutarazi behar da. Horretarako ondoko proposamenak:

- o Ondarea babesteko, kontserbatzeko, balioan jartzeko eta ezagutarazteko **plan estrategikoa** egingo da. Bertan irizpideak, lehentasunak, finantzazio bideak eta ekimen nagusiak zehaztuko dira. Helburuak:
 - Ondare historiko eta artistikoaren inbentario eguneratua izatea.
 - Arriskuan dauden aztarnategiak babestea.

- Interes berezia duten aztarnategiak txukundu, balioan jarri, seinalizatu eta informazio-panel egokiak jartzea.
- Urteroko indusketa plana egitea: baimenak, diru-laguntzak, irizpideak finkatzea, kontrolak, kalitate neurgailuak, erantzukizunak, emaitzak...
- Ondare industrial sailkatu, babestu eta balioan jartzea.
- Ondarearen ardura erakunde publikoena da, toki erakunde guztiena (Kontzeju, Udal eta Kuadrillak) eta jendarte osoarena. Arabako Foru Diputazioak diseinatu eta garatuko du plangintza Arabako eragile guztiekin batera, tartean ondare eragileekin, toki erakundeekin, Kuadrilletako turismo arduradunekin eta interesa erakusten duten bestelako eragileekin batera.
- Obra publikoari zuzendutako aurrekontuaren % 1 erabiliko da ondarea babesten eta kontserbatzen.
- Lurraldean diseinatuko diren errepide, obra eta azpiegituren proiektuak egin aurretik behar bezalako indusketa eta azterketa arkeologikoak egingo dira eragin eremuetan.
- Ondarearen errehabilitazioa lanetan herritarren parte-hartze aktiboa bultzatuko da:
 - Iragana ezagutarazteko balio duten neurrian, garrantzia berezia daukate tokiko herritar eta toki erakundeen inplikazioak eta parte-hartzeak.
 - Artziniegako herri museo etnografikoa edo Portilla/Zabalateko gaztelua errehabilitatzeko Zaranako udal inizatiba bezalako herri ekimenei lagunduko zaie. Izan ere, herritarren inplikazioa lortzeaz gain, komunitatea egiten laguntzen dute, herri biziak eta toki garapena garatzen laguntzen dutelako eta herritarrek herriko historia ezagutu eta balioan jartzeko bide eraginkorra delako.
- Museoak:
 - Etengabe eguneratu, hobetu eta promozionatzearekin batera (La Hoya...), museo ordu-tegiak eta bisitatzeko baldintzak hobetzea (Kexaako gunea monumentala, Henayo...).
 - Itxita dauden museoak irekitzeko edo berriak zabaltzeko azterketa egitea toki erakundeekin batera, turismo aukera berriak zabaltze aldera eta tokiko garapena lagunduz.
 - Gure museoak dibulгатiboagoak bihurtzea.
- Liburutegiak:
 - Liburutegi publikoetan euskarri berrietara egokitutako eskaintza zabaltzea.
 - Beste Diputazioekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera Euskal Herriko Liburutegi Nazionalaren proiektu bultzatzea.

○ Artxibategiak:

- Diputazioaren Arabako Artxibategi Historikoa eta Artxibategi Probintzialaren artean koordinazioa eta osagarritasuna bultzatzea.
- Dokumentuen digitalizazioa azkartzea.
- Elkarlana eta koordinazioa bultzatzea beste artxibategiekin: Apaiztegiko Artxibategia, Antso Jakintsua Fundazioarena, herrietakoak eta artxibategi pribatuak.
- Euskal Artxibategi Nazionala bultzatzea.

5. Kultura feminismotik

- Z** Emakume sortzaileek egindako lanak kultura sorkuntza erakustera bideratutako gune fisiko eta digitalen % 50 har dezala bermatzea.
- Z** Emakumeek egindako lan sortzaileek ere gizonek egindako lan sortzaileek duten denbora bera, presentzia bera, garrantzi bera, eta oihartzun eta hedadura bera izan dezatela bermatzea.
- Z** Euskal kultura sorkuntzaren historia osoan emakumeek egindako sormen lanak ahanzturatik ateratzea, eta garrantzi berezia ematea gaur egungo emakume sortzaileek egindako obrei.

18. KIROLA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Hego Euskal Herriko 10 herritarretik 7 sedentario dira, eta jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Gainera, kirola ez dago krisi sistemikotik salbu; bere garapena kirol-egitura eta jardueretan zentratuta egiten du; eta ez kirolari eta pertsonak ardatz hartuta. Kirolak, jarduera fisikoak, bizitza aktiboak zehaztaperen kontzeptuala behar dute. Kirolaren ikuspegi zabala proposatzen dugu. Jarduera fisikoa gure bizitzetan txertatzea proposatzen dugunean giza mugimenduaren adierazpen guztiak hartzen ditugu: Lehiatzeko entrenatzen den kirolaria, kiroldegira igeri egiten doan herritarra, bizikletaz lanera doan langilea, egunero paseatzera irteten dena edota aisialdirako baratza duena. Guretzat, denak izango dira helburu.

Arabako Diputazioaren kirol politika betiko parametroetan murgildu da: kirol profesionalerako ohiko diru-laguntza politika, batez ere Arabako klub eta kirol nagusien mesedetan; bigarren mailako kirol, federazio eta klubetarako ohiko diru-laguntzak; eskola kirolari dagokionez inolako planteamendu berritzailerik ez, Arabako eskola askotan sortzen ari diren segregazio arazoak borrokatzeko tresna estrategikoa izan badaiteke ere; herrietako kirol azpiegituretan inbertsio gutxi (eta gutxi horien kasu batzuetan klientelismo kasu argiekin edota Gasteizko azpiegitura handien proiektu faraoenikoen mesedetan)...

Elementu berritzaile bakarrak izan dira 2016 eta 2017ko aurrekontu akordioetan EH Bilduk txertatuak: Diru-laguntzen deialdi bat Arabako federazio eta klubek euskalduntze planak abiarazteko, diru-laguntzen beste deialdi bat Arabako federazio eta klubek berdintasun planak ezartzeko eta Denon Eskolarekin sinatutako hitzarmenaren bidez Arabako eskola publikoetako kirol eskolaren egoerari buruz egindako azterlan mamitsua bezain interesgarria. Tamalez, eta PNVk EH Bilduren aurrekontu akordioak apurtu izanaren ondorioz hitzarmen horretan bertan Denon Eskolak proposatutako neurriak ez ziren gauzatu, nahiz-eta azterlan horretan argiro azaltzen zen Arabako eskola publiko ugaritan bizi diren segregazio arazoek zuzenki eragiten dutela bertako ikasleek ez edukitzea inolako aukerarik eskola kirolean jarduteko eta, aitzitik, eskola kirola, beste tresna batzuekin batera, oso neurri egokia izan zitekeela segregazio arazoek ikasle horiengan umetatik sortzen dituzten bazterketa egoerak gainditzeko.

HELBURU OROKORRA

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiari dagokionez, EH Bildurentzat honako arlo hauek dira funtsezkoenak hurrengo legealdirako:

-)] Eskola Kirola, umetatik desberdintasun oro (jatorri, genero, funtzionalitate eta abarrei lotutako guztiak) gainditzeko tresna ezin hobe baia.
-)] Kirola euskaraz, batez ere haur eta gazteen erabilerari begira daukan balio estrategikoagatik.
-)] Kirola eta genero berdintasun politika, umetatik genero berdintasunaren balioak landu eta neska zein mutilengana txertatzeko.
-)] Arabako kirol azpiegituren mapa orekatua, erabilgarria eta irisgarria eskuratzea, arabar guztiok aukera izan dezaten euren nahi eta beharrei egokitutako kirol jarduera burutzeko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Eskola kirola elementu sozial aglutinatzaile gisa bultzatzea

-)] Denon Eskolarekin hitzarmen bat sinatzea eta berariazko partida bat sortzea sare publikoko eskola guztietan eta bereziki zailtasun bereziak dituztenetan eskola kirola sustatzeko
-)] Sentsibilizazio kanpainak antolatzea berdintasuna eta lankidetzat sustatzeko eskola kirolaren esparruan.
-)] Kirol jarduera inklusiboak eskaintzea, helburu pedagogikoekin.
-)] Kirol anitzeko praktika bultzatzea, presio lehiakorra saihestuta, mutilak eta neskak nahastuta eta kultura aniztasuna kontuan izanda.
-)] Administrazioaren, federazioen, klubaren, elkartearen, ikastetxearen eta Ikasleen Gurasoen Elkartearen arteko hitzarmenak sustatzea kirol modalitate desberdinak sartzeko eskolaz kanpoko jardueren bidez (curriculumean sartzea).

2. Kirola eta euskara

-)] Arabako kirol eta klubetan euskarazko jarduerak sustatzeko eta ezartzeko diru-laguntzen deialdia egonkortzea eta diru kopurua handitzea.

3. Genero berdintasuna sustatzea kirolean eta bizitza aktiboan

-)] Genero berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako kudeaketa ereduak ezartzea Araban diharduten kirol erakundeetan, lankidetzat hitzarmen bidez.
-)] Arabako kirol eta klubetan berdintasun planak ezartzeko diru-laguntzen deialdia egonkortzea eta diru kopurua handitzea.
-)] Kirol jardueretatik eta bereziki eskola kirolek jarrera sexistak (matxistak zein homofoboak) ezabatzeko kanpainak.
-)] Emakumezkoen egungo kirol esparruak sendotzea eta gehitzea, erabateko berdintasuna helburutzat hartuta baliabide material eta ekonomikoekin dagokienez.

┐ Emakumezkoen jarduera fisiko, kirol eta txapelketak babestu, koordinatu, sustatu eta bultzatzea, informazio eta sentsibilizazio kanpainen bidez.

┐ Emakumezkoen kirol jarduera ezagutaraztea, emakumezkoen kirol erreferentziak ere sortzeko.

4. Instalazioak eta azpiegiturak hobetzea

┐ Foru Aldundiaren kirol instalazioen katalogo hutsetik haratago, horien erabilera errealari buruzko azterlana burutzea, jakitearren zeintzuk dauden azpierabilita eta zeintzuk dauzkaten masifikazio arazoak.

┐ Toki Erakundeekin elkarlana itxita dauden kirol instalazioak berriro martxan jartzeko.

┐ Babesa oinarrizko kirolari eta eskola kirolari, instituzio desberdinen instalazioen erabilera erraztuz.

┐ Foru kirol instalazioetako auditoria energetikoa egitea eta energia berriztagarrien bidez hornitzeko plangintza zehaztea.

5. Kirol jarduera gizarte osoari zabaltzea eta gizarte kolektibo guztientzat eskuragarri bilakatzea

┐ Bizimodu aktiboa sustatzeko instituzio arteko mahai bat sortzea proposatzen dugu, Arabako instituzio guztien artean lankidetza dinamika eta elkarlan estrategia ezartzearen.

┐ Familia adiskidetzarako tresnak martxan jartzea foru kirol instalazioetan (ludotekak, familiarekin bateragarriak diren jarduera eta ordutegiak, besteak beste).

┐ Gune naturaletan kirol jarduerak arautzea.

┐ Esku-hartze berehalakoa eta urgentea behar duten kirol modalitate guztiekin hitzarmenak sinatzea, batez ere iraunkortasun arazoak dauzkaten Araban tradizio handia daukaten kirolei dagokienez: euskal pilota, herri kirolak, txirrindularitza...

┐ Kirol lehiaketetan beharrezkoak diren egokitzapenak sartzeari premia fisiko zein psikologiko bereziak dituzten pertsonen lehiaketa horietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

┐ Hirugarren adinari zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko berariazko kanpainak, estrategia prebentibo, moderatu eta osasungarria gisa, biztanleriaren talde hori etengabe handitzen ari baita.

19. GAZTERIA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Arabako gazteria jendartean kokatzen den kolektibo espezifikoa da eta, Arabako jendartea bezala, kolektibo hau ere anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara, ez garelako arlo edo eremu zehatzean kokatzen den gazteriaz ari.

Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa izateaz gain, Arabaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten digun sektorea gara. Gazteok zapalkuntza integrala jasaten dugu, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozorrotua, eta horregatik, horren aurrean irtenbide integralak behar ditugu.

Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharreko esparrua da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriaren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko.

Ildo horretatik, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Arabako gazteon oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta gazteon nahi eta beharren arabera.

Gazteak zokoratzen dituen herriak nekez izango du etorkizun oparorik. Hori dela eta, gazteon bizitzan eragiten duten aspektu guztietan gure hitza entzun eta kontuan hartzen dela bermatu behar dugu. Hortaz, bizitza sozial, politiko eta kulturean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren oinarritzko baliabide materialak bermatze aldera lan egingo du EH Bilduk. Gazte burujabeak behar ditu herri honek, ondorioz, denon beharrianak asebetetzeko eskaintza zabal eta integralak egitea zein martxan jartzea izango da gure helburua:

EH Bilduk konpromisoa hartzen du gazteok gure bizi proiektuak Araban garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak bermatze aldera (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) lan egiteko.

Gazteongan forma konkretua hartzen dute sistemak eta hortik eratortzen diren desoreka sozial eta ekonomikoek, eta prekaritatea errealitate aldaezina dela sinestarazi digute. Honek, erantzun berezitu eta zehatzak exijitzen ditu, arlo guztiak zeharkatuko dituen neurri ildoak proposatu eta martxan jartzea beharrezkoa izanik.

Bizitza politiko, sozial zein kulturean gazteon parte hartzea ere ezinbestekoa da, gure eskubideak bermatu eta jendartearen transformazioa bultzatzeko beharrezkoa den heinean.

EH Bilduk, beraz, Arabako gazteon nahi eta beharrak kontuan hartuta, erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteok pairatzen ditugun arazo espezifikoak jendarte osoarenak ere badira, eta norabide horretan lan egitea ezinbestekoa zaigu. Izan ere, gazteon oraina eta etorkizuna bermatzeko aukerak ematen ez duen jendarteak etorkizun iluna du. EH Bildu osatzen dugunok emango diren aurrerapausoetan, planteatuko diren aldaketetan eta aplikatuko diren neurri berri guztietan gazteon nahiak eta beharrianak kontuan hartzeko konpromisoa hartu beharko dugu.

Eta Foru Aldundiak, Gazte Foru Erakundeak, zer egiten du gazterian alde? Orain arte, gazteontzakoak omen diren politikak gazte aterpeak kudeatzera eta aisialdiko ekintzak antolatzen baina ez dira bideratu. Egun, ez dago Arabako gazteen beharrak eta premiak asetuko dituen politika integralik.

HELBURU OROKORRA

Gazteok burujabe izan nahi dugu zentzu guztietan. Geure bizitzaren zein geure herriaren etorkizunaren gainean erabaki nahi dugu. Gazteok Euskal Herri askea eraiki nahi dugu, aldaketa horren motor bilakatuz. Horregatik, proposatzen ditugun aldaketa guztiak, helburu orokor horren aldeko bidean egindakoak dira.

Ezinezkoa izango da gure bizitzak sakonki hobetzea egungo eredu kapitalista heteropatriarkala errotik aldatzen ez badugu. Merkatuen eta kapitalaren mesedetara eraikitako sistema osoa deuseztatu, eta herritarron, gazteen, mesedetara begira eratutako sistema propioa behar dugu. Horretarako ezinbestekoa da gaurdanik gure bizi eredu eta filosofian aldaketak ematen hastea, elkartasuna, aberastasuna eta lanaren banaketa eta pertsonen arteko aukera berdintasuna izanik gure oinarritzko balioak. Honekin batera, EH Bilduk martxan jarriko dituen politika ezberdin guztietan, gazte ikuspegia barneratzea oinarritzkoa izango da.

Gure eskaintza planteatutako oinarrien baitakoa da, balioen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteen bizitzak hobetzeko helburuarekin.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. Gazteen bizi baldintza objektiboak hobetzea

- ⌋ Gazteen bizi baldintzak berrikustea eta geure errealitatera eta premietara egokitzea (etxebizitza, oinarritzko errenta, laguntzak, enplegu duina eta abar).
- ⌋ Gazteen premietara egokitutako garraio publikoa bultzatzea, adinaren eta diru-sarreraren arabera, eta landa ingurunekeo joan-etorriak aintzat hartuz, bizitzeko geure ingurunetik kanpora irteteko beharrik izan ez dezagun, horrelakorik nahi ez badugu.
- ⌋ Eusko Jaurlaritzari exijituko diogu alokairu soziala bultzatzeko, tokiko eskatzaile eta eskaintzaileen poltsak sortuz, eta hutsik dauden etxebizitzak berrerrabiltzeko bitartekotza lana egitea, gazteen eta bereziki emakume gazteen emantzipazioa errazteko.
- ⌋ Halaber, etxebizitza eskubide subjektibo bat denez (hau da, etxebizitza eska daitekeen eskubidea da), Eusko Jaurlaritzak, Alokabideren bidez, bermatu behar du 18 urtetik gorako edozein pertsonak

babesturiko alokairuko etxebizitza bat eskatzeko aukera izango duela, eta gutxieneko diru sarrera batzuk edukitzea ez da kontuan hartuko dagozkien poltsetan sartzeko.

- J Gazteontzako kalitatezko enplegua bultzatzeko neurriak aktibatzea, enplegu berdea eta turismo jasangarria sortzeko laguntzak erraztuz.
- J Gazte ekintzaileontzako laguntzak, ekimen kooperatiboentzat bereziki.
- J Gazteon artean ekintzailetza kolektibo eta soziala sustatzeko programak sortzea honako atal hauek kontuan hartuz:
 - o Prestakuntza: Ekonomia sozial eta solidarioarako eta kooperatibismoaren gaineko prestakuntzarako bitartekoak eskaintzea.
 - o Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko eta finantzarioa.
 - o Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako produktu sareak sustatzeko proiektua.
 - o Proiektu horiek garatu eta eskaintzeko mintegiak sortzea.
 - o Arabatik kanpora lanera joan behar izan diren gazte guztien itzulera ahalbidetzeko ekimenak.
 - o Lehen sektoreko ustiategi berriak irekitzeko bideak ematea, jasangarritasunaren, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta produkzio ekologikoaren irizpideei jarraikiz.
- J EH Bilduren ustez, Euskal Herrian aisialdia tresna izan behar da hezkuntza sustatzeko eta sendotzeko, Euskal Herria bera eraikitzeko eta eraldatzeko zein gizarte kohesionatzeko, eragileen arteko elkarlana, koordinazioa eta elkarreragina helburu dituen, bai euren artean, baita kanpo eragileekin ere (komunikabideak, unibertsitatea, sindikatuak,...).
- J Gazteontzat eta gazteekin egindako politiken bidez komunitate hezitzaileak eraikitzeko apustua egiten du EH Bilduk. Ildo horretatik, funtsezkoa deritzogu hezkuntza eragileen prestakuntza eta gaitzea bultzatzeari eta babesteari
- J EH Bilduren ustez, aisialdia eta honi lotutako proiektu hezitzaileak gizarte politiken parte ere izan behar dira. Horretarako, besteak beste, gazteon parte-hartze aktiboa erraztu beharra dago politiken, estrategien eta foru eta udal programen garapenean.
- J Horrez gain, lan baldintza duinak eta genero berdintasuna bermatzea oinarritzat izango duten klausula sozialak txertatzea zerbitzu publikoak kudeatzeko Diputazioak azpikontratatzan dituen esleipen publikoen pleguetan, betiere gizarte ekimeneko erakundeen balio erantsia biltzeko helburuarekin.

2. Gazteon artean ahalduntze prozesuak aktibatzea

- J Instituziotik gazteongana hurbiltzea eta kolektibo eta elkarrekin parte hartzen duten gazteen eta bazkide ez direnen parte-hartzerako bideak bultzatzea, euren proiektuak abian jar ditzaten. Horretarako, Gazte Parte-Hartzerako Foru Kontseiluaren araudia aldatu egingo dugu, arabar gazteoi erabakitzeke ahalmen handiagoa emateko.
- J Gazteok proiektu propioak garatzeko gune, tresna eta baliabideak jartzea, Arabako gazte politiken funtsezko printzipioa den heinean.

- J Garatu beharreko foru politiketan parte hartzeko prozesuak jarriko dira martxan, haien norainokoa eta edukiak mugatuz, eta eremu bakoitzean parte-hartzea zehar-lerro bihurtuko da, aldez aurretik adierazi dugun bezala.
- J Kultura ez-matxista batean hezteak zeharkako ardatza izango da gazteontzako politiketan, eta dauden genero desberdintasunak etengabe salatuko ditugu, sentsibilizazioaren mesedetan.
- J Parekotasunean, baterako hezkuntzan, aukera berdintasunean eta errespetuzko harremanetan heztearen alde egiten dugu.
- J Sormena sustatu eta bultzatzeko baliabideak aktibatzea, baliabide ekonomiko eta azpiegiturak jarri eta ideiak deskargatzeko gune erkideak sortuz, kulturaren munduko gazte sortzaile eta produktoreen sare bat osatzeko helburuarekin.
- J Eredu alternatibo propioak sustatuko dituzten mekanismoak abian jartzeko programak egokitzea eta berritzea, kultura produkzioan diharduten gazte sortzaileen inplikazioa bultzatzeko.
- J Gazteen artean "lehiarik gabeko" kirol praktika sustatzea.
- J Gazteen autokudeaketarako guneak lagatzea, gazteek beren proiektuak modu autonomoan garatzeko aukera izan dezagun.
- J Sormena sustatzeko, ideiak elkartrukatzeko eta ekimen sozial, kultural eta ekonomikoak bultzatu eta sortzeko topaguneak martxan jartzea.
- J Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko neurriak sustatzea. Arreta berezia eskaini behar zaie gazte etorkinen euskalduntzeari, euskal gizartearen kohesiorako daukan garrantzi estrategikoagatik.

3. Jarraiera instituzionala gazteokiko lankidetzara egokitzea

- J Neurri hauek guztiak abiarazteko ezinbestekoa da errotik eta sakonki Gazte Foru Erakundea berrantolatzea, Arabako gazte eragileekin adostuta. Berrantolaketa horrek ezinbestean zeharkako politikak (enplegua, aisialdia, kultura, kirola, etxebizitza, lehen sektorea eta abar) ezartzeko gaitasuna eragin behar du, besteak beste. Horrekin batera, gazteen parte-hartzerako guneak sortu behar dira, zeharkako politika horiek definitu eta abiarazteko erabakitze ahalmena izango dutenak.

20. GIZARTEGINTZA

DIAGNOSTIKOA

Gasteizek eta Arabak 8 urte daramatzate atzera egiten gizarte politiketan. Eskuineko gobernuek (PNV-PP) gizarte zerbitzuak desprestigiatu eta debalatu dituzte, traba burokratikoak jarriz, eta kontrol irizpideak lehenetsi dituzte bestelako irizpideen gainetik (inklusioa, ahalduntzea, zerbitzuen kalitatea eta arretaren kalitatea), erabiltzaile profil jakin batzuk kriminalizatuz eta gizarte zerbitzuak merkantilizatuz.

Arabako gizarte zerbitzuen egoera kezkarria da: baliabideen eta zerbitzuen saturazioa gizarte bazterketa pairatzen duten pertsonentzat eta murrizketak arreta-plazetan; irtenbiderik eman gabe luzatzen diren itxarote-zerrendak (legealdia amaitzear da egoitza plaza bakar bat ere sortu gabe); bertan behera uztea presoek laguntzeko programa; zaintza-lanen prekarizazioa...

Nolanahi ere, kezkarria da halaber Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen egoera: lantalde zahartua (55 urtetik gora, batez beste); % 35etik gorako behin-behinekotasun tasa; behin-behineko langile kopuru handiegia programetan eta langile eskasia zerbitzu batzuetan; atzerapausoak baliabideen zuzeneko kudeaketan, apustu argi bat eginez pribatizazioaren alde eta Gizarte Ongizateko Foru Erakundea zerbitzu pribatuen kontratista huts bihurtuz,...

HELBURU NAGUSIA

Ongizatearen 4. zutabea izango den Gizarte Zerbitzuen Sistema ezartzea, pertsonak erdigunean kokatuta eta haien ahalduntzea bultzatuta, gizarte zerbitzuak eta prestazioak sistema patriarkalak eta neoliberalak berak sortutako egoerei aurre egiteko eskubidetzat harturik.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1. ILDOA: GIZARTE ZERBITZUAK ETA ZAINZA LANAK IRAULTZEA: ERROTUZ PROGRAMA

1. Prebentzioa sustatzea, egoitzan oinarritutako zerbitzuaren gainetik.
2. Pertsonaren beharrei erantzutea, bere ingurunean, bere jendeaz inguratuz. Zerbitzuen deszentralizazioa.

3. Zaintza sare kolektiboak sustatu eta babestea, eta zaintzaileak zaintzea (lan feminizatuak eta prekarioak, gehienak). Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileen lan baldintza profesionalak hobetzea.
4. Rolak alderantzikatzea: Pertsonak ezin dira hartu administrazioaren bezerotzat; aitzitik, Udalak eta Aldundia herritarren zerbitzura egon behar dira. Pertsona orok bere bizimodua erabakitzeko aukera izan dezan lortzea. Erakundearen zeregina da laguntza ekonomikoa eta profesionala ematea.
5. Zehazki, hauek dira ERROTUZ programaren ezaugarri nagusiak:

ERROTUZ **prebentzio** programa bat da, behar bereziak dituzten pertsonak artatzeko, eta xede dauka gizarte artapenaren egungo eredia iraultzea. Helburua da sistema **jasangarria** sortzea, honakook ahalbidetzeko: egoitza batean egon behar izateko premia murriztea, bizimodu autonomo eta independentea sustatzea, norberaren ingurunean bertan artapen integrala bultzatzea, gizartean zaintza sareak sortzea, gizarte zerbitzuak erabiltzeak dakarren estigmatizazioa ezabatzea eta erabiltzaile/bezero kontzeptua apurtzea.

ERROTUZ, finean, proiektu **integrala** da, pertsonak zaintzen erdigunean jarri ez ezik, zaintza horiek duindu eta ikusarazi ere egin nahi dituenak. ERROTUZek **gizarte anbulatorioak** sortzea proposatzen du. Hor profesional talde bat (hezitzaileak, gizarte langileak, fisioterapeutak, zaintzaileak...) kokatuko da pertsonen zerbitzuan, haiek erabaki dezaten nola nahi duten bizi.

- 3.000-5000 biztanleko landa eremuan

- 5.000-10.000 biztanleko hiri eremuan

ERROTUZ honako hauei zuzentzen zaie:

- Adin txikikoak
- Menpekotasuna dutenak
- Buru gaixotasun batek jotakoak
- Gizarte bazterketa sufritzen dutenak
- Desgaitasuna pairatzen dutenak
- Bestelakoak...

2.- ILDOA: ADINEKOEN ARRETA

1. Pertsonen oinarritutako arreta integraleko eredia: *“Hobekuntzak egitea pertsonen bizi kalitatearen eta ongizatearen esparru guztietan, erabateko errespetutik abiatuta –haren duintasun eta eskubideekiko, interes eta lehentasunekiko– eta haren partaidetza eraginkorra bultzatuta”.*

2. Laguntza sareak sortzea adinekoak, nahi izanez gero, beren etxean bizi daitezen. Eredu prekarioak gaindituko dituzten sare profesionalizatuak, zaintza lanak prestigioatuko dituztenak, bizitzaren iraupenaren erdigune gisa.
3. Egoitza zerbitzu berrien sorkuntza bultzatzea (hirugarren adinekoentzako egoitzak, eguneko zentroak eta abar), Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Araban duen eragina murrizteko.
4. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua publiko bihurtzeko urratsak egiten hastea, eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoarekin gara daitezkeen sinergiak aztertzea.
5. Sexualitatearen bizipen askea bultzatzea helduen egoitza zentroetan (LGTBI diren adinekoak ezagutaraztea).
6. Hirugarren adinari zuzendutako zuzkidura-alojamenduen eraikuntza sustatuko dugu interesatuta dauden Udalekin. Eraikin horiek pertsona horien ehuneko handiagoa duten auzoetan kokatuko lirateke eta, era horretan, maizterrak bere gizarte ingurunean jarraitzeko 1. helburua beteko litzateke. Alojamendu horiek sektore horren premietarako bereziki diseinatuta egongo lirateke, eta instalazio eta zerbitzu komunak ere izango litzateke.
7. Zerbitzuak eskuratzeko itxarote-zerrendak murrizteko dauden estaldurak handitzea.
8. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen bereziaren harpidetza finantzatzea.
9. Egoitzek eta eguneko zentroek bete behar dituzten baldintzak onartzea edota eguneratzea: ratioak, zerbitzuak eta abar handitzea.
10. Zaintzaile informalen prestakuntzan, norberaren zaintzari eta ahalduentzearen ikuspuntutik zaintzak banatzeko etxe barneko negoziazioari buruzko edukiak gaineratzea.

3.- ILDOA: ADIN TXIKIKOEN ETA FAMILIEN ARRETA

1. Makro-zentroetan oinarritzen den arreta eredua eraldatzea, hezkuntza arreta zaildu eta arazoak kronifikatu eta areagotzen dituelako. Makro-baliabideen eta makro-egoitzen itxiera planifikatzea, eta egoitza arretaren eredua aldatzea *“adingabeak familia batenak bezalako baldintzak izango dituzten bizitegi txikietan oinarritutako harrera ereduetaarantz”* jotzeko (26/2015 Legea, haurrak babesteko sistema aldatzeari buruzkoa).
2. Lagundu gabeko adin txikiko atzerritarren arreta zerbitzuen berrantolaketa. Gure ustez, adingabe hauen gizarteratzea beste adin txikikoekin erabilitako berbera izan behar da. Beraz, Bideberri zentroa birmoldatzearen alde gaude, lagundu gabeko adin txikiko atzerritarren zentro izateari utz diezaion eta nerabeak emantzipaziorako prestatzeko zentro bihur dadin, haien jatorria edo estatusa gorabehera. Uste dugu beharrezkoa dela lehen harrerako eta larrialdiko zentro espezifiko bat,

kolektibo honen beharrei erantzungo diena, baina txikiagoa (8-10 plaza). Hasierako balorazioaren ondoren, arreta sistema arruntera igaro behar dira, gainerako adin txikikoak bezala.

3. Lehenetsuna emango diogu familia harrerari –egoitza harreraren gaineratik– 6 urtetik beherako tutoretzapeko adin txikiko guztientzat, eta lehen aukera izango da ere adinez nagusientzat. Harrera profesionalizatu eta ez-profesionalizatuko programak eta sareak sortzea eta garatzea.
4. Adin-nagusitasunaren ondorengo bazterkeria egoerei aurrea hartzea eta, horretarako, emantzipazio baliabideak sendotzea. Lankidetzako protokolo bat lantzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Udalen artean, bazterkeria sustatzen duten trantsizioaldiak ezabatzeko (ez deserrolatzea, erreferentziazko profesional berriekin koordinatzea, eta abar).

4.- ILDOA: DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK

1. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako arreta zerbitzuak eta programak egokitzea bizi kalitatean oinarritutako eredura, pertsonengan oinarritutako planifikaziora eta laguntzen paradigmara.
2. Egoitza arretako plaza kopurua areagotzea dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, iraunkorrak nahiz atsedeen modalitatekoak. Egunko arretarako baliabideen dibertsifikazioa dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretan, eta erabiltzaileen behar eta profiletara egokitzea.
3. INDESAREN lan bitartekaritzaren funtzioa indartzea, haren langileei beste lan alternatiba batzuk bilatuta enpresa arruntetan (hala nola lan guneak, lagundutako lana etab).

5.- ILDOA: GIZARTE ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA

1. Uste dugu errolda eskubide bat dela leku batean bizi diren pertsona guztientzat, eta horregatik proposatzen dugu kontuan hartzea espetxean igarotako denbora herritartasun eskubideak –hala nola erroldatzea– sortzeari begira. Behin zigorra beteta, pertsonen gizarteratzen laguntzeko baldintzak sortzea.
2. Gizarte erroldaren normalizazioa herritartasun eskubideak eskuratzeko bide modura. Erroldatzeko aukera izateko lekuak areagotzea eta errolda lortzeko baldintzen murrizketak proposatzea.

3. Baliabideak sortzea zaurgarritasun egoeran dauden edota gizarte bazterketa larria pairatzen duten pertsonentzat. Pertsonak euren bizitzen eta gizarteratze bidearen protagonista gisa kokatuko dituzten baliabide eraginkorrak sortzea, gizarte arrisku egoeratik irteten lagunduko dutenak.
4. PNVk eginiko aldaketak lehengoratzeko eta gizarteratze eredu bat berreskuratu eta indartzea espetxean dauden pertsonentzat, Eusko Jaurlaritzak espetxeen eskumena eskuratu arte.
5. Gizarte zerbitzuak pertsona guztien eskubide gisa aurkeztuko dituzten sozializazio kanpainak egitea, karitateari edo arrazakeriari lotutako aurreiritziak baztertzeko helburuz.
6. Osasun Sailarekin batera buru gaixotasunek edota bizileku bazterkeriak jotako profilekiko arreta egokia koordinatzea.

6.- ILDOA: GIZARTE ONGIZATEKO FORU ERAKUNDEAREN BERRANTOLAKETA

1. Erakundearen lantaldea sendotzea LEP bidez, behin-behinekotasun tasa txikitzeko eta lantaldearen zahartzeari aurre egiteko.
2. Zerbitzuak berrantolatzea eta aldaketetara egokitzea.
3. Zerbitzu berriak zuzenean kudeatzeko apustua.
4. Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen berezko zerbitzuen eta zerbitzu azpikontratuen kategoria profesionalak erregulatzea.

7.- ILDOA: UDALERRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK

1. Autonomia handiagoa ematea Arabako udalerriei beren eskumeneko gizarte zerbitzuak antolatzeke (Landa Eremuetako Eguneko Arreta, Etxebizitza Komunitarioak, Tutoretzapeko Apartamentuak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua,...).
2. Aldebiko mahai bat sortzea udalekin eta Foru Aldundiarekin, euren eskumenak hobeto kudeatu nahi dituzten udalak diskriminatuko ez dituen finantzazio eredu bat adosteko.
3. Gizarte Zerbitzuen Inplementaziorako Aparteko Funtzaren kudeaketa udalen esku uztea.

21 OSASUNGINTZA

Arabako Foru Aldundiak osasun arloan eskumenik ez badu ere, garrantzitsua iruditu zaigu Herri Programa honetan zehaztea EH Bilduk Foru Gobernu berritik Eusko Jaurlaritzari egingo dizkion eskakizunak, arabarrok alor honetan ditugun beharrei erantzuteko, Arabako mapa (sozio)sanitarioaren gabezia eta desoreka larrietatik hasita, EAEko errealitate guztiz desberdinak modu homogeenan tratatzen dituen politika baten ondorio direnak.

1.- Mapa sanitarioa berregokitzea Arabako lurraldean, hazkunde demografikoaren aurreikuspenen eta premia soziosanitarioen arabera. Alde horretatik, uste dugu inbertsio handi bat egin behar dela Arabako ospitale asistentzia hobetzeko, eta sakon berrantolatu behar dela lurraldeko ospitale mapa. Lehenik eta behin, **ospitale oheak berdimentsionatu behar dira, jardueraren eta behar demografikoen arabera**, Europako ratioetara hurbiltzeko, 23. postuan gaudelako EB28an (Gasteizko ospitale oheen kopurua ez da nahikoa: 676 ohe 250.051 biztanlerentzat = 2,7 ohe/1.000 biz.). Bigarrenik, ospitale mapari dagokionez, helburu estrategiko hauek planteatzen ditugu legeintzaldi honetarako:

* **Paziente akutuentzako ospitaleak mantentzea (Txagorritxu eta Santiago).** Ez zaigu egokia iruditzen Txagorritxu paziente akutuentzat izatea eta Santiago, azpiakutuentzat edo kronikoentzat. Bi ospitaleetan, paziente kronikoentzako unitateak zabaldu behar dira, bi ospitale orokorrak mantenduz horrela. Ondo iruditzen zaigu espezialitateak ez bikoiztea bi ospitaleetan, baina komenigarria deritzogu Txagorritxuk eta Santiagok zerbitzu hauek edukitzeari:

- Barne-medikuntza
- Kirurgia Orokorra - Traumatologia
- ZIU
- Ebakuntza-gelak
- Zainketa Aringarriak
- Pediatria Santiagoko larrialdietan.

* **Lezako Ospitalea Arabako Errioxako Eskualde Ospitale bihurtzea, Arabako Errioxako ESIren erreferentea.** Horretarako, inbertsio handiagoa eskatuko dugu azpiegiturretan eta baliabide materialetan. Alde batetik, uste dugu plaza erreserba bat behar dela Kuadrillako paziente kronikoentzat. Gainera, zerbitzu iraunkor hauek eskaini behar dira:

- Ospitalearen estaldura eremuko gaixo kronikoentzako unitatea.
- Larrialdiak, pediatrikoak barne.
- Psikiatria.
- Dermatologia.
- Ginekologia eta Obstetrizia, mamografia zerbitzua barne.
- Laborategia.
- Barne medikuntza.

- Zainketa Aringarriak.
- Oinarrizko erradiologia.
- Errehabilitazio zerbitzua.
- Etxeko ospitaleratzea, Osakidetzak zuzenean kudeatua.

* **Eskualde-ospitale berri bat eraikitzea eta ESI berri bat sortzea Aiaraldeako Kuadrillarentzat** (Bizkaiko Urduña, Arakaldo, Orozko eta Arrankudiaga udalerrriak barne; xede-biztanleria: 40.000 pertsona).

- Ospitalearen estaldura eremuko gaixo kronikoentzako unitatea (gaur egun Bizkaiko Gorlizko ospitalera bidaltzen dituzte).

- Larrialdiak, pediatrikoak barne.
- Psikiatria.
- Dermatologia.
- Ginekologia eta Obstetria, mamografia zerbitzua barne.
- Laborategia.
- Barne medikuntza.
- Zainketa Aringarriak.
- Oinarrizko erradiologia.
- Errehabilitazio zerbitzua.
- Etxeko ospitaleratzea.
- Ebakuntza gelak.

Gainera, Arabako ospitaleek **sukalde zerbitzu publikoa** izan behar dute, tokiko ekoizpen eta kontsumo eredu bat bultzatu eta bermatuko duena, 4 zutabetan oinarritua: *osasuna, ingurumena, landa garapena* eta *hezkuntza*, sintesiko produktu kimikorik gabeko (ongarri kimikoak, produktu fitosanitarioak eta zoosanitarioak) elikagaietan oinarrituko den dieta orekatu eta ekologiko bat sustatuz.

2.- Anbulantzia Zerbitzua:

- Anbulantzia parkea handitzea: Eusko Jaurlaritzak bete egin behar du berehala Arabari (Gasteiz albo batera utzirik) hiru anbulantzia medikalizatu emateko konpromisoa, falta den anbulantzia erosiz (Arabako hegoaldeko –Errioxa, Añana eta Mendialdea– arretarako erabiliko dena, zehazki Lezako Ospitalean kokatuta). Gainera, beste oinarrizko anbulantzia bat behar da Gasteizen.

- Arabako garraio sanitarioa publikoa izan dadila aldarrikatzea. Publizakazioa gauzatu arte, zorrotz zaindu behar da anbulantzia zerbitzu programatuan bete egiten direla enpresa zerbitzu emaileekin eginiko kontratuak. Ezin da onartu dialisira, errehabilitaziora... joan behar diren pertsonak bi orduz egotea anbulantziaren zain.

3.- Osasun sistemaren gardentasuna ziurtatzea, herrialde aurreratuen estandarrak betez, ustelkeriari eta iruzurrari aurre egiteko.

4.- Osasun sistema euskalduna bermatzea, arabarron hizkuntz eskubideak errespetatuko dituen, asistentzia maila guztietan.

5.- Arretaren kalitatearen okerragotzeari aurre egitea, lan baldintzetan eginiko etengabeko murrizketak eta baliabideen murrizketak amaituta. Lantaldearen behin-behinekotasuna murriztea. Modu berean, pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko bideragarritasun ekonomikoa aztertzea eta

gehiago ez pribatizatzeko konpromisoa hartzea. Osasun publikoa blindatzea, osasun sektore pribatuarekiko bateraezintasunen bidez.

6.- Lehen Arreta indartzea eta berdimentsionatzea, arlo guztietan, kontuan izanik osasun sistemaren oinarria dela, sistemara sartzeko atea, eta haren lehentasunezko eginkizuna indartzea, hots, herritarren artean osasuna sustatu eta gaixotasuna prebenitzea. Horretarako, nahikoa ekarpen ekonomikoa egitea (aurrekontu osoaren % 30). Zehazki, ekintza komunitarioak sustatzea Osasun Zentro guztietan, landa eremua barne, oinarrizko bi helbururekin:

* Gasteizko Osasun Zentroek erabakitzeko gaitasun handiagoa izatea, hiria zonifikatuta, zerbitzu hauez hornitzeko: Errehabilitazioa, Arreta Odontologikoa, Podologia 65etik gorako pertsonentzat eta pertsona diabetikoentzat, Arreta Psikologikoko Zerbitzua, Gizarte Langileak, Dietistak.

* Osasun Zentroek auzoko edo herriko beste erakunde eta kolektibo batzuekin lan egitea **Tokiko Osasun Sare** (TOS) edo antzeko bat sortzeko, osasunaz arduratuko dena tokiko ikuspegi batetik.

7.- Zerbitzu Soziosanitarioak berrantolatzea, egungo konpartimentazioa (gizarte esku-hartzea, esku-hartze sanitarioa, ezgaitasuna, mendekotasuna, adin txikikoak eta familia...) eta bikoiztasunak ezabatzeko. Hori guztia arloko profesional guztien ekarpenarekin eta herritarren nahiz tokiko erakundeekin ezinbesteko parte-hartzearekin.

8.- Arreta emakumeari. Osasun Sailari eskatzen diogu kontuan har dezala, sexuaren analisiaren gainera, genero ikuspegia ere aldagai gisa osasun ikerketan eta praktikan. Emakumearen osasunaren aldizkako baheketei eta azterketei buruzko informazioa eta ebidentzia zientifikoaren demostrazio handiagoa, ez-interesatuak edo interes ekonomizistetan oinarritu gabekoak. Bien bitartean, Osakidetza eskatzea *EMAKUME OSASUNTUA* azterketak berriro egitea, zitologien, ekografien eta azterketa ginekologikoen bitartez. Biurteko mamografiak osatzeko, bularren automiaketa egiten erakustea emakumeei, herritar guztientzat eskuragarri egongo diren ikus-entzunezko baliabideen bitartez. *“Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko protokoloa”* eta *“Etxeko tratu txarren eta sexu erasoaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa”* berrikustea (2008koak biak ala biak), eta Mugimendu Feministarekin batera emaitzak aztertzea. Ahalduzko programak, Arabako erakundeekin elkarlanean, indarkeria matxistaren aurkako protokoloen eta exijitu behar diren eskubideen dibulgazioarekin. Bizi prozesuen eta ugaltzearekin lotutako normalizazioan hezteko, patologizatu edo medikalizatu ez daitezkeen. Lankidetzaren udalekin emakumeen sexu eta ugaltze arreta hobetzeko, baita osasun arloko beste alderdi batzuk ere:

Eskola: Osasun afektibo sexuala (menderatzea edo zalantzazko onespina, xantaiak,...). Osakidetza eraren “Eskola Osasuna” egitasmoarekin batera (berriro martxan jar dadila eskatzen dugu).

Nerabeak: Sexu transmisio gaixotasunen prebentzioa, nahigabeko haurdunaldiak, indarkeria matxista,...

Adin ertaina: Bularren automiaketa, patologia ginekologikoak (espero ez diren odol galerak,...).

Menopausia: Ikuspegi fisikotik eta psikologikotik.

Adinekoak: Sexualitatea adineko emakumeengan. Udalen lankidetzak emakume migratzaileen sexu eta ugaltze osasunaren arretan, arreta mota hau izateko zailtasun handiagoak dituen kolektibo bat izanik, arreta berezia jarri sexu transmisio gaixotasunetan, amaren heriotza edo heriotza goiztiarreko arriskuan, mutilazio genitalean...

9.- Kontuan hartzea osasun ikuspegia Foru Aldundiak sustatutako jarduerak guztietan.

10.- Eskola Osasuna zerbitzua berreskuratzea, azterketa medikoak, txertaketak eta osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko programak aplikatzeko eskola adinean dauden haur guztiei. 2016-2017 ikasturtera arte, Eskola Osasuna zerbitzuan erizainek eta erizain-laguntzaileek osatutako 4 talde aritzen ziren. Txertoak jarri eta osasun azterketa osoak egiteaz gainera (entzumena, ikusmena, bizkarra...), ohitura osasungarriei buruzko azalpenak ematen zizkieten ikasleei: gorputz higiena, hortz-haginak, loa, hezkuntza afektibo-sexuala, elikadura, ariketa fisikoa, adikzioen prebentzioa... Prebentzio lan hori desagertu egin da, eta gaur egun soilik 4 lagun ari dira bi taldetan ikastetxeetan txertoak jartzen. Aurreikuspenen arabera, txertaketa zerbitzu hau ere desagertzeaz da, eta txertaketak osasun zentroetan egingo dira. Ondorioz, litekeena da osasun zentrori joango ez diren umeei txertaketa egutegia ez betetzea.

11.- Buru-osasuna

- Buru-gaixotasuna duten pertsonen dagokion erakundea utzi eta gizarteratzea gutxienei baldintzak betetzen direnean –ez lehenago– egingo dela ziurtatzea (etxebizitza, lana...); bestela, babesik gabe gelditzen dira, eta familiak hartu behar du bere gain zaintza.

- Egun etxebizitza pribatuetan dauden pertsona hauen arreta lehengoratzeko eta pixkanaka zerbitzu soziosanitario publikoen esku uztea (etxebizitza pribatuetan egoteak bizirauteko baliabide ekonomikorik gabe uzten ditu pazienteak eta haien familiak).

- Buru-osasuneko zentroetan, lehenengo bisitarako eta hurrengoetarako itxarote-denbora murriztea.

12.- Etengabeko Arreta Puntuak indartzea, itxarote-denborak murrizteko ospitale larrialdietan.

ARABA 2019ko maiatza